Goienkaria

2006ko ekainaren 23a > Egubakoitza > VI. urtea > 249. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Txiroa da India, baina etorkizunean guztiek hartuko dute kontuan"

Gracy Joseph
Moja> 09

TRANBIA
Tranbia 2007an hasiko dutela esan du Garraio Sailak Elgetan > 05

BERGARA
Herriko proiektuekin pazientzia eskatu du alkateak, 'Debarri'-n > 24

ESKORIATZA
EA-EAJk eta EBk onartu egin dute sei milioiko aurrekontua > 34

EUSKALGINTZAKO BLOG BAT
Arrasateko Euskara Biziberritzeko Planaren bloga 'Goiena.net'-en > 51

HILTEGIA > KUDEAKETAREN GAINEKO EZTABAIDA

Okelaren galerak hiltegiaren gaineko ika-mikak piztu ditu

OKELA GALERA Domekan 100 bururen okela galtzea "ekidin zitekeela" diote baserritarrek eta harakinek

ESKAERA German Berezibar Mankomunitateko gerentearen dimisioa eskatu du Hiltegia Bizirik plataformak

MANKOMUNITATEA "Gezurrak" esatea leporatzen dio plataformari, eta gerentearen lana defenditu du > 06

GELMA > UDAL GOBERNUA

Gobernua utzi nahi du Ines Aldaik

EAJ-EAko Ines Aldai zinegotziak esan du udal gobernua utzi egingo duela martitzenean > 34

AURKEZPENA Udako turismo eskaintza aurkeztu dute Oñatin Garapen eta Turismo Agentziak, Turismo Bulegoak eta Natur Eskolak. JULEN IRIONDO

G2a

Aurtengo udan Debagoienean gelditzeko gonbidapena

Debagoieneko Mankomunitateak eta ibarreko zenbait udalek turismoa bultzatzeko lanean dihardute. Kanpotarrak erakartzea eta Debagoieneko altxorrak ezagutzera ematea da helburua. Azken urteotako datuen arabera, dezente hazi da bisitarien kopurua. Gero eta turista gehiago etortzen dira. Aurten ere Debagoienera etortzeko gonbidapena zabaldu dute ibarreko turismo bulegoek.

Hain zuzen ere, atzo, eguena, udako turismo eskaintza aurkeztu zuten Oñatiko Unibertsitatean. > 44

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

GARRAIOA > DEBAGOIENEKO BIDEGORRI SAREA

Urte bukaerarako eutsiko diete berriz bidegorriei

TRESNAK Bizikleta bideendako Foru Araua eta Lurraldeko Zatikako Plana urtea bukatu baino lehen gertu egotea espero du Foru Aldundiak

HITZARMENA Diputazioak eta Mankomunitateak hitzarmena egin eta mahai iraunkorra osatu ahal izango dute tresna legalak eduki bezain laster

PROPOSAMENA Mankomunitatearen lehentasuna da Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza lotura, eta Aldundiak kontuan hartuko du eskaera

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko bidegorria egiteko hurrengo urratsak aurten emango dituzte, irailetik aurrera. Irailean dago aurreikusita Foru Aldundiaren Bizikleta Bideen Arauaren proiektua Batzar Nagusietan eztabaida dezatela. Gaur egun, bidegorriak egiteko arautegi zehatzik ez dago, eta horrek asko zailtzen du proiektuarekin aurrera egitea.

Beste pauso garrantzitsu bat urte bukaerarako emango dela aurreikusten du Foru Aldundiak. Epe horretarako egin gura dute bidegorriei eragingo dien Lurraldeko Zatikako Plana (LZP).

Tresna horiek erabiltzea ahalbidetuko duen elementu garrantzitsuena, ordea, erakunde inplikatu guztien arteko hitzarmena izango da, Foru Aldundia lortzen saiatzen dabilena egunotan. Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrak eta Debagoieneko Mankomunitateak mahai iraunkorra osatuko dute, eta asmoa da mahai horrek proiektua dinamizatzen joatea, aurrera doan neurrian. Aldundiko Bide Azpiegitura Sailak ere parte har dezala da asmoa, eskualdearendako lehentasuna duten zatiak egiteko. Hitzarmen hori Debagoieneko berezitasun bat izango da: Gipuzkoa osoan, eskualde honetan bakarrik izango da Aldundiko bi sail horien eta Mankomunitatearen elkarlana. Maltzaga-Urbina autobidearen lanen arabera sortu zen Aldundiko bi sail horien arteko akordioa.

Garapen Iraunkor Sailak Debagoieneko planari lehenbailehen eutsi gura dio; izan ere, euren esanetan, "Debagoienean, Donostialdean bezain premiazkoak eta lehentasun berekoak diren ibilbideak daude".

OZTOPO PRAKTIKOAK

Bidegorrien proiektua geldiune luzean dago azken hilabeteotan. Aldundiak dioenez, asmoak praktikara eramateko oztopoak daude; handienen artean, arau orokorrik ez egotea. Hala, araurik gabe, ezin daiteke, adibidez, lurrik desjabetu, eta ezin daiteke plangintza orokorrik egin, gero bertan behera gera daitekeeta. Erabili gura dituzten lur batzuk Feverenak (Espainiako Trenbide eta Trenak) dira, Vasco Navarro trenbidea hemendik pasatzen zelako. Antzuolako ibilbide osoa, esaterako, lur horietatik pasatzen da.

Beste alde batetik, Foru Araua eta dagokion LZP edukita, planifikazio tekniko eta aurrekontu egokiak lor daitezke. Adibidez, aurten, Garapen Iraunkor Sailak bi milioi euro ditu Gipuzkoa osoan bidegorrietarako; hori oso kopuru eskasa da, arduradunen esanetan, behar den moduko bidegorriak egiteko.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak tranbiaren proiektua dauka, eta horrekin modu berezian bateratu behar da bidegorriena, batzuetan ibilbide berbera izango dutelako. Jaurlaritza ez da egongo mahai horretan, baina Garapen Iraunkorrak baieztatzen du Garraio Sailak ere kontuan duela bidegorrien proiektua. Etorkizunean zehaztu beharreko gaia izango da hori.

Zailtasun handienak praktikoak dira, hortaz; eta elkarlan mahaia eratzen denean, horiek gainditzeko aukera izango da. Izan ere, Aldundiak dioenez, alderdi teknikoa "nahiko aurreratua" dago: aurre-proiektuak, lehentasunak… eginda eta aukeratuta daude zenbait kasutan. Batez ere, Mankomunitateak lagunduko du lehentasun horiek ezartzen. Izan ere, Mankomunitatea ibarreko udal guztien bozeramailea izango da Aldundiaren aurrean.

LEHENTASUNAK

Mankomunitateak ibilbide eta lehentasun proposamena egin zion Foru Aldundiari iaz, martxoan, eta Garapen Iraunkorreko Sailak baieztatu du behin betiko ibilbidea horren oso antzekoa izango dela, seguruenik. Are gehiago, lehentasun horietako batzuetarako aurre-proiektuak badaude.

Lehentasun handiena Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara lotuko dituen bidea da: Debagoieneko bidegorri sareko bizkarrezurra izango da hori. Horrek zati batzuk ditu: esaterako, Arrasateko mugatik Aretxabaletako A1 industrialderaino. Horren proiektua eginda dago, Aretxabaletako Udalak eskatuta.

Beste zati garrantzitsu batzuk hauek dira: Eskoriatzatik Landara joango den zatia; Antzuola Deskargatik lotuko duena; eta Elorregitik Oñatira joango dena. Azken azpi-proiektu hori, adibidez, tranbiaren ibilbidearen mendean egongo da.

Bidegorri sarearen zati nagusia, hortaz, herrien arteko loturek osatuko dute. Izan ere, bidegorriak herri arteko garraiorako daude pentsatuta; hala, ahalik eta erabilgarrienak izateko egin gura dituzte.

Gero, herri bakoitzeko auzoak ere bidegorriz komunikatzea da Mankomunitatearen nahia.

ORAINGO EGOERA

Bidegorri batzuk badaude Debagoienean, baina benetan garraiobide alternatiboa izatetik oso urruti daude. Gehienetan, ibilbide laburrak dira, herrian bertan hasi eta bukatzen direnak, eta aisialdirako erabiltzen direnak.

Aurreratuen dagoen herria Eskoriatza da. Han, hiru zati daude: Aingeru Guardatik Mazmelaraino; Olazar nagusien egoitza paretik Aretxabaletaraino; eta Dorletatik Bolibarko bideraino, 200 metroko zatia. Asmoa da azken hori Mazmelako bidearekin lotzea. Beste proiektu bat da Eskoriatzatik Leintz Gatzagara doan bidea konpontzea.

Aretxabaletan, Urkuluko urtegi inguruan iaz egokitutako bidegorria dago.

Bestetik, Arrasaten, Garagartzako zuzengunean eta Mekako zuzengunean (Muxibarko baserri paretik Mekara) zati bana dago.

Bergaran, Santa Marina ostetik Labegaraietaraino doan bidegorria dago. Vasco Navarro trenbidearen bidetik eginda dago, eta Labegaraieta irteerako biribilgunean bukatzen da. Trenbide zaharraren bidea jarraituta, Arrasatera eta Oñatiko Zubillaga auzora iristerik badago, baina ez dago bidegorri moduan egokituta.

Antzuolan, bereziki berreskuratu gura dute Vasco Navarroren bide zaharra, baina orain Feve erakundearen lurrak dira.

AISIALDIA Orain dauden bidegorri zatiak paseatzeko edo kirolerako erabiltzen dira batik bat, ez garraio moduan. L.K.

JENDEA HEZTEA ESKATZEN DUTE

Bideak bezain garrantzitsutzat jotzen dute sentsibilizazioa

Bidegorriak bezain garrantzitsua da bizikletaren kultura irakastea, bai erabiltzaileei, bai gidari eta oinezkoei. Hori da Oñatiko bizikletazale taldearen iritzia, behintzat, Migel Angel Letamendi kideak dioen bezala: "Arazoak sor daitezke bizikletaz doazen, oinezkoen… artean. Horregatik, sentsibilizazio kanpaina egin behar da". Haren proposamena hau da: "Ikasleek oporrak dituztela, eta bizikletaz gehiago ibiliko direla aprobetxatuta, bi hilabete-edo lehenago ikastaroak eman beharko lirateke, arauak betetzen irakasteko".

MANKOMUNITATEAREN PROPOSAMENA

Ibarreko ekipamendu nagusiak sarean egotea da asmoa

Bidegorriek elkarren artean lotuko dituzte herriak, baina herrietako ekipamendu garrantzitsuetara ere iritsiko dira, Mankomunitatearen proposamenak aurrera egiten badu: hala, Urkulu urtegia, Garaia berrikuntza gunea, industrialdeak, hiriguneak, herri bakoitzean oinezkoek edo gidariek asko erabiltzen dituzten lekuak… sarearen barruan geratuko lirateke. Horretarako, batzuetan konponketak behar izango dira.

Lehentasun handieneko zatiez gain, beste batzuk proposatzen dira: adibidez, aisialdirako erabiltzeko bide zati batzuk, oraindik erabakitzeko daudenak.



XABI PICO

Aldundiak oso garrantzitsutzat jotzen du ibarreko sarea, eta dio "lehenbailehen" eutsi gura diola

Garraiobide moduan planteatzen da bidegorria, baina aisialdirako zatiak ere izango lituzke

Elgetan, Oñatin eta Aramaion ez dago bidegorririk. Debagoieneko sarean Aramaiorekin lotura egiteko aukera aztertzen ari da Mankomunitatea. Elgetak Bergararekin lotura izango luke, eta Leintz Gatzagak, Eskoriatzarekin. Bi zati horiek hirugarren fase baten egingo lituzkete.

Oñatin, hango bizikletazale taldeak bultzatuta, bideragarritasun azterketa egin zuten joan den udaberrian, baina oraingoz ez da ezer egin. Talde horrek herriko auzoak elkarrekin komunikatzea eskatzen du.

Zalantzak aurten argitzen hasi, eta proiektuak bide onetik jarraitu ahal izango du.

Mercedes-Benz

Goiko Leniz SL

Debagoieneko Mercedes Benz zerbitzu ofiziala

Laguntzailea: MOVICAM

VITO AUKERA ZABALENA SALTZEKO ETA EROSTEKO

Zuk eta zure Vitoak abentura behar duzue
Gu izango gara zuen gidariak
Etor zaitezte!

Alokairuak
Finantzazioa
Bidaia-gunea
Diseinua
Prestakuntzak
Altzariak
Boutiquea
Osagarriak
Pertsonalizatu

Vito-gunea

Orain zure Mercedesa eros dezakezu!
70 modelo salgai!
Demo eta ia berriak stockean!
C klasea - A klasea - E klasea - Vito -Viano

VITO-TXARTELA
MOZTU ETA EKARRI TAILERRERA!
Mantenimendua.....%10eko deskontua
Neumatikoak.....%10eko deskontua

Araba etorbidea z/g 10 pabilioia ARRASATE Tel.: 943 71 19 03

ELKARTASUNA > SAHARA HERRIARI LAGUNTZA

Saharari lagunduko diote Txantxikuk eta Arizmendik

Jaietan txosna jarriko dute eta kamisetak ere atera dituzte dirua lortzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Saharari laguntzeko proiektua egin dute elkarrekin Oñatiko Txantxiku eta Arrasateko Arizmendi ikastolek. Saharara bidaltzeko dirua eta materiala bildu gura dute, han beharraren araberako proiektu bat martxan jartzeko. Abenduan egingo dute bidaia Saharara herrialde horren egoera bertatik bertara ezagutzeko, eta Fronte Polisarioarekin eta Nubi elkartearekin batera hasita daude bidaia antolatzen.

140 LAGUN

140 lagun doaz guztira eta 102.000 euro behar dituzte euren egonaldirako, materialerako eta kanpamenduko proiektua garatzeko. Horiek lortzeko, hainbat egitasmo pentsatu dituzte: eskualdeko herriko jaietan txosna jarriko dute –San Juanetan adibidez–, kamisetak eta txartelak atera dituzte eta inguruko denda eta enpresetan eskola materiala edo botikak eskatuko dituzte, besteak beste. Hori guztiori egiteko taldeka antolatu dira, Kilometroen eredua jarraituta.

> MINTEGIA

Ibarretxe, Reid eta Setien bakeaz arituko dira uztailean Oñatin

Bake eta giza eskubideen prozesuari buruzko mintegia antolatu du Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuak. Hiru bake prozesu izango dituzte aztergai: Kolonbiakoa, Irlandakoa eta Euskal Herrikoa. Horri buruz mintzatuko dira, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe, Alec Reid, Javier Eltzo eta Jose Maria Setien. Uztailaren 3tik 6ra egingo dute mintegia institutuan eta Gandiaga Topagunean.

> ERREPIDEAK

Ubera auzoko errepide zatia konponduko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergaratik Elgetara doan GI-2632 errepidearen zati batzuk konponduko ditu. Ubera auzoko errepide zatiaren zoruaren egitura berrituko dute zehazki, 300 metro guztira. Mutrikuko errepide baten lanen proiektu berean sartu dute, aurrekontu bateratuarekin. Lanen lizitazioa atera du orain Aldundiak. Aurrekontua 281.000 euro da eta lanek hiru hilabete iraungo dute.

> LANDA GARAPENA

Ideia eta proiektu berritzaileen hirugarren sariketa

Ideia eta proiektu berritzaileen hirugarren sariketa antolatu du Deba Garaia Debagoieneko landa garapenerako elkarteak. Nekazaritza arloarekin zein landa garapenarekin zerikusia duten ekimenak suspertu eta garatu nahi ditu elkarteak eta horregatik antolatu du hirugarren aldiz lehiaketa. Sariez gain, proiektua lantzeko beka eta jarraipen laguntza ere emango dute. Irailaren 22an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea.

> HARRERA FAMILIAK

Harrera familiei laguntzeko zerbitzua jarriko dute

Gipuzkoako Aldundiak harrera familiei laguntzeko zerbitzuaren lehiaketa zabaldu du. Aurrekontua da 546.224 euro. Harrera familia Aldundiaren tutoretzapean dauden adingabeak babesteko hartzen duten neurri bat da. Familia horiek aldi baterako hartzen dituzte etxean umeak, familia biologikoak haien kargu egin daitezkeen arte. Joan den urtean, adibidez, 206 adingabe egon ziren 149 harrera familiatan.

GARRAIOA > SAILBURUA ELGETAN IZAN DA ASTE HONETAN

Tranbia 2007 amaieran hasi nahi dutela esan du Garraio sailburuak

Aretxabaletako Udalak tranbiaren proiektuari egindako ekarpenak onartu ditu Foru Aldundiak

Garraio Sailaren helburua da AHTk nekazari jardueran ahalik eta eragin txikiena izatea

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak hil honetako batzarra egin zuen eguaztenean. Elgetako udaletxean zuten hitzordua, eta ohiko batzarraren aurretik Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburuak tranbiaren eta AHTren gaineko azalpenak eman zizkien Mankomunitateko ordezkariei.

Batzarretik irtendakoan Lopez de Gereñuk tranbiaren gainean esan zigunez, "bi udaletatik aurkeztu ziren aldaketak. Aretxabaletako kasuan onartu egin ziren; Bergarakoan proiektua ixten ari gara, eta ikusten zenbateraino onar daitezkeen ekarpenak. Prozedura aurrera doa eta zehaztutako zatietan eraikuntza proiektua garatzen ari gara".

Udaletatik jasotako ekarpenen gainean sailburuak esan zigun ibilbidearen gainekoak direla gehienak. "Garraio sistema batek ez dio erantzun behar gaur egungo herriaren egoerari, baizik eta herriak epe ertainean edo luzean izango dituen beharrei. Horregatik garrantzitsua da udalekin elkarlanean jardutea eta lortzea garatuko diren azpiegiturek erantzutea etorkizunean ere egongo diren beharrei".

AHT AURRERA

Abiadura Handiko Trenaz ere eman zituen azalpenak. Esan zuen apirilaren 24an sinatutako hitzarmenaren helburua dela ahalik eta azkarren azpiegitura hori eraginkorra izatea. "Hitzarmenean jasotzen diren pausoak ematen ari gara definizioari dagokionez eta baita teknikoki beharrezkoak diren lanak eginez".

Lurren jabetza kentzeari buruz Lopez de Gereñuk esan zigun prozedura abian dela. "Orain dela bi aste aurkeztu genuen lurzoruen kudeaketa egiteko eredua eta kaltetu bakoitzarekin harremana nola egin zehaztu genuen. Informazioa pilatzen ari gara gerta daitezkeen kalteei irtenbidea emateko. Helburua da azpiegitura honek nekazari jardueran eduki dezakeen eragina ahalik eta txikiena izatea eta nekazari jarduera ez urritzea".

Epeei dagokienez, esan zuen noiz amaituko diren esan aurretik hasi egin behar direla. "Tranbiaren kasuan, eraikuntza proiektuekin hasi gara. Espero dugu ekarpenak proiektuan sartzeko administrazio tramiteak ahalik eta gutxien luzatzea, eta 2007an eraikuntza lanak hastea. *Y*-aren kasuan zatika garatu behar denez, ibar honetatik ez, baina urte amaieran hasi nahi genuke obrekin. Debagoienean noiz hasiko garen esateko goiz da oraindik. Eraikuntza ez da hasten garabia lanean hasten denean, aurrez lan asko dago".

UDALETXEAN Elgetako alkateak hartu zituen Lopez de Gereñu sailburua eta Arruabarrena Garraio zuzendaria. I.A.

MANKOMUNITATEKO BATZARRA

Garraiobide askorendako geltokia Arrasaten kokatzea adostu zuten Elgetako bileran

Ohiko gaiez jardun zuten Mankomunitateko bileran. Lurralde antolamenduari dagokionez, ibarreko garraiobide askorendako geltokia izan zen gai nagusia. Izan ere, adostu zuten Arrasaten, Arruena inguruan kokatzea geltokia. Orain finantziazioa nondik lortu aztertu beharko dute. Lan mugikortasun azterketa; Lurraldeko Zatikako Planaren eta udal plangintzen arteko desadostasunak; eta garraiorako hitzarmenaz ere jardun zuten. Ingurumen alorrean Eskola Agenda 21 izan zuten hizpide. Hiltegiak ere eman zuen zeresanik, hondakinak erretiratzeko zerbitzua emateko kontratuaren luzapenaz jardun baitzuten. Garapen Agentziako enplegu eta prestakuntza atalean erabaki zuten Enpresan Ekintzetarako Zentroko moduluak erabiltzeko zenbait baimen luzatzea; eta Lanbide Hastapeneko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratua luzatzea.

Egoitza berria

Sociedad de Garantía Recíproca Elkarrekiko Garantia Elkartea
ELKARGI

BERGARAN

ELKARGIk bere abal jarduera eta zerbitzu finantzieroak Debagoienako enpresa txiki eta ertainetara gerturatzen ditu. Gaurtik aurrera eta euren finantziazio beharrei erantzunik egokiena emateko, eskualdeko enpresek ELKARGIren bulego berria dute Bergaran.

25 urte baino gehiago ETEn finantzaketaren zerbitzura

ELKARGI BERGARA
Ibargarai kalea, 30 bajo • 20570 Bergara • Tel. 943 77 70 74 • Fax. 943 77 70 75
ebergara@elkargi.es

EGOITZA NAGUSIA / SEDE PRINCIPAL
Mikeletegi pasealekua, 50 • 20009 Donostia-San Sebastián • Tel. 943 309060 • Fax. 943 309190
elkargi@elkargi.es

www.elkargi.es

HILTEGIA > KUDEAKETA EZTABAIDAN

Hiltegiaren kudeaketa falta salatu dute ibarreko baserritarrek eta harakinek

German Berezibar gerentearen lana ona dela esan du Mankomunitateko gobernu batzordeak

Ekaitzagatik galdutako 100 bururen okela erabiliko dute industria kontsumorako

Abeltzaintza sektoreko 50 lagun inguruk eman zuten prentsaurrekoa eguaztenean Monterronen. O.E.

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Hiltegiaren kudeaketa gabezia salatu eta German Berezibar Mankomunitateko gerentearen dimisioa eskatu du Hiltegia Bizirik plataformak. "Asteburuan gertatu dena gehiegizkoa izan da, baina kudeaketa falta lehenagotik dator, hasieratik, eta horregatik eskatzen dugu gerentearen dimisioa", esan du prentsaurrekoan Pedro Lasagabaster Hiltegia Bizirik plataformako kideak.

Mankomunitateak, bestalde, Berezibarrengan duen uste ona berretsi du prentsa ohar baten. "German Berezibar hiltegi zerbitzuaren arduradun teknikoa da eta teknikari bezala gobernu batzordeak urtero onartutako kudeaketa plana eta aurrekontua bete besterik ez du egiten", gaineratu du oharrean.

100 BURUREN OKELA GALDUTA

"Egubakoitz gauean 100 bururen okela galdu zen, ekaitzak izozkailua matxuratu zuelako, eta hori ekidin egin zitekeen. Aspaldian eskatu genuen izozkailuak kontpontzeko, baina 2010-2015 bitartean konponduko dituztela dio plangintzak. Bestalde, Aldundiak emandako 50.000 euroko laguntzari uko egin diote eta Inazio Lakuntzak eta Victoriano Gallastegik agerian utzi dute borondaterik eza hiltegiak aurrera egin dezan, eta diru horrekin, alarma bat jar genezakeen hiltegian, horrelako ustekabeen berri izateko", jarraitu du Lasagabasterrek.

Victoriano Gallastegi hiltegiko batzordeko presidenteak haserre entzun ditu adierazpen horiek eta erabat gezurtatu ditu. "Gezurra da guk diruari ez diogula kasurik egin eta inbertsioei buruz, berriz, maiatzean onartu genituen 100.000 euro hiltegirako, tartean izozkailuak berritzeko eta konpontzeko. Lanak, gainera, adjudikatuta daude dagoeneko eta laster hasiko dituzte".

INDUSTRI KONTSUMORAKO OKELA

Jon Leturia harakinak, bestalde, galdutako okelarekin zer egin behar duten eta dirua nork kobratuko duen galdetu zuen. "30 gradutan egon da okela hori asteburu osoan eta guk, behintzat, ez dugu salduko", esan zuen. "Gainera, hemengo euskal okelak duen irudia eta izena galdu da gertaera honekin, eta hori oso larria da", gaineratu du. Victoriano Gallastegik erantzun dio kezka horri eta okela "kontsumo industrialerako" erabiliko dutela esan du. "Diruari buruz, berriz, ez dakit zergatik duten kezka hori. Kontsumo industrialetik zati bat eta segurutik beste bat, baina diruaren ehuneko ehuna kobratuko dute bai harakinek baita okela harategira eraman duten partikularrek ere", gaineratu du. Bestalde, hiltegiko langileen portaera eta lana txalotu du Leturiak, "prest egon direlako harakinei eta baserritarrei laguntzeko".

ARALARREK ERE SALAKETA

Asteburuan hiltegian gertatu denari buruz iritzia eman du Aralar alderdiak prentsa ohar bidez. "Zorigaiztoaz gain, gertatutakoak badu beste arrazoi bat: kudeaketa eskasa", dio oharrak eta horrelako arazoei aurre egiteko aldez aurretik neurririk hartu ez izana leporatu dio Mankomunitateari. Kudeaketa eredu berri bat eta bideragarritasun plan bat egin behar direla ere badio prentsa oharrean.

VICTORIANO GALLASTEGI, HILTEGIKO PRESIDENTEA

"Plataformak gezurra dio eta erreflexionatu egin beharko luke inor salatu aurretik"

Victoriano Gallastegi hiltegiko batzordearen presidenteak esan du plataforma gezurretan ari dela: "Batetik, gezurra da ez Lakuntzak eta ez nik Aldundiko 50.000 euroekin ezer jakin nahi ez dugunik; justu gaur, egubakoitza, izan dugu bilera dirulaguntza horren inguruan. Bestetik, gezurra da dirua nork jasoko duen ez dakitela diotenean; dirua ehuneko ehunean jasoko du okela hiltegira eraman duenak, protokoloak agintzen duen bezala. Hirugarrenik, ez dakit zergatik eskatzen duten German Berezibarren dimisioa, asteburuko gertaera ez ohikoa, ustekabea, izan bada, eta erreflexionatu egin beharko lukete inor salatu aurretik".

KIA
KIA MOTORS
KIA SORENTO
%14rainoko
DESKONTUA
Ezagutu ezazu!

KIA CARNIVAL
%16rainoko DESKONTUA

KIA SPORTAGE
%10erainoko DESKONTUA

Tecnocar
Honda eta Kia
banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38
Adi!
0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA CIVIC 5 ate ES CTDI (04)
HONDA HRV 5 ate 4WD VTEC (02)
HONDA FRV 2.2 i CTDI EXECUTIVE(05)
RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03)
SEAT LEON TDI (04)
*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams
Eta orain, nabigatzailea oparitzen dizugu!
HONDA CRV
Diesela i CTDI
26.900 eurotik
aurrera*

HONDA CIVIC BERRIA
17.700 eurotik aurrera*

HONDA ACCORD BERRIA
22.400 eurotik aurrera*

Maite Aristegi > Nazio Garapen Biltzarra

"Indarrak batzea eta herri eraikuntzarako etekina ateratzea da gure helburua"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Nazio Garapen Biltzarra aurkeztu dute asteon Bergaran mintegi batean. Maite Aristegik eman zituen azalpenak eta, besteak beste, herritarren konpromisoa eskatu zuen gatazka konpontzeko bidean parte-hartzeak duen garrantziarengatik.

Zer da Nazio Garapen Biltzarra?

Bereiztu behar dira Nazio Eztabaida Gunea eta Nazio Garapen Biltzarra. Lehenengoa da euskal herritarron arteko eztabaida nazional eta demokratikoa egiteko eta bidea adosteko gunea. Hau da, gure nazioaren biziraupena eta garapena ziurtatzeko nondik nora jo behar dugun adosten da bertan. Urtean behin alderdi, sindikatu, herri mugimendu... ordezkatuz 400 lagun elkartzen dira eztabaidan. Estrategiak markatu eta Nazio Garapen Biltzarrak hor hartutako erabakiak kudeatuko lituzke. 40 laguneko talde bat da eta urtean zehar egiten dute lan.

Mintegia egin duzue asteon. Zein helbururekin?

Helburu nagusia da Euskal Herria aintzat hartzen dugun herritarrok honen berri izatea. Beraz, informazioa eman dugu batetik. Euskal Herrian bizi dugun egoeran garrantzitsua da herri eraikuntzan ditugun hutsuneak elkarlanean betetzea. Beraz, uste dugu konpromiso garaira iritsi garela, herritarren parte-hartzea ziurtatzeko. Eraiki nahi dugun Euskal Herrian harri koskor pila bat behar dira eta nork bere esparrutik auzolanean gauza asko egin ditzake.

Zein dira Euskal Herriak biziraun eta garatzeko lehentasunezko egitasmoak?

Eragileok lan esparru ezberdinetan dihardugu: euskararen berreskuratzea, euskal komunikazio esparrua, kirol eta hezkuntza sistema nazionalak, sexuen arteko parekidetasuna, autodeterminazioaren aldeko ekimenak, euskal naziotasunaren aldeko dinamikak, azpiegiturak eta iraunkortasuna, gazteria, kulturaren garapena, migrazioak, lan harremanak, babes soziala... Hauetaz gain, salbuespen egoerei erantzuteko batzordea finkatu behar da; pentsamendu eta ideologia lantzeko, berriz, Gogoeta XXI sortu da. Azken finean, indarrak batzea eta indar horiei herri eraikuntzarako etekina ateratzea da helburua.

Epe laburrean zein asmo duzue?

Lan lerro asko ditugu finkatuta eta nor bere bidea egiten ari da. Beraz, hurrengo muga aurtengo Nazio Eztabaida Gunea da, urrian Nafarroan egingo dena. Hor ikusiko da noraino iritsi garen eta zer dugun egiteko.

Maite Aristegi Nazio Eztabaida Guneko kidea da. I.A.

"Euskal Herriko egoera ikusita, garrantzitsua da herri eraikuntzan ditugun hutsuneak elkarlanean betetzea"

"Hurrengo muga urrian Nafarroan egingo den aurtengo Nazio Eztabaida Gunea da"

C&C AKADEMIA
Matrikula zabalik!
LLONGUERAS
IRAKASKUNTZA ZENTROA
ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA
Aurrena, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!
C&C Llongueras diploma ofiziala
Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan
Nazioarteko lan-poltsa
Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: cc-llongueras@hotmail.com

Servimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak
FAGOR etxetresna elektrikoak
• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak
Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

kontsumoa

Gazteek eskatzen dute etxebizitza politika zuzentzea. GOIENKARIA

EAEn gazteek soldataren %68,5 behar dute etxebizitza erosteko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gazteek gero eta zailtasun gehiago dituzte etxebizitza erosteko. Gazteria Kontseiluaren arabera, 2005eko azken hiruhilekoan 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek soldataren %55,2 behar zuen merkatu librean etxebizitza erosteko. Kostuak asko aldatzen dira autonomia erkidego bakoitzaren arabera, eta EAE batez bestekoaren gainetik dago, soldataren %68,5 behar baita etxebizitza libreak erosteko.

Hala, Espainiako gazteak dira Europan gurasoen etxebizitza lagatzen azkenak. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean hamarretik batek baino ez du etxetik alde egin; 25 eta 29 urte bitartean kopurua %42,4ra igotzen da eta %50etik gorakoa da 30 eta 34 urte bitartekoen tasa. Etxea erosteko oztopoen artean daude lan kontratuen behin-behinekotasuna eta interes tipoak. Honen aurrean gazteek eskatzen dute etxebizitza politika zuzentzea, alokairuko etxebizitzak indartuta eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikita.

Hoteletan leku baino eskari gehiago aurreikusi dute

Udarako aurreikusi dute daudenak baino plaza gehiago salduko direla hoteletan; beraz, jaiegunetan eta asteburuetan *overbooking*-a gerta daiteke. Eskariek aurreikuspenak gainditu dituzte eta bidaia agentzien arabera hotelak %100ean beteta egongo dira. Turisten artean alemaniarrak dira nagusi erreserbei erreparatuta. Espainian lekurik bisitatuena Mediterraneoa da; baina Balear eta Kanariar irlek ere indarra hartuko dute, eta baita Espainia barneko herriek ere.

Udako fruten prezioekin kezkatuta daude nekazariak

Nekazariak ez daude ados fruta banatzaileen prezioekin eta Gobernuari eskatu diote mugak ipintzeko bitartekariei. Udako fruta goiztiarrenen prezioa jaisteak ez du zerikusirik klimarekin, baina nekazariek iaz jasotakoaren erdia jaso dute aurten fruta berarengatik. Kontsumitzaileek ez dute beherakada igarri; kasu batzuetan, gainera, iaz baino garestiago erosten dituzte dendan. Melokotoia da horren adibide: jatorrizko prezioa 0,40 euro da eta dendakoa 2,75 euro.

gure artekoak

ENPRESA EKIMENETARAKO ZENTROA > Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziaren barruan enpresa ekimen berriei laguntzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta baita lokalak eskaini ere.

Amaia Irizar

"Enpresa berriak sortzeko laguntza ematen dugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Garapen Agentziak Arrasaten ditu bulegoak eta Enpresa Ekimenetarako Zentroa ere han dago kokatuta. Antzuolako Olaran etxean ere badituzte zenbait lokal. Amaia Irizarrek eman dizkigu auto-enplegu zerbitzuaren gaineko argibideak.

Zer da Enpresa Ekintzetarako Zentroa?

Garapen Agentziatik, besteak beste, norbere kontura lan egin nahi dutenei laguntzak ematen dizkiegu. Beraz, Enpresa Ekintzetarako Zentroan daude sortu berri diren enpresendako lokalak. 2.200 metro koadro ditugu guztira, 11 industria modulu eta 16 zerbitzu modulu.

Zer eskaintzen diozue enpresa berria sortu nahi duenari?

Ekimenak aurrera ateratzeko informazioa ematen dugu, baita zalantzak argitu ere. Gainera, sustatzaileekin elkarlanean bideragarritasun plana egiten dugu. Bestalde, enpresak sortzearen gaineko ikastaroak ere antolatzen ditugu. Dirulaguntzen gaineko informazioa ere ematen dugu. Gainera, Garapen Agentzien Elkartearen bidez finantzaketa baldintza hobean lortzeko aukera eskaintzen diegu enpresa berriak sortzeko.

Amaia Irizarrek Zaldibar eraikineko Enpresa Ekintzetako Zentroan dihardu. I.A.

FITXA TEKNIKOA

> EKINTZAILEEN PROFILA
25 eta 35 urte bitarteko gizonezkoa da eta batez beste 112.000 euroko inbertsioa egiten du.

> ZAILTASUNAK
Enpresa abian jartzeko tramiteek eta lokalen prezioek sortzen dituzte arazo handienak.

> INTERNET
Mankomunitateko webgunean aurki daiteke informazioa: *www.debagoiena.com/Garapen_Agentzia* helbidean.

Behin enpresa sortutakoan?

Sortu arteko laguntza ematen dugu. Batzuk Enpresa Ekintzetako Zentroan kokatzen dira eta beste batzuk kanpoko lokaletan.

Nolako enpresak dira?

Gehienak bi edo hiru lagunekoak eta zerbitzu arlokoak.

Hemendik sortutako enpresek aurrera egiten dute?

Jarraipenik egiten ez dugunez ez daukagu datu zehatzik, baina ikastaro batean irakasleak esan zuen enpresen %80 desagertzen direla lehen hiru urteetan.

etxeko leihotik

Iban Arantzabal > Goienako telematikako zuzendaria

Gerrigintza gutxi bai, eta herrigintza gutxiago

Irakurri berri dut *Gerrigintza errotikoa*-ren gainean. *Argia*-n eta *Piperrautsa* blogean izan dugu aukera. Luze dihardu, baina "herrigintza asko" horretan geratu naiz, gerrigintza erotikora heldu ezinik.

Herrigintzatik gero eta gutxiago dago gurean. Errazagoa da norbere gerria dantzatu edo zilborrari begiratu: beltzaran jartzeak kentzen digu denbora, *Aqui hay tomate* edo mundialari begira orduak eta orduak, bide bazterrak txirrindulariz josita, talasora sarriago goaz... Eta ez naiz ni txarto dagoela esango duena, baina horrek kentzen du denbora bai gerrigintzarako bai herrigintzarako. Badirudi norberarendako gero eta ordu gehiago hartzea modan dagoela, modaegi, eta hori, herrigintzaren kaltetan doa.

"Sedukzioa beharrezko dugu komunitatea sendotu eta aktibatzeko"

Autokritika egin beharko dugu herrigintzan sinisten dugunok. Sedukzioa behar dugu komunitatea sendotu eta aktibatzeko. Aktiboago gerrigintzarako eta plazerrerako. Eta horretatik badugunez, herren dagoen herrigintzarako. Seduzitu beharko da armekin: erakargarritasuna, ironia, probokazioa, limurketa... Sedukzioaren liderrak behar dira herrigintzarako.

> Eroskiren inkestaren arabera gara: gero eta autonomo eta indibidualistagoak, autoestima oso handikoak erosten dugunarekiko, konpromiso eskasekoak kontsumoaren gizartea hobetzearekiko...

> EAEko TB audientziak: Espainia-Tunisia partiduaren aurreko futbol programak 195.000 ikusle. Partiduak berak 390.000. Batuta milioi erdi lagunetik gora pantaila aurrean. Herrigintzan?

begi-bistan

Baserriak paneletan Urkulun (Aretxabaleta)
2006/06/18

Argazkia: Eneko Azkarate.
Testua: Mirari Altube.

Urkulura egun pasa joan eta honako panel hauekin egingo dugu topo. Urtegia egin zutenean desagertutako baserriak gogoratzeko argazki zaharrak agertzen dira panelotan.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak

Antonia Suinaga
OSTALARIA

Gipuzkoako ostalariek urteroko jaia egin zuten martitzenean Donostiako Costa Vasca hotelean. Bertan omenaldia jaso zuten aurten erretiroa hartuko duten elkarteko bost kidek. Omenduen artean zen Bergarako Zabala jatetxeko Antonia Suinaga ere.



Mikel Labaka
TRIATLETA

Antxintxika Algon taldeko triatletak Lekeitioko triatloian lehen postua lortu zuen gaztetxoen mailan, bigarrenari hiru minutu aterata. Igerian eta bizikletan oso ondo ibili ostean, arineketan aldeari eutsi zion. Labakak iaz hartu zuen parte lehen aldiz triatloian, Urkulun.

Jose Maria Gonzalez
ZINEMAGILEA

Txorixak galduta egozenian Jose Mari Gonzalez oñatiarraren dokumentala zinema aretoetan ikusiko da egunotan. Zumarragako baserri batean bizi den familiaren istorioa kontatzen du. Oñatin, Eskoriatzan eta Arrasaten ere filmatu ditu hainbat irudi.

Indiako hegoaldean jaio zen Gracy Joseph moja. Gizarte Lanak ikasi zituen unibertsitatean. Bombayn sortu zuten Ankur proiektuan dihardu, hango neskei etorkizun hobea emateko lanean. Hemengo ikastetxe batzuek dirulaguntzak bidaltzen dituzte hara. Duela urte eta erdiko tsunamiak egindako kalteak konpontzen ere badabil oraindik.

Gracy Joseph > Indiako moja

"Txiroa da India, baina etorkizunean herrialde guztiek izango dute kontuan"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Ez da Arrasatera etorri den lehen aldia, baina, beti bezala, hitzordu asko izan ditu oraingo bisitan ere. Arrasate eta Aramaioko ikastetxeak bisitatu ditu eta komunikabideei kasu egiteaz gain, hitzaldiak ere eman ditu Indiako egoerari eta hango emakumeei buruz. Martitzenean horri buruz arituko da San Andresko parrokiako lokaletan.

Zer kontatu diezu Arrasate eta Aramaioko ikasleei?

Bombayko Ankur proiekturako dirulaguntza bidaltzen digute eta diru hori zertarako erabiltzen dugun eta Indiako jendeak bizi duen egoera nolakoa den kontatu diet.

Zer lan egiten duzue Ankur proiektuaren barruan?

Ankur zentro bat da eta bizimodu txarra izan duten neskatilak eta neskak jasotzen ditugu. Han ematen diegu jaten, baita lo egiteko tokia eta ikasketak ere.

3 eta 18-19 urte bitarteko 250 neskatila bizi dira orain zentro horretan, eta, besteak beste, erizain, idazkari edo irakasle izateko gai direnean ateratzen dira hortik. Zazpi moja gara eta irakasle, guraso edo polizia lanak egiten ditugu ume horiendako.

Nolako bizimodua dute Indiako umeek?

Indiako umeen %80k aldizkariak saltzen, zapatak garbitzen edo zama lanak egiten pasatzen dute haurtzaroa. Euren senideak ere oso pobreak dira eta ikasketak baino garrantzi handiagoa du jateko zerbait lortzeak, goserik ez pasatzeak.

Zertarako erabiltzen duzue hemengo laguntza?

Hezkuntzarako erabiltzen dugu gehiena, baina janaria, arropa edo botikak erosteko ere aprobetxatzen dugu.

Arropa ere bidaltzen digute batzuetan, baina normalean dirua jasotzen dugu. Behar-beharrezkoa da laguntza hori eta hori gabe ezingo genuke zentro hori zabalik eduki. Debagoienetik ez ezik, Kataluniatik ere bidaltzen digute laguntza. Bestalde, Ankureko zentroaz gain, prostituzioa utzi duten emakumeekin lan egiten dugun beste zentro bat ere badugu Bombayn bertan.

Astelehenean urte eta erdi beteko da tsunamia gertatu zela. Zer ikusi zenuen?

Aita Menni ospitalean jarri duten tsunamiari buruzko erakusketa ikusi du, bide batez, Gracyk. O.E.

ANKUR

"Hemengo laguntzarik gabe, ezinezkoa litzateke zentro hori zabalik izatea"

Gertatu zen egunean ez nintzen han, duela zortzi hilabete joan nintzen Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundearekin. Etxebizitzak berriztatzen ari gara, adibidez, eta umeendako eta amendako laguntza zerbitzua martxan dugu ospitalean, behar dituzten botikak emateko.

NAZIOARTEKO DIRULAGUNTZAK

"Gobernuen arteko dirulaguntzetan ustelkeria dago, baina GKEen bidez heltzen da"

Zerk harritu zintuen?

Erabat txikituta zeuden inguru guztiak, baina hori baino okerragoa da hil zirenak eta bizirik gelditu ziren lagunen esperantza eta ilusio falta. Egoera hobera doa, baina oraindik badago lana: etxebizitzak eraiki gabe daude oraindik, jendea hondakinen artean bizi da eta umeendako hezkuntza sistema bera ez dago antolatuta.

TSUNAMIA

"Bizpahiru hilabetean jendeak lagundu egin zuen, baina oraindik ere laguntza behar dute"

Tsunamia gertatu zenean jende asko joan zen laguntzera, baina bizpahiru hilabetera euren herrietara bueltatu ziren, eta oraindik lan asko dago han egiteko; esaterako, oraindik 30-40 familia datoz egunero ospitalera medikuarengana eta jateko elikagai bila.

Nazioarteko laguntzak heltzen dira?

Ustelkeria dago gobernuen arteko dirulaguntzetan. Baina gobernuz kanpoko erakundeen bitartez bidaltzen badira, eta batez ere erlijiosoen bitartez, zuzenean heltzen da dirulaguntza guztia.

Jendeak azkar ahazten ditu horrelako gertaerak?

Ez dut uste. Hura ikaragarria izan zen eta jendea urtetan gogoratuko dela uste dut, historia liburuek ere jasoko dute hori.

Laguntza emateko konpromisoa hartzen du jendeak?

Bai, bihotz onekoa da jendea, eta laguntzeko gertu egoten da.

Ezer onik ekarri dio tsunamiak inguru horri?

Herria garatzen lagundu du. Orain, adibidez, 700 etxebizitza egiten ari gara eta tsunamia gertatu aurretik, inork ez zuen pentsatzen horrelako etxerik izango zuenik. Herriaren irudia aldatuko du egoera horrek eta hori onerako izango dela uste dut.

Zein da Indiak duen arazorik larriena?

Txirotasuna eta jendearen analfabetismoa.

Zer egin behar du gobernuak hori gainditzeko?

Txirotasuna izugarrizko arazoa da. Berez herrialde aberatsa da eta ekonomikoki osasuntsu dago, baina banaketa ez da zuzena, gaizki banatuta du duen aberastasuna, batzuek asko dute eta beste batzuek ezer ez. Herritarren %80k ez dute ezer ere.

Ze etorkizun ikusten diozu zuk Indiari?

Gazteak dira etorkizuna, eta etorkizun indartsua ikusten diot nik. 540 milioi gazte daude Indian eta gerora herrialdearen aurpegia aldatu egingo dela uste dut.

Zer gertatuko da India esnatzen denean?

Etorkizunean kontuan izango dute guztiek India. Teknologian, bonba atomikoetan, espazioko satelitetan eta softwareetan aurrerapen handiak egin ditu, eta hilabete baten bi milioi segapoto banatu ditu.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

Edan, ian, lo... barre

Iruña-Veleiakoa sekulakoa izan da. III.-V. mende ingurukoak ei dira idazkiok. Oraingoz dakigun apurragatik, 25 bat berba agertu dira, batzuk erlijio kristaukoak: *Iesus, Ioshe, Mirian, geure ata zutan* (geure aita zugan, edo). Eta beste batzuk eguneroko berbak: *zuri, urdin, gori, edo edan, jan, lo.*

Geure buruari nahikoa txiste egin diogunez (euskaldunak ez garela asko aldatu harrezkero, "Euskaldun fededun, tripadun"), beste batzuen kontura egingo dugu barre pittin bat.

Akordatzen orain dela 20 bat urte Araban sortu zen "Asociacion Veleia por la defensa del castellano" elkartearekin? Gaztelania arriskuan omen zegoen Araban, eta Veleia izena jarri zioten elkarteari, erromantzearen ikurra zelakoan, bere "V" eta guzti. Nolako gerra eman zuten euskara ereduen kontra, eta abar. (Bide batez, esango diegu Veleia "bele hegia" izan daitekeela).

Akordatzen UAkoen tesiarekin?: "En Alava jamás se habló vascuence", titulatu zuen fundatzaile batek bere artikulua *El Correo*n. "Salvo en Aramayona", zehazten zuen letra txikian.

Akordatzen Sanchez Albornoz eta beste historialari serio eta zientifiko batzuen tesiekin? Hauen arabera, antzinatean baskoiak bakarrik ziren euskaldunak, nafarrak, alegia. Barduloak, karistioak eta abar (gipuzkoarrak, bizkaitarrak, arabarrak...) ostera ez. Zeltak edo auskalo zer. Baina Erdi Aroaren hasieran inbaditu eta baskonizatu egin zituzten, eta horregatik egiten da euskara mendebaldean.

"Iruña-Veleiakoa sekulakoa izan da. III.-V. mende ingurukoak ei dira idazkiok"

"Esan dutenez, udazkenean berba gehiago. Ea "barre" agertzen den"

Norberaren buruari barre egitea oso sanoa da, baina horrelako jendearen kontura egiteak egundoko osasuna ematen du. Beleak ere horixe egiten du kablearen hegitik, soroan artoa ereiten ikusten duenean.

Eta esan dutenez, datorren udazkenean gehiago. Berba gehiago, esan nahi da. Ea "barre" agertzen den.

herritarrak galdezka

ZABALOTEGI ETA UDAL PILOTALEKUA

Bergarako irakurle batek bi galdera bidali dizkigu e-postaz. Hauek: batetik, galdetzen digu Bergarako Udal pilotalekuan zer obra egin behar dituzten; bestetik, Zabalotegiko errepide berria, azkenean egingo duten edo ez?

Azken galdera honi erantzuteko, Victoriano Gallastegi alkateak oraingo astean Goiena Telebistako *Debarri* saioan esandakoak hartu ditugu. Zera esan zion Alberto Gorritiberea aurkezleari: "Zabalotegin kalea zabaltzeko asmoa daukagu eta hasierako asmoa da noranzko bakarrekoa izatea kalea". Hortaz, bai, orain egiten diharduten arau subsidiarioetan behin-behinekoz jasota dagoen moduan, errepide berria egin egingo dute alkateak esan duenez.

Bestalde, Udal pilotalekuan lan hauek egingo dituzte aurki, uda sasoian: eserleku berriak ipiniko dituzte beheko partean (688 guztira). Egurrezkoak izango dira, oraingoak modukoak, baina berriak. Bestalde, teilatua berrituko dute. Azkenik, aldageletan, pilotariek eskuak berotzeko frontoi txikitxo bat egokituko dute, ze orain arte aldageletako paretaren kontra pilota jaurtita berotzen zituzten eskuak eta baldosak apurtu egiten zituzten. Hori konpondu nahi dute aldageletako frontoi txiki horrekin. Hori egiteko, aldageletako bat kenduko dute eta komunak lekuz aldatu. Bestalde, jendearendako komunak, tabernarako biltegia eta botikarendako txokoa ere egokituko dituzte. Lan horiek guztiak egitea kostako da 185.822 euro.

Galdera egiteko:
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

BERGARAN ZINEMA EMANALDIAK

Irakurle batek deitu digu, udan Bergaran zine emanaldirik egongo ote den galdezka. Aldi berean, zinema aretorik egiteko asmorik duten galdetu nahi die Udaleko arduradunei.

Joan den urteko martxoan Novedades aretoa itxi zutenetik ez da zine emanaldirik egon Bergaran. Telmo Esnalen eta Asier Altuna bergararraren *Aupa Etxebeste!* filma bakarrik ikusteko aukera izan da, urrian, Udal Pilotalekuan.

Bergarako Udalak Seminarioko elizan auditorioa egiteko asmoa dauka eta hasiera baten bertan egingo lirateke zine emanaldiak etorkizunean. Bestalde, azken urteotan, udan, aire librean zine emanaldiak antolatu izan ditu kultura zerbitzuak. Antza denez, aurten ere hainbat film eskainiko dituzte. Udaleko iturrien arabera, abuztuko eguenetan izango lirateke emanaldiok.

marrazkiz

Unai Busturia

blog

Dantzara: "Laga eramaten"

Marijo Deogracias
www.goiena.net/blogak/marijo

Joan zen zapatuan Kubako doinuak dantzara atera ninduen lagun batek. Neu ere hasi nintzen iaz ikastaroan, baina doinu horiek ez ninduten gehiegi erakartzen eta utzi egin nuen. Joan zen zapatuan, ordea, itzel pasatu nuen Enekorekin dantzan. Hark bai ikasi eta zelako dibertigarria den, norbera laga ezkero, mutilak eramaten zaituenean.

Esan egiten zidan Enekok aldioro "itxi eroaten" eta nik, berriz, "ezta bape erreza; agintzea gehiegi gustatzen jat". Eta, uste dut hain justu horregatik utzi nuela ikastaroa; ez nintzen gustura sentitzen mutilaren agintzeko zera horrekin. Aldiz, zapatuan dantzan ondo baino hobeto pasatu nuen. Eta, Patxi Traperoren kronika irakurrita gogoratu naiz, kostata animatu zela zapatuan kontzertuaren gunea. Eneko eta biok izan ginen lehenengoak dantzara irteten eta ordu erdira-edo animatu ziren beste batzuk. Hala ere, egia da bai ez garela oso dantzazaleak, baina probatzea da kontua.

Niri neuri betidanik gustatu izan zait dantza egitea. Salsa eta horrelakoak agian ez hainbeste, baina rokanrola bai; horixe baietz. Gogoan daukat oraindik gazteagoa nintzenean aitak plazara ateratzen ninduenean. Gero, nerabe izan nintzen eta orduan lotsa ematen zidan aitak dantzara ateratzea. Baina hori baino lehen, itzelezko dantzaldiak egin genituen.

ETa, joan zen zapatuan, Enekori esker antzera samar

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Besteak beste, herritarren parte-hartzeaz dihardu artikuluaren egileak, Batasuneko ordezkariak. Eta, eredu moduan, Eskoriatzan sortu berri den Onbide elkartea jarri du. Eibar-Gasteiz autobideko hainbat kaltetuk osatutako taldea da Onbide eta zera nabarmendu du: "ikaragarria da egin duten lan guztia, alegazioak, zenbait zatitan proiektu alternatiboak, ikerketa geoteknikoak...".

Aittor Arantzabal *

Debagoiena ez dago salgai

Herritarren parte-hartzearen inguruan idatzi genuen aurreko aukeran. Demokrazia parte-hartzailearen aldarrikapena egiteaz gain, egun inposatu diguten eredu kapitalista neoliberalaren printzipio eta doktrina ideologikoaren arriskuak azpimarratu genituen.

Hilabete eskas pasa eta gero, gure irakurketaren zuzentasunaz jabetu gara.

Orain dela bi aste inguru Eskoriatzan egon ginen Onbideko lagunekin hitz egiten. Beraien lanaren berri eman ziguten, nola eratu zuten Eibar-Gasteiz autopistaren obren jarraipenerako batzordea, nola lortu zuten sentsibilitate eta iritzi politiko guztiak biltzea...

Ikaragarria da egin duten lan guztia, alegazioak, zenbait zatitan proiektu alternatiboak, ikerketa geoteknikoak... Herritarren parte-hartzea bermatu, ziurtatu eta eraginkor egitea lortu dute. Azkenean eta eredua zalantzan jartzea lortu dutenez, demostratu dutenez obrak asko hobetu daitezkeela, dena eztabaidatu daitekeela eta azkenik herritarrok badugula nahiko gaitasun gauzak aldatzeko, ohiko politiko profesionalak etorri dira dena hankaz gora jartzera.

Eredu eskuindarra, atzerakoia eta herritarren parte-hartzerik gabekoa bultzatzen duten berdinak.

Aurreko astean ezagutu genuen Arrasateko Gelma enpresaren eremuan egon diren irregulartasun eta hirigintza operazio negargarriak. Gai honen inguruko iritzia ematen ere herritarren parte-hartzeari eta eskubideei erreparatu behar diegu. Arrasaten, Euskal Herriko herri gehienetan bezala, agintaldia baldintza ez demokratikotan abiatu zen. Herritarren borondatea eta bozka errespetatu ez eta, Herri Anitza plataformako 4 eserleku ez ziren errespetatu (3 lapurtu eta 1 bahituta jarraitzen dute). Herritarrei bizkarra emanez hasi zen eta honek zerikusia eta eragina izan du gertatu den guztiarekin.

MIKEL ARROIABE

Ezker Abertzalearen kanporatzeaz eta apartheidaz ederki asko baliatu dira eta aprobetxatu dute beraien negozioak ondo ixteko. Gardentasun eza, gestio txarra eta herritarren eskubideen murrizketa izan dira udal honen ezaugarriak.

"Herritarren parte-hartzea bermatu, ziurtatu eta eraginkor egitea lortu dute Onbide taldekoek"

"Ibilbide luzea dugu udalen kudeaketan eta inoiz ez digute eskua kutxan dugula harrapatu, inoiz ez dugulako lapurtu"

Ezker Abertzaleak ibilbide luzea du udalen kudeaketan, bai oposizioan bai alkatetzan, eta inoiz ez digute eskua kutxan dugula harrapatu, inoiz ez dugulako lapurtu. Udala ez da gutxi batzuen nahia eta poltsikoak asetzeko enpresa pribatu bat. Udal irekia, parte-hartzailea, herritarra eta gardena behar dugu.

Aste honetako hasieran aldiz, Kataluniako Estatutuaren erreferenduma izan dugu, abstentzioa izan da izar nagusiena, soilik %49a joan da bozkatzera. Ez parte-hartzeak desmotibazioa erakusten du, ilusio eza. Herritik herrira zor den errespetuarekin eta esku-sartzerik eza printzipioen oinarrian, nire ustetan klabea Estatuturekin planteatu den prozedura, diseinua eta ibilbidea izan da. Herritarren parte-hartzea, prozeduran, ez da bermatu, oso elitista izan da, soilik bide parlamentarioa jorratu da. Gainera, herritarren hitza eta erabakia ezagutu aurretik Madrileko Parlamentuan *zepillatu* zuten. Herritarren hitza onartu ez duen emaitza izan da.

Hiru adibide desberdin non garbi azaltzen da: beste eredu bat posible dela, beharrezkoa dela eta desiragarria dela. Herritarren parte-hartzearekin eta demokrazia parte-hartzailearekin gure konpromisoa berresten dugu.

* Aittor Arantzabal, Batasuneko Mahaikidea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Aurrerantzean hobeto gidatuko dugu?

BAI	%80
EZ	%20

> ASKO JOKOAN
Tristea da jendea zerbaitekin mehatxatu behar izatea kontuz gidatzeko. Egin behar dena da karneta kendu, hola ikasiko dute. Oso neurri ona da puntukako karnetarena.
Gidari

> ZIGORRAK IKUSITA...
Horixe baietz. Eskuko telefonoa ez dut erabiliko, edan ostean ez dut autorik hartuko, kontuz ibiliko naiz zebra bideetan oinezkoekin... Zigorrak ikusita, hobe arretaz gidatzea.
Riki

> EZ
Nik ez dut gidatuko arreta handiagoz, ze orain arreta handiarekin gidatzen dut. Orduan, niri ez dit lege berriak aldaraziko jarrera.
Lasuen

> ASTIRO IBILI
Bai, arretaz gidatu behar da, besteak beste, izugarria delako urtean trafiko istripuen ondorioz hiltzen direnen kopurua.
Olatz

DATORREN ASTEKO GALDERA: Errauskailuak beharrezkoak dira?

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

top

ibili nintzen Kubako talde batekin dantzan.

Aukera izan ezkero, proba egizue; "laga eramaten", primeran pasatuko duzue!

Katalana frantsesen begietatik

Eneko Bidegain
www.berria.info/blogak/eneko

Frantsesentzat euskararen ofizialtasuna zein beldurgarria den ulertzeko artikulu interesgarria egin du Liberation egunkariak Kataluniako egoera linguistikoaz.

Katalanaren aldeko diskriminazio positiboa espainolaren kontrako diskriminazioa da egunkari horren ustez, eta beti hola aipatzen dute.

Artikuluaren hasieran, etorkin batzuen lekukotasuna ematen dute. "Oztopo guztiak aurreikusiak zituzten, baina ez zuten aurreikusia hizkuntzarena, eskolan katalana erabili behar izatearena...". Artikulu luzea da, eta osoa irakurri ondoan, iduri du katalanak beren hizkuntza inposatu nahi duten gaizto batzuk direla, eta gazteleraz hitz egin nahi dutenak biktimak.

Aurkezpen hori ez da harrigarri. Biziki ongi laburbiltzen du zein den frantsesen ikusmoldea hizkuntza gutxituei begira.

Baina inoiz ez zaie burutik pasatzen, ea zer erranen luketen etorkin bat Frantziara bizitzera joaten balitz, eta frantsesaren ordez ingelesa mintzatu nahiago balu, edo kexaka hasten balitz, frantsesez mintzatzera behartzen dutelako...

koplak

Irati Agirreazaldegi

Uda heldu da gurera ere

Eguzki printzak ta bero zapa
aspaldi ziren gertura
ustekabean gure artera
asteon heldu da uda.

Armarioan gorde ditzagun
jertseak eta txamarra
tenporen ustez ez da izango
hauek janzteko beharra.

Izerdi tantak burutik behera
zenbat gradu itzaletan?
beroarekin lan egitea
zein gogorra den benetan.

Txiste antzean esanagatik
nik uste dut hala dala
eguzkiaren gauza onena
dudarik gabe itzala

Gaur bero latza, bihar be bero
ta etzi ere beroa
martxa honetan urtuko gara,
ez dugu ziur geroa.

Batzuk udara hartu ohi dute
pozik ta umore alaiz,
ni neu konforme bero latz honi
aurre egiteko gai banaiz.

Sagastiko berdegunea parkerako

Xabier Legorburu (Sagastin Parkearen Aldeko Plataformaren izenean)
Antzuola

Kezkatuta gaude. Kezkatuta, Antzuolako herri-gunetik kolore berdea ia erabat desagertu zaigulako. Egia da azkenaldian kolore berri asko jarri dizkigutela: gorria, urdina, horia, zuria, grisa,... baina berdea, guk nahi dugun berdea, gero eta gutxiago ikusten dugu. Eta guk berdea ikusten jarraitu nahi dugu. Berdea itxaropenaren kolorea omen da, eta herrian berdegune bakar bat gelditzen zaigulako, oraindik itxaropena daukagu: berdegune hori ez galtzea.

Sagastiko zelaiaz ari gara. Herri barruan eraiki gabe geratzen zaigun berdegune bakarraz, eta orain, Udalak aurkeztu duen Gizarte Etxearen proiektuarekin, galtzeko arrisku larrian dagoena.

Parkea ala Gizarte Etxea ez da eztabaida; biak dira posible. Eta honetan sinisten dugulako gabiltza lanean.

Udalak aurkeztu duen proiektuan aurreikusten da:

1. Sagasti auzoan dagoen berdegunean Gizarte Etxea eraikitzea. Horretara, lursailik onena eraikitzeko erabiltzen da eta sobran geratzen den zatia "parkea" egiteko.

2. Maristetako lursailean, berriz, 20 etxebizitza eta herrirako hainbat ekipamendu.

Ados gaude Gizarte Etxea egitearekin, herriak merezi eta behar duelako, baina ez gaude ados herri-gunean gelditzen zaigun berdegune bakarra galtzearekin.

Gure ustez, posible da herrian behar ditugun ekipamendu guztiak Maristetan eta Olarango jauregian kokatzea eta Sagastiko berdegunea libre uztea osorik, parke txukun moduan erabiltzeko. Herri erdian ez dugu beste berdegunerik, eta ezin dugu onartu daukaguna galtzea. Behin hau galdutakoan... akabo!

Hori lortzeko, denon beharra daukagu. Baita zurea ere. Udalari esan behar diogu gure herrian posible direla gizarte etxea eta parkea, hemen adierazi dugun bezala.

Adierazitakoarekin ados bazaude, zaude adi eta datozen egunetan Antzuolako kaleetan barrena firmak biltzeko jarriko dugun mahaietara hurbildu zaitez.

Orain da momentua.

Araba Euskaraz: mila esker, guztioi

Asier Astigarraga (Armentia Ikastolako zuzendaria) > Gasteiz

Aurreko igandean gure aurreikuspenak gainditu egin genituen. Horregatik..., mila esker, guztioi! Euskal Herriko bazter guztietako jendea elkartu zen Armentia Basoan, Arabako Ikastolen aldeko eta euskararen aldeko festa ospatzera.

Milaka lagun erakartzea lortu genuen eta eguraldia ere lagun izan genuela, gure hasierako aurreikuspenak gainditu genituen bertaratutako jendetza kontutan hartuta eta salmenten emaitzei begiratuta ere.

Armentia Ikastolako ikasle, irakasle, langile eta gurasook ikasturte osoa eman dugu Araba Euskaraz 06 jaia antolatzen. Ilusioz beteko urtea izan da eta, milaka ordu festaren antolaketari zuzendu dizkiogunak.

Igandean, Armentian, jai ahalik eta txukun, eder, eta alaiena eskaini nahi izan genuen. Hura izan zen gure nahi eta ahalegina. Bi egun ondoren, lortutako emaitzak ikusita eta aztertuta, gure helburua lortu genuela jakin arazi nahi dizuegu eta bide batez, zuen partaidetza eta laguntza eskertu nahi dugu.

Mila esker guztiagatik.

Aretxabaletako IV. Mendi Irteera

Damaso Gallastegi
Bergara

Domekan Aretxabaletan izan ginen Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako ibilaldian. Mendi ingurune ezin politagoak, hamarretako oparoak eta jendarteko giro jatorra. Zorionik beroenak parte hartu zutenei eta, bereziki, antolatzaileei.

Eskerrak, denoi

Aitor Urizar (Portaloira Topagunea)
Arrasate

Elkartasun eguneko biharamun goxoa oraindik gorputzean mantentzen dugun honetan, Arrasateko Portaloira Topagunetik eskerrak eman nahi dizkiogu, era batera edo bestera, preso eta iheslari politikoen eskubideekin konpromisoa erakutsi zuen pertsona orori:

Talogileei, trikitilariei, herri kiroletako antolatzaileei, bazkari eta afariak prestatzen ibili zirenei, interpelazio taldeko kideei, bazkari eta herri kiroletan parte hartu zutenei, Arrasateko gaztetxeari. Hurrengo tabernei: Taupa, Ekaitz, Iluntz, Gure-Leku, Haizea, Etxoste, Etxerat!, Jai Zale, Irati, Basati, Biona, Ostantz, Kajoi, Itzala, Ederra, Lora, Iturriotz, 360 aretoa. Hurrengo taldeei: Aby-kem, Denial, Sharon Stoner, Ti2no, Txinaski, Los Chuloputas, Jim TNT, Never Surrender, Sarris Rock and Roll trio, Anger, Lukas Prest, Argamboys, Gorrion, Tunel 448, Jone, Iban SJ, Mahaster River, Kogollo Party Crew, Captain Nemo, Arcada Social, Des-kontrol. Segurtasuneko pertsonei, dena muntatu eta desmuntatu zutenei, barretan lan egin zutenei, egunean zehar bideoan filmatzen ibili zirenei, abestia egin zutenei, Shot! estudiokoei, Soinuak-ekoei, umeen txokoan lagundu zuten guztiei, kamiseta saltzaileei, Udalari, txalapartariei, dantzariei, bertsolariari, txistulariei, ardo eta gazta erakusketako antolatzaileei, komunikazio taldeari...

Bestalde, elkartasun eguneko zozketaren zenbaki sarituak hauek izan ziren: 2768, 0744, 7321 eta 0610. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu Aitor Lopez Rekarte eta Markel Irizarri Realeko eta Euskaltelekо kamisetak zozketarako emateagatik.

Preso eta iheslari politikoen eskubideen defentsan eta beraien estatus politikoaren aitortzan jauzi bat eman zuen Arrasatek ekainaren 10ean, maiatzaren 26an eginiko lanuzteari jarraipena eginez. Ibaetako dokumentuak urtean zehar jasotako atxikimenduen proiekzioa islatu zen elkartasun egunean.

Guztion artean egindako lanari esker egin du Arrasatek jauzi hori eta maila desberdinetako konpromisoaz, baina guztion parte-hartzearekin lortu dugu.

Hemendik aurrera ere, guztiok dugu preso eta iheslari politikoen etxeratzearen bidean, beraien eskubideen aldeko lanean zeregina; astearteroko enkarteladetan, azken ostiraletan, mobilizazioetan, ikastetxeetan, lantegietan, Portaloira Topagunean... Bakoitzak bere arloan lan eginez lortuko ditugu gure helburuak.

Orain inoiz baino gehiago, guztiok gara giltza!

Mesfidantza

Amaia Agirre (Leintzeko Askatasunaren izenean)
Leintz

Oraingo astean bete dira hiru hilabete ETA erakundeak su etena iragarri zuenetik. Geroztik, Espainia zein Euskal Herriko komunikabideak adierazpenez astindu dituzte zenbait politikok: batzuk, euskal herritarrok gure erabakia hartu behar dugula onartzetik urruti, konponbide demokratiko batekiko mesfidantza erakutsi dute, behin eta berriz.

Eta ez dute denborarik galdu euskaldunok konponbiderantz egiten ari garen bidea zapuzten saiatzeko. Aste honetan bertan, Txapote eta Irantzu Gallastegik Miguel Angel Blancoren afera dela-eta izan duten epaiketaz profitatuz, garai hartako irudien proiekzio manipulatzaileaz bete dituzte albistegiak eta goizetako sasi-komentaristek gorrotoa eta damuaren kontzeptuak aireratu dituzte, gizarteak konponbiderako duen ilusioa pozoitzeko egun lekurik ez duten argumentuak emanez.

Ezin daiteke konparatu duela 8 urte eta egun dugun egoera politikoa, eta ezin da hain modu zikinean bake prozesu bat aurrera eramateko behar den elkarrizketa-giroa distortsionatu. Eta atzera begira jarrita egin dute nonbait, prozesuaren kontrako beste kolpe bat aste honetan. Izan ere, astearte goizaldean atxilotutako 12 pertsonak aski ezagunak dira, Euskal Herriaren aldeko borrokan egindako lanagatik. Aspalditik beste edozein euskal herritarrek bezalako bizitza normala egiten ari zirenak.

Pertsona hauen inguruko ikerketa duela zortzi bat urtetik omen zegoen zabalik; dioten bezain grabea bada salaketa, kasualitatea baino, une honetan horrelako muntaia polizial bat egitea, ondo neurtutako beste *kausalitate* politiko bat dela garbi dago. Rubalcabak prozesuan eraginik ez duela izango esan du, eta batek baino gehiagok hori sinistu nahiko du gainera. Hala ere, atxiloketa hauen berria martxoaren 22tik Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoak zapaltzen jarraitzen dutela erakusten duten beste zenbait errealitateri lotuta dator: Azken hiru hilabeteotan gure errepideetan zein kaleetan kontrol poliziala nabarmen gehitu da; maiatza bitarte, 180 errepide kontroletik gora izan dira, gehienak Guardia Zibilarenak. Kartzeletara bidean 6 istripu izan dira dispertsioaren eraginez eta ez dute euskal preso politiko bakar bat ere Euskal Herriratu. Oraindik ere, 18/98 epaiketa ustelak martxan jarraitzen du herri mugimendu oso bat juzkatzen, elkarrizketarako borondatea dutela adierazten duten haien onespenaz. Pankartak eta margoketak egiteagatik 18 pertsona epaitu dituzte eta euskaldunok ordaindutako fidantzekin milioi euro sartu dituzte poltsikoan 60 egunetan. Presoei oraindik ez zaie euren status politikoa onartzen, nahiz eta hain zuzen, preso politikoak direlako neurri bereziak ezartzen zaizkien; Unai Parot eta beste hiru preso 30 urte osorik betetzera behartuko dituzte preso politikoak espetxean mantentzeko moldatu berri duten lege bat aintzat hartuta.

Gutun hau idazten gabiltzala, ezin burutik kendu gaur atxilotu dituzten pertsonak nola egongo ote diren, zelako tratua emango ote dieten. Tartean, gainera, bi arrasatear, Anjel eta Kristina. Gogoratu martxoaz geroztik bi pertsona torturatu dituztela...

Mesfidati egoteko arrazoirik ez zaigu falta. Aurreko asteburuan, Konponbidea aldarrikatzen zuen manifestazio bat legez kanpo utzi zuen Grande Marlaskak Iruñean. Eta gobernuak atxiloketekin zerikusirik ez duela dio. Baina hemen egurra jasotzen dugunak berdinak jarraitzen dugu izaten. Espainiar gobernuak borondatea ei du prozesuari bultzada emateko, baina daraman politika errepresiboarekin, prozesuari noranzko bultzada eman nahi dion galdetzen dugu. Baldintza hauetan zer prozesu mota landu nahi dutela pentsatu behar dugu? Frantziar estatuak berriz, Konponbide demokratiko baten parte hartzeko planteamenduari *adieu* esan dio, berak gatazka honetan zerikusirik izango ez balu bezala. Baina aste honetako atxiloketak emateko agindua Laurence Levert epaileak eman du Parisetik. Beraz, soluziorako interesik ez du, baina prest dago politika errepresiboa indartu eta espainolekin elkarlanean, herri oso baten ilusioa eta lana suntsitzen ahalegintzeko.

Zer sinistu behar diegu arkume larrua jantzita gure eskubideak zapaltzen jarraitzen duten horiei?

Buka dezatela politika errepresiboaz. Buka daitezela eraso guztiak, eta utz gaitzatela bakean. Baldintza demokratiko batzuk berma ditzatela prozesuari bidea zabaltzeko. Orduan sinistuko dugu Konponbide justu baterako gure gogo eta prestutasun bera dutela.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

CREDI TURBO ›GO

Igo zaitez **SEAT** batera

%16ko*
beherapenarekin

SEAT - Euskadiko Kutxaren eskaintzarekin

Eskaintzaz baliatzeko nahitaezkoa da nomina Euskadiko Kutxan helbideratuta izatea eta gutxienez ibilgailuaren prezioaren %70 CREDI **TURBO ›GO**rekin finantzatzea.

Ibiza FR

*%16ko deskontua fabrika-prezioaren gain edozein SEAT modelotan, León Berrian(% 12ko deskontua) izan ezik, Euskadiko Kutxaren zure sukurtsaleko probintziako kontzesionario guztietan. Ezin da erabili beste promozio batzuetarako. Eskaintza 2006/07/31ra arte da baliagarria.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Eskaintza magikoak
Citroën-en

Tailer eta zerbitzu teknikoa
- Mekanika / Karrozeria
- Autoak eskuz eta kanpotik zein barrutik garbitzeko zerbitzua
- Esku libreko kita (Bluetooth)

175 €-tik aurrera (BEZa eta kitaren jartze lanak barne)

Astelehenetik ostiralera
08:00-13:00 / 15:00-19:00

Zapatuetan zerbitzu berria (aurrez deituta)
- Enpresa eta langile autonomoei bideratutako mantentze-lan zerbitzua

Hilabete honetan, ezagutu itzazu prezio ezin hobeak:

CITROËN C4 12.000€* -tik aurrera
Eta gainera, C4 Collection Pack autoa 14.260€* -tik aurrera

CITROËN C1
8.100€* -tik aurrera

CITROËN C2
8.700€* -tik aurrera

CITROËN C3
9.000€* -tik aurrera
Eta gainera C3 Collection autoa 10.350€* -tik aurrera

CITROËN C5
17.300€* -tik aurrera
Eta gainera C5 HDi Collection autoa 19.260€* -tik aurrera

CITROËN Xsara Picasso
12.200€* -tik aurrera
Eta gainera SX Top Pack autoa 14.700€* -tik aurrera

Ezagutu itzazu eskaintza bereziak **www.citroen.es** -en **Informazioa Citroën: 902 44 55 66**

CITROËN Crédit CITROËN -ek nahiago du TOTAL

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 igorpena (g/km): C1: 4,1 – 4,6/109 C2: 4,2 – 6,9/111-163 C3: 4,3 – 7,0/113-165 C4: 4,7 – 8,4/125-200 Xsara Picasso: 5,1 – 8,6/135-205 C5: 5x4 – 10,0/142-238 *Salneurri gomendatua (BEZa, matrikulatze zerga, garraioa, eskaintza promozionala eta Prever Plana barne). Eskaintza ez metagarriak. Hil amaiera arte baliagarria stockean dauden automobilentzat. Penintsula eta Balear Uharteetako bezero partikularrentzat. Operazioan parte hartzen duten saltokietan baliagarria. Aurkezten diren modeloak: C1 3 ate 3X, C2 VTR Plus 1.4i, C3 Hdi 110 ZP FAP Exclusive, C4 Exclusive, Xsara Picasso Exclusive, C5 Exclusive.

ETOR ZAITEZ: **TALLERES CHAPIME** Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala
San Andres auzoa 5. Tel.: 943 79 45 22.

CITROËN
CITROENEK EDOZER EGIN DEZAKE ZUREGATIK

Ondo pasau San Juanetan!

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

BIDEO EKOIZPENAK

ISLADA MULTIMEDIA
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

JUAN MARI OSINAGA
ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ASEGURUAK

GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

DISEINU GRAFIKOA

ISLADA MULTIMEDIA
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
Antzuola > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39

> ARRASATE
Ines Aldai zinegotziak Udal gobernua utzi egingo du **> 18**



> BERGARA
Bergarako alkateak herriaren gainean berba egin du Debarri saioan **> 24**

> ARETXABALETA
Euskaraz egitea erraztu guran Barriketan egitasmoarekin **> 31**

> GATZAGA
Sardinak eta saiheskia janda ospatuko dute udako solstizioa **> 39**

Juan Ramon Garai eta Joxemari Velez de Mendizabal > Zerrajerako langilea eta langile ohia

"Union Cerrajerari esker, gerraostea ez zen horren gogorra izan Arrasaten"

UBANE MADERA > ARRASATE

Atzo, ekainak 22, Union Cerrajera de Mondragon sortu zuteneko 100. urteurrena bete zen. Fabrika batendako urte asko izateaz gainera, Arrasaten eta Bergaran berebiziko garrantzia izan du Zerrajerak. Gehiago jakin guran jo dugu Juan Ramon Garai eta Joxemari Velez de Mendizabalengana, biak dabiltza-eta fabrikaren historia berreskuratzen.

Ehun urte eta lanean dihardu Zerrajerak; ez dira halako asko egongo Euskal Herrian, ezta?

Oso gutxi. Eta izen bera gorde dutenak, gutxiago. Kasu honetan ere aldaketatxo bat izan da: orain da UCEM Union Cerrajera eta lehen zen Union Cerrajera SA.

Bestalde, Zerrajeraren aurrekariak aipatu beharko lirateke, hura sortu baino 50 urte lehenago, 1856an.

Sortu zen enpresa bat: Almacen de Cerrajeria. Oñatiko Urtzelai eta Vergarajauregirekin, eta Arrasateko Jose Maria Resustarekin. Enpresari lana emateko sortu zuten beste enpresa bat: Urcelay, Vergarajauregi y Compañia. Gero, Resustak erosi zuen Zaldibarren zegoen burdinola, hark hori aportatu zuen eta Vergarauregirekin batera sortu zuen beste enpresa bat: Vergarauregi y Resusta, 1869an. Horiek 1900era arte izan ziren jaun eta jabe Arrasaten. 600 langile izan zituzten, 3.000 biztanleko herrian, sarrailagintzan.

Baina hor ere saltsa zegoen, politikoa. Zeuden karlistak eta liberalak. Eta liberalek alde egin zuten fabrikatik eta erosi zuten Zigorrolan zegoen Zearrola eta sortu zuten Aspe y Compañia. Hala, hasi ziren bi fabriken artean lehian. Azkenean, galerek eragindako logika nagusitu eta 1905ean planteatu zuten enpresa bakarra sortzea, sei milioi pezetako kapitalarekin: bost milioi ipini zituzten Resustak-eta eta milioi bat Aspek-eta. Azken horiek eskatu zioten dirua Candido Gaitan de Ayala aristokratari. Eta hala, hark hartu zuen enpresaren presidentzia eta Resustak zuzendaritza. Resustaren ekarpena zen Zaldibar eta hura bihurtu zen fabrikaren kokagune nagusi. 1906an sortu zen, beraz, Zerrajera. Baina 50 urte lehenago hasi zen, eta kontuan hartu zifra hori, magikoa da-eta.

Juan Ramon Garai eta Joxemari Velez de Mendizabal dabiltza Zerrajerako historia batzen eta ezagutarazten. U.M.

Zela baldintzatu zuen Zerrajerak Arrasateko bizimodua?

Garaiko mentalitateari jarraiki politika paternalista jarraitu zuen. Etxeak eraiki zituen, lehendabiziko gizarte segurantza pribatua, kirol instalazioak, osasun arloan ospitale antituberkulosoa, jangaiak lortu (gerraostean Arraban lautadak erosi zituen arrasatearrendako patatak ereiteko). Zerrajerari esker, gerraostea ez zen horren gogorra izan Arrasaten. Eta fabrikak biziraun zuen gerran jokatu zuelako bando frankistan. Hori bai, 413 langile kaleratu zituzten gerraostean, *gorriak* eta nazionalistak, batez ere.

> **"Ekonomian beti izaten dira zikloak; Arrasateko kasuan, 50 urteko zikloak dira garrantzitsuak, historian hainbat alditan"**

Kontuak kontu, iristen gara 1956ra. Orduan hasi zen beherakada. 50 urteko zikloa berriro.

Zenbat langile izatera iritsi zen?

30eko hamarkadan izan zituen 1.880, Arrasateko eta Bergarako langileak kontatuta. Gerrarekin behera joan zen, baina gerraostean berriro indartu zen eta 1962an izan zituen gehien: guztira, 2.200.

Kooperatibak eragina izan zuen Zerrajeraren gainbeheran?

Gainbeheraren jatorria izan zen ezezko bat. Han lanean zebiltzan batzuek (Ormaetxea…) gura zuten parte hartzea fabrikan; eta hala proposatu zioten zuzendaritzari. Baina haiek ez zuten onartu. Horrenbestez, zenbait langile joan egin ziren eta sortu zuten kooperatiba (1956an). Ondorioz, Union Cerrajera hasi zen deskapitalizatzen, ekonomikoki eta langile aldetik: 10-15 urtean 400 langile joan ziren eta haiek eraman zuten Zerrajeran 25 urte lanean ibili ostean zegokien dirusaria: milioi erdi. Inbertitu zuten kooperatiban. Beraz, 1956a izan zen inflexio puntua. Orduan hasi zen Zerrajera noraezean.

Gaur egun, zertan da enpresa?

60ko hamarkadan irabazi handiak izan zituen eta banatu egin zituzten akziodunen artean. Hala, hasi ziren inbertsioak egiten diru pribatuarekin, ez fabrikak irabazitako diruekin eta horrek ekarri zuen fabrikaren zorpetzea. Aurreneko galerak izan zituen 1979an. Baina oraindik produkzioarekin ordain zitezkeen. Hori bai, 80ko hamarkadan etorri ziren gerente berriak, espekulatzeko, dirua egiteko ideiarekin. Eta 1985etik 1992ra galdu ziren 1.000 lanpostu. Bergara Arrasatetik banandu zuten, Union Cerrajera banandu zuten bi lantegitan, sekzioak ixten joan ziren eta patrimonioa saldu egin zuten. 1993an Zerrajeran geunden 195 langile. Horren aurrean, zenbait sindikatu altxatu egin ginen, eta fabrika langileendako lortu genuen. Horri esker biziraun du. Orain, 120 langile gaude, Kataiden.

Zerrajeraren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Fabrikaren ehungarren urteurrenaren gaineko erakusketa antolatzen dabiltza dagoeneko. Hala jakinarazi zuten atzo prentsaurrekoan. Asmoa da erakusketa hori datorren urteko ekainean ipintzea Arrasaten, kultura etxe berriko *kalistroetan*. Gainera, ibiltaria izango da erakusketa, gero Bergarara eraman gura dute-eta. Horren inguruan eta Joxemari Velez de Mendizabalen laguntzarekin egingo dute liburu bat Zerrajerako ehun urteen gainekoa.



Hauxe da Zerrajeraren irudi adierazgarrienetakoa. *ARRASATE, LANGILEEK ERAIKITAKO HERRIA*

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 24	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Domeka, 25	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Astelehena, 26	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 27	Español	Araba etorbidea 14	943 7918 65
Eguaztena, 28	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Eguena, 29	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Egubakoitza, 30	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapatua, 24	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 25	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 26	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 27	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 28	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 29	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 30	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 26	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 27	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 28	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 29	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 30	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABALETA

Zapatua, 24	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 25	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 26	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 27	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 28	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 29	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 30	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia) 943 46 11 11
DYA (Antzuola) 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) 943 76 55 76
Suhiltzaileak 943 78 28 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala 943 03 53 00
- Antzuola 943 76 62 23
- Aramaio 945 44 53 40
- Aretxabaleta 943 71 19 59
- Bergara 943 03 54 00
- Elgeta 943 03 54 00
- Eskoriatza 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola 943 76 62 46
- Arrasate 943 79 14 39
- Aretxabaleta 943 71 18 63
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate 943 79 12 22
- Aramaio 945 44 50 33
- Aretxabaleta 943 77 12 64
- Bergara 943 79 12 22
- Eskoriatza 943 71 40 59
- Oñati 943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera 943 76 10 15
Zerga Bulegoa 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate 943 77 11 43
- Bergara 943 76 44 42
- Oñati 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio 945 44 53 35
- Arrasate 943 77 16 77
- Aretxabaleta 943 71 26 28
- Bergara 943 76 56 41
- Elgeta 943 76 82 84
- Eskoriatza 943 71 53 28
- Oñati 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola 943 76 60 65
- Aramaio 945 44 53 74
- Arrasate 943 77 01 05
- Aretxabaleta 943 71 10 27
- Bergara 943 77 91 58
- Eskoriatza 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola 943 76 62 46
- Aramaio 945 44 50 16
- Arrasate 943 79 09 00
- Aretxabaleta 943 71 18 62
- Bergara 943 77 91 00
- Elgeta 943 76 80 22
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	**Aramaio**	**Arrasate**
	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN

Zapatua, 24
Eguraldia duda antzean ibiliko da zapatuan, goi laino potoloak izango dira, eta trumoi hotsekin batera zaparradaren bat ere bota dezake.

Domeka, 25
Zapatukoari eutsiko dio domekan ere. Goiz partean txukun samar, arratsaldean gaiztotu egingo da giroa. Gauerako zaparradak.

EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriko hegoaldean zaparrada bortitzak bota ditzake. Batez ere, Pirinio inguruan batuko dira laino mardulenak. Kostaldean eguraldi hobea izango da, baina arratsalde partean giroak txarrera egingo du; areagotu egingo dira trumoiak.



TENPERATURAK

MINIMOA Eguena, 15	**13 ºC**
MAXIMOA Eguena, 15	**32 ºC**
ASTEKO EURIA (l/m²)	**65,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	32 ºC	13 ºC	- l/m²
Eguena, 15	32 ºC	13 ºC	24,5 l/m²
Egubakoitza, 16	28 ºC	18 ºC	8,7 l/m²
Zapatua, 17	24 ºC	16 ºC	- l/m²
Domeka, 18	28 ºC	17 ºC	- l/m²
Astelehena, 19	24 ºC	19 ºC	31,1 l/m²
Martitzena, 20	20 ºC	17 ºC	0,8 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA EKAINEAN

Ilbehera	Ilberri	Ilgora	Ilbete
18	25	3	11

oharrak eta deialdiak

ANTZUOLA
> 'Zure etxebizitza aurkitu' mintegia
Internetez etxebizitza bilatzeko mintegia emango dute hilaren 29an, eguena, KZgunean, 18:00-19:00.

ARAMAIO
> Adobe Acrobat Reader programaz
Adobe Acrobat Reader programa erabiltzen irakatsiko dute hilaren 26an, astelehena, KZgunean, 18:00-20:00 ordutegian.

BERGARA
> Odola emateko aukera datorren astean
Odol-ateratzeak hilaren 28an, eguaztena, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

BERGARA
> San Martzial jaiko mahaiak eta aulkiak
San Martzial eguneko mahaiak eta aulkiak alokatzeko modua izango da ekainaren 26ra bitartean.

BERGARA
> Umeendako margo eta marrazki ikastaroa
5-13 urte bitartekoendako margo eta marrazki ikastaroa antolatu du Beart elkarteak uztail goizetarako. Izenematea: 665 70 31 75 (Oihana) edo 653 71 53 82 (Mayra).

ESKORIATZA
> Irudi digitalen gaineko ikastaroa
Irudi digitalen tratamenduaren gaineko ikastaroaren bigarren atala emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 18:00etan.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
> Udaero programan izena eman daiteke
Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteria sailek uztailaren 25era arte luzatu dute Udaero udako aisialdi programan izena emateko epea. Datorren asteburuan, gaztelekuetan eman daiteke izena.

ARAMAIO
> Udako Ikastaroetan izena eman daiteke
V. Uda Ikastaroetan izena eman daiteke, 902 19 96 47 telefonoan. 1876-1914 garaia aztertuko dute aurten.

ARAMAIO
> Oraingoz ezin da etxeko ura edan Ibarran
Etzira, domekara, arte ezingo da Ibarran etxeko ura edan. Goikoerrotako urtegia garbitzen eta konpontzen ari dira.

BERGARA
> Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardunek
Txalaparta ikastaroa emango dute uztailaren 10etik 12ra eta 17tik 19ra. Izenematea zabalik dago Jardunen bulegoan (943 76 36 61).

ARRASATE
> Mendiko orientazioaren gaineko ikastaroa
Mendiko orientazioaren gaineko ikastaroa dago, emakumeendako. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Argibideak, Emakume Txokoan (943 79 41 39).

ESKORIATZA
> San Pedro jaien inguruko ohar batzuk
Herritar guztiei, bereziki Olazarkoei, gogorarazten zaie ekainaren 29ko suzko erruberak kanposantutik botako dituztela; horregatik, eskatzen dute Olazar kalean ez aparkatzea ekitaldia bukatu arte. Bestetik, herri bazkarian lekua gorde daiteke aurten. Horretarako, koadrilan zenbat diren abisatu behar da kultur etxean edo txartela erosterakoan.

BERGARA
> Berriketan programaren ikasturte bukaerako afaria egingo dute hilaren 30ean
Berriketan programaren lehen ikasturtea bukatu da, eta antolatzaileek –Jardun, AEK, Udal Euskaltegia eta Udala– afaria antolatu dute Bergarako 11 berbalagun taldeetako partaideekin. Edozeinendako dago zabalik. Izenematea Jardunen egin behar da (943 76 08 19, *berriketan@topagunea.com*).

DEBAGOIENA
> Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak
UEUk udako ikastaroak antolatu ditu dagoeneko, eta horren gaineko informazioa lor daiteke *www.ueu.org* webgunean.

OÑATI
> Ingeleseko udalekuak Elkar Hezi ikastetxean
Ingeleseko udalekuak antolatu ditu Elkar Hezik 4-12 urte bitartekoendako. Astelehenean hasiko dira, eta izenematea zabalik dago. Argibideak, 943 78 05 11 edo 943 78 28 70 telefonoetan.

ELGETA
> Pirinioetara irteera egingo du Egokik
Pirinoetara irteera antolatu du Egoki elkarteak uztailaren 8rako eta 9rako. Ekainaren 28a baino lehen eman behar da izena udaletxean.

OÑATI
> Posta elektronikoaren gaineko ikastaroa
Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute martitzenean KZgunean, 09:00etan hasita.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Berezia da San Juan bezperako gaua? Surik egiten duzu?

Beatriz Sainz
Etxekoandrea
Bergara

Ospatzen dut San Juan bezpera, gustatzen zait. Neuk ez dut surik egiten, baina umeak kartoi bila baldin badatoz ematen diet. Sutan erre, berriz, gauza txar asko erreko nituzke.

Jose Aguayo
Langilea
Bergara

Inguruko umeek egiten dute sua, baina nik ez dut ospatzen, txikitan ere gutxitan hartzen nuen parte. Hori bai, gau berezia dela onartzen dut. Erretzekotan, arropa zaharrak erreko nituzke.

Pedro Vicente
Langilea
Bergara

Berezia izaten da oso San Juan bezperako gaua. Urtero ateratzen naiz etxetik San Juan sua ikusteko. Salto ere egin izan dut noiz edo noiz. Sutara, berriz, oso txarra den zerbait botako nuke.

Arantxa Garitano
Etxekoandrea
Bergara

Auzoan urtero egiten dugu, antzinako erara gainera, merienda eta guzti. Inguruko familiak elkartzen gara eta berriketan eta abestu egiten dugu suaren bueltan. Gau berezia izaten da hori.

Saray Plazas
Ikaslea
Bergara

Guk ez dugu egiten, baina plazan egiten duten sua ikustera joaten gara lagunak urtero. Oraindik ez dugu ordua jarri, baina denok elkartu eta batera joango gara San Juan sua ikustera. Polita da.

txaloak eta txistuak

ANDER ETXEBERRIA

Deba ibaia uste baino zikinago

Deba ibaira doazen ur zikinak batzeko kolektorea aspaldi ipini arren, bidali diguten argazkiak erakusten du oraindik batek baino gehiagok erreka erabiltzen duela zakarrontzi modura. Horren adibide da, baita ere, Aste Berdearen barruan ibaian batu duten 500 kilo zabor.

usteak uste

Iker Barandiaran

Erreka bazterrak nahasi daude

Deba ibaian zabor kopuru handia jaso dute asteburuan, Arrasaten. Herriko gaztetxoei erakutsi gura izan diete ibaia hain ilun egotearen arrazoia zein den, baita horixe lortu ere.

Bestalde, uretatik kanpo, azalean ere ez daude gauzak oso garbi eta garbitzeko premia dute. Gelmako etxebizitzak egiteko Udalak sinatutako hitzarmena askoren ahotan dago aspaldi honetan, eta udal gobernuko zinegotzi batek alkateari, Hirigintzako zinegotziari eta talde bereko alkate ohiari egindako salaketek erreka bazterrak harrotu dituzte.

Oraindik gauza asko daude argitzear eta erruga-betasun-presuntzioa ere ezin da ukatu, baina gertatutakoak ez dauka itxura onik. Herritarrek erantzukizunak eskatuko dituzte halabeharrez.

Salatutakoa egia balitz lotsagarria litzateke agintari horiek herritarren orainarekin eta etorkizunarekin jokatzeko izan duten jarrera. Bestalde, txalotu nahiko nuke salaketa egin duen zinegotzi horrek uste eta esamesa horiek guztiak argitzear eman duen pauso ausarta. Halakoak ez dira sarri ikusten, politikariek herrigintza egiten dutela behin eta berriro esaten duten arren.

5 galdera...

Joxe Landa

Eguraldi kontuan aditua
Itziar

1. Zelako uda aurreikusten duzu, orain arteko moduko bero eta sikua?

Eguaztenean sartu ginen udan, 14:26an; azkeneko egunetan, euri falta ez konpondu arren, detaile txiki bat izan du; izan ere, udaberria baldar joan zaigu bero eta lehor aldetik. Baina azkenean utzi digu oparitxo bat. Udari begira, ez da erraza zantzuak bilatzea, eguraldia hain da berekoia-eta… Baina esango nuke erraz eroriko dela orain arteko joerara; hala, tartean, ekaitzak-eta dezente izango ditugu, batez ere, udaren erdialdera arte. Eta udak halako joera duenean, ekarri ohi du udazkena azkar samar hastea, abuztuan ere udazkenaren ukitua jartzea.

2. Batzuek ezetz dioten arren, zuk uste duzu eguraldia aldatzen dabilela?

Klima aldaketa? Ez, gizakiak sumatzeko bestekoa oraindik ez. Numeroz edo zientifikoki ezin daiteke justifikatu adierazpen hori. Baliteke aldatzen joatea, baina oso epe luzera, eta gizadia ez da kapaz hori detektatzeko.

3. Udako solstizioa da barikuan; horrek indar handia du gurean, zergatik?

Uste dut dezente lotuta dagoela hori udaberri eta udako pasadizoarekin. Egunik luzeena eguaztenean izan zen, 15 orduan eguzkia bistan eta zortzi ezkutatuta. Hortik aurrera egunak mozten doaz. Nik uste dut horrekin duela zerikusia.

4. Liturgia handia dago gau horren inguruan; zuk gogoan duzu?

Gure inguruan suaren kontua oso nabarmena izan da beti, mila modutako zeremoniekin. Soroen bedeinkapenak ere indar handia zuen sasoi batean. Eta ohitura handia zen, baita ere, lore sortak elizara eramatea bedeinkatzera.

5. Zuk zeuk zer txar botako duzu gaur gaueko sutara?

(Barreak). Nire gauzatxoak alferrik dira. Hemendik aurrera bekatu gutxi geratzen zait niri, dena erreta daukat.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

3.200

Bergarako alkateak, Victoriano Gallastegik, emandako datuen arabera, San Pedrotik eta Artekaletik 3.200 auto ibiltzen dira egunero. Besteak beste, horri irtenbidea emateko beharrezkoa da Zabalotegiko errepidea egitea, alkatearen ustez.

GELMA > KRISIA ARRASATEKO UDAL GOBERNUAN

Ines Aldai (EAJ): "Gobernua utzi eta zinegotzi izaten jarraitu gura dut"

Hala esan zigun atzo (eguena); datorren martitzeneko Tokiko Gobernu Batzarrean jakinaraziko du

EBren zentsura mozioak ez du aurrera egin eta PSE-EEren konfiantzazko mozioa ez da legezkoa

UBANE MADERA > ARRASATE

Gelmako auzia dela-eta, EAJko alderdikide Lakuntzaren (alkatea) eta Ugarteren (Hirigintza burua) aurka Ines Aldai kultura zinegotziak egindako salaketek zeresan handia eman dute Arrasaten. Eta ondorioak ere ekar ditzakete datozen egunotan. Izan ere, Ines Aldaik berak esan dio GOIENKARIAri Tokiko Gobernu Batzarra utzi gura duela, eta ondorioz, orain dituen karguak ere bai (Udaleko bozeramaile eta Kultura Saileko batzordeburu). Baina gaineratu digu, baita ere, zinegotzi izaten jarraitzea gustatuko litzaiokeela, "Aralarko Joxe Etxeberriak egin duen moduan". Edozelan ere, bere etorkizuna ez du horren argi ikusten Aldaik: "alkatea alderdi berekoa izanda, ez dakit zein ondorio ekar lezakeen horrek".

EAJ-EA koalizioko zinegotziak jakinarazi digunez, datorren asteko gobernu batzarrean emango du bere asmoen berri. Aldaik kontatu digun moduan, "ez da normala" EAJn eta gobernuan duten jarrera: "Oraingo asteleheneko gobernu batzarrean aurpegi luzeak ikusi nituen, baina ez zidaten ezer esan. Ez dut ulertzen ezta ere alkateak niri baja ez ematea eta EAJtik ere ez didate ezer eskatu; zer gura dute, hemen ezer gertatu ez balitz moduan ibiltzea?".

EAJ: "MERKATUKO PREZIOAK"

Hain zuzen ere, Arrasateko EAJren Uri Buru Batzarrak babestu egin du Inazio Lakuntza kanpotik zein alderdiaren beraren barrutik egindako salaketen aurrean: "Akusazioak erabat gaitzesten ditugu; etxebizitza merkatu librearen portaerak aurreikuspen guztiak gainditu dituen merkatuko prezio errealen egoera batera eraman gaituzte, eta promozioaren etorkizuneko irabazi garbiak neurrigabekoak bilakatu dira. Hauen "legezkotasuna" zalantzan jarri gabe, ez dirudi, ordea, "zuzentasun" aldetik egokiak direnik. Etxebizitza sustatzailearekin negoziazioa bultzatu behar da Arrasateko herriaren alde arrazoizko hobekuntzak lor daitezen. Horretan ari zen Lakuntza. Akatsik leporatzekotan, sinatutako hitzarmenaren irizpideak kolokan jarri dituzten etxebizitzen prezioak ezagutzerakoan hitzarmena bera zuzendu nahia izan da akats bakarra".

PSE, KONFIANTZAZKO MOZIO BILA

Bestalde, PSE-EEk eskatu dio alkateari "konfiantza mozio baten esku utz dezala kargua, Udala gobernaezina bihurtu delako". EAJko zinegotzi baten akusazioen aurrean kezka azaldu du; gobernuko gainerako alderdien jarduna ere kritikatu du: "Duela hilabete arte udal gobernuan EA, Aralar eta EB zeuden eta uste dugu horiek ere parte hartu dutela hondamendian". Dena dela, gaineratu dute gertu daudela Udalaren eta promotorearen artean bitartekari izateko "Gelmako 200 lanpostuak babesteko".

Konfiantzazko mozioari dagokionez, PSE-EEk eskatu arren, ez da posible gauzatzea, legeak ez duelako uzten halakorik egiten agintaldiaren azken urtean.

EZKER BATUAK, ZENTSURA GURA

Ezker Batuak, berriz, alkatearen kontrako zentsura mozioa proposatu du, baina horretarako alkatearen ordezko hautagai bat aurkeztu beharra dago, gainerako alderdien adostasunarekin, eta ez dute halakorik lortu.

EBko bozeramaile Ander Rodriguezek dio PSE-EEk ez duela zentsura mozioarekin bat egiten EBk ez duelako Paco Garcia alkategai onartu. Gaineratu du PSE-EEk hiru urteotan etengabe Lakuntzari zein Agustin Ugarteri babesa eman diola hirigintza lanetan. Rodriguezek dio demagogikoa dela auzi hau EAJk eta PSE-EEk 200 langileren lanpostuen bermeaz justifikatzea. Eta uste du alkatea edo Hirigintza zinegotzia "baliogabetuta" daudela konbenioa berriro negoziatzeko. Dena den, EBko bozeramaileak berretsi egin du akordio bat lortzeko prest dagoela, "baldin eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago egiten badira, etxebizitza libreen prezioak jaitsi eta lanpostuak bermatzen badira". Bukatzeko, jakinarazi digu datorren astean Kontu Auzitegira eramango dutela auzi hau.

Ines Aldai. GOIENKARIA

17 ZINEGOTZIEN DIMISIO ESKE

Bestalde, aurreko agintaldian Arrasateko alkate izan den Xabier Zubizarretak eta haren plataforma Herri Anitzak salatu dute Udalaren baldintza "antidemokratikoek" zeresan handia dutela piztu den egoerarekin: "Ezker abertzalearen kanporatzea ederki asko aprobetxatu dute euren negozioak egin ahal izateko. Egun azalerazten ari diren informazio kezkagarriak, argi erakusten dute gardentasuna ez dela EAJ-EA koalizioaren ezaugarria Udalaren kudeaketan".

Horrekin batera, gobernu taldearen jarduna ere kritikatu gura izan dute: "Hiru urte hauetan alkatea eta bere taldea ez dira bakarrik egon. Orain gobernua taldearen kudeaketa iluna salatzen duten berberek, hiru urte jarraian onartu dizkiote aurrekontuak, egonkortasuna emanez gauzak egiteko era horri, ia hiru urtetan defendatu izan dute leial EAJ-EA koalizioaren gobernu sistema. Bazekiten norekin ari ziren eta orain ez du balio esatea sudurra estalita ari zirela egoera jasanezina bihurtu zaien arte".

Horregatik, Gelmaren hitzarmenaren alde bozkatu zuten 17 zinegotzien (EBkoak izan ezik, gainerako guztiak) dimisioa eskatu du Herri Anitzak: "Orain ez zekitela eta txosten teknikoak ez zituztela ezagutzen esateak ez ditu libratzen euren erantzukizunetik eta arrasatearrei esplikatu egin beharko die zergatik eta zertarako egin zuten aldaketa eta horrela ezean, euren dimisioa aurkeztu".

ARALAR, ARDURA ESKE

Aralarrek, ardura eskatu die gainerakoei: "Arrasateko alderdi politiko askoren adierazpenei hauteskunde usaina darie. Guztiei eskatu nahi genieke alderdi interesak alde batera laga eta arduraz joka dezatela". Berretsi egin dute, baita ere, Aralarren borondate ona udal gobernuan jardun izan duenean eta ez dute zentsura mozioa onartu: "Ezin da plazaratu zentsura mozioaren ideia, gainontzeko alderdiokin ezer adostu ez denean. Ezta konfiantzazko botoaren gaia ere, legez ezinezkoa delako".

BITARTEKARITZA Udalaren eta promotorearen arteko bitartekari izateko prestutasuna erakutsi du PSE-EEk. U.M.

DIMISIOA Gelmaren hitzarmenaren alde bozkatu zuten 17 zinegotzien dimisioa eskatu du Herri Anitzak. U.M.

DATORREN ASTEA, ERABAKIGARRIA

Oraingoz, lehengo berean segitzen du egoerak

Oraingo astean planteatu diren EBren zentsura mozioak eta PSE-EEren konfiantzazko mozioak ez dute aurrera egin. Batak ez duelako gainerako alderdien babesa lortu eta bestea ez delako legezkoa. Edozelan ere, Inazio Lakuntza alkateak esan digu orain, gobernuan gutxiengo direnez, edozer gauza adosteko gainerako alderdiekin negoziatu beharko dutela eta adostasuna lortzea izango dela "konfiantzazko botoa". Bestalde, Ines Aldaik datorren astean jakinaraziko dizkio bere asmoak Gobernu Batzarrari. Zinegotzi izaten jarraitu nahi du, baina oraingo gobernuko ardura guztiak utzita. Gobernuaren gutxiengoa nabarmenagoa izango da, baina latzagoa izango da EAJren barruan sortuko den apurketa.

MOBILIZAZIOAK Atxiloketak gertatu eta egunean bertan manifestazioa egin zuten Arrasaten; gaur atzera aterako dira. U.M.

POLITIKA > BI ARRASATEAR ATXILOTUTA

Inkomunikatuta izan dituzte Iturbe eta Larrañaga herrikideak

Amnistiaren Aldeko Mugimenduarendako edozein atxiloketa larria den arren, "orain are larriagoak" direla iruditzen zaie

UBANE MADERA> ARRASATE

"Gogor" salatu zituen Amnistiaren Aldeko Mugimenduak martitzenean gertatutako atxiloketak, tartean, Angel Iturbe eta Kristina Larrañaga arrasatearrenak. Hala, martitzenean bertan manifestazioa egin zuten eta harrezkero, egunero elkartu dira Seberren, atxilotuen berri emateko, Frantziako zein Espainiako poliziek inkomunikatuta izan dituzte-eta.

Horrez gainera, gaurko, egubakoitza, mobilizazio eguna deitu dute Euskal Herri osoan. Arrasaten, berriz, manifestazioa deitu dute, 19:30erako, Seberretik aterata; eta gauean, herriko jaietan ohi denez, beste manifestazio bat egingo dute, 01:00etan, *Errepresiorik ez! Baldintza demokratikoak orain!* leloarekin. Herriko jaiekin jarraituz, ekainaren 25erako iragarri dute preso eta iheslarien aldeko bazkaria, 14:30ean, Monterrongo beheko zelaian.

ESTATUAREN SU-ETENIK EZ

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren ustez, atxiloketok eraso egiten diote "euskal gizarteak duen konponbide nahiari; holako ekintzek oztopatu besterik ez dute egiten eszenatoki demokratiko batera heltzeko bidea. Ia hiru hilabete behar izan dituzte ETAren ekintza armatuen etenaldia *berifikatzeko*; Euskal Herriak, ordea, ez du oraindik estatuen su-etenik ezagutu. Eskubide demokratikoak behin eta berriz urratuak dira, euskal preso eta iheslariak txanpon truke gisa erabiltzen dituen politika zanpatzaile baten gatibu dira".

Horrez gainera, besteak beste, Auzitegi Nazionalaren desaktibatzea eskatu dute Askatasunatik.

FRANTZIAN ZEIN ESPAINIAN

Martitzenean atxilotutako guztiak inkomunikatuta izan dituzte egunotan, batzuk Frantzian (Iturbe eta Larrañaga) eta beste batzuk Espainiako Estatuan. Haien etxeak miatzen ibili dira.

IHESLARIAK

ETAko sare finantzarioko ustezko kide direlakoan

Iparraldean bizi dira Angel Iturbe zein Kristina Larrañaga. Eta hogeitaka urte badira jaioterria utzi egin behar izan zutela.

Angel Iturberi dagokionez, besteak beste, Errepublikar Dominikara deportatu zuten 1989an, eta 1998an Santo Domingotik ihes egin zuen. Orain, Arrangoitzen bizi da. Txomin Iturberen anaia da. Eta atxilotu dute ustez ETAko sare finantzarioaren buruzagi izatearren.

Kristina Larrañagari dagokionez, 1975etik da iheslari. 51 urte daramatza Azkainen bizitzen. Askatasunak kezka erakutsi du berarengatik, gaixotasun arazoak dituelako.

OBRAK > AP1 AUTOBIDEA

Autobideko lanak 2007ko bukaera alderako amaitzea aurreikusi dute

Herritarren pazientzia eta sen ona eskatu dute Bidegitik, autobideak sortzen dituen eragozpenak direla-eta

U.M. > ARRASATE

"Lanak oso bide onetik doaz, aurreikuspenen barruan". Halaxe adierazi digu Bidegiko prentsa arduradun Oskar Rekaldek. Gaineratu digunez, obrak 2007ko amaieran bukatuko dituzte Arrasate eta Eskoriatza arteko obrak, eta errepide zati hori erabilgarri izango da 2008ko urtarrilaren 1ean.

Arrasatetik Eskoriatzarako zatiak 6,3 kilometro izango ditu eta aurrekontua da 106 milioi eurokoa; "hortaz, kilometro bakoitza kostako da 18 milioi euro". Oskar Rekaldek jakinarazi digunez, Gipuzkoan errepideetako obrak egitea beti da zaila, duen "orografia bortitzarengatik; horren adibide da AP-1en kilometro bakoitzak duen kostu izugarria".

PAZIENTZIA

Ikusgarria da Arrasateko saihesbidearen gaineko aldean egiten dabiltzan obra. Eta ikusgarria da, baita ere, obra horrek sortzen duen hautsa. Horregatik zenbait kexa izan dituzte Udalean; hala, Oskar Rekaldek pazientzia eskatu du: "Beharrezkoa da denbora batez deseroso ibiltzea, gero horren beharrezkoa den errepidea erabili ahal izateko. Guztiok dakigu zelako hautsa eta deserosotasuna sortzen den etxean obra egiten dugunean, bada imajinatu hori halako obra handi batean".

DATU KURIOSOAK

GI-627ren zirkulazioa arindu egingo du AP-1ek, Bidegiren esanetan

AP-1 zabaltzen dutenean, 2008ko urtarrilaren inguruan, Eibartik Gasteizera 25 minutuan iritsi ahal izango gara. Aurreikusi dute egunean 25.000 ibilgailuk erabiliko dutela. Gaur egun, Arrasatera arteko zatian 9.000 ibilgailu dabiltza egunero.

Bidegiren esanetan, AP-1 alternatiba da N-1endako eta GI-627ri zirkulazio handia kenduko dio. Horrez gainera, Gipuzkoarendako da beste lotura bat Europako ardatzekin.

Arrasatetik Eskoriatzako zatiak hiru tunel (Gurutzetxiki, Apotzaga eta Izurieta) eta bi biadukto (Basagoiti eta Arbizelai) izango ditu.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Jili Jili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Pablo Pacheco > Artisaua eta saltzailea

"Gurago dut nire lana kalean saldu denda baten baino"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Pablo Pachecok 15 urte darama Euskal Herrian zehar, jairik jai, berak eta lagunek eginiko artisau-lanak saltzen. Lanbide horrekin bizitzea posible dela esan digu, baina aspaldian, salmentaren saturazioaren ondorioz, zaildu egin dela diosku.

Pablo Pachecok denetatik egin du azken 15 urteotan. I.B.

Noiz eta zelan hasi zinen eskulanak egiten?

Umetatik egiten ditut eskulanak. Gogoan daukat txikitan eskolan eskulanak aukeratu nituela, eta horren ostean olioak margotzen ibili nintzen luzaroan. Gainontzeko umeen moduan futbolean ere jokatzen nuen eta sasoi baten Mondran ere aritu nintzen, baina futbola utzi nuen diziplina gustuko ez dudalako.

Inoiz egin duzu zure margolanen erakusketarik?

Ez. Horren ordez, taberna eta etxeetan muralak egin izan ditut, hala eskatu didatelako. Horrez gain, sasoi baten, Debara joaten nintzen itsas ertzeko harriak hartzera eta gero margotu egiten nituen. Halako ugari egin nuen.

Horren ostean, larruarekin lanean hasi zinen?

Bai, 22 urterekin larrua lantzeak erakarri egin ninduen, eta denetatik egin dut orain arte: ispiluak, gerriko poltsak, gerrikoak, oinetakoak...

Noiz erabaki zenuen artisautzatik eta salmentatik bizimodua ateratzea?

Aurretik Industri Maisutza ikasi nuen, baina ez nuen horretan lan egin gura. Horren ostean Tenerifera jo nuen. Han 3 urte egin nituen, eta hango lagunei esker konturatu nintzen zaletasun hori lanbide bilakatu nezakeela. Hala, ordutik hona horretatik ateratzen dut bizimodua.

"Euskal Herriko jai guztiek behera egin dute, ahal dutenek kanpora jotzen dutelako"

Urte guztiotan lanean jairik jai ibili zara, ezta?

Bai, Euskal Herriko jai eta santu gehienak ezagutzen ditut. Lehen tarteka parranda apur bat ere egiten nuen. Gaur egun, jaietara gauez lanera joateak alferkeria ematen dit, baina kreditua ordaindu behar dudanez, behartuta nago. Igartzen da jaiek behera egin dutela, ahal dutenek kanpora jotzen dutelako, eta gainontzekoek euroaren eraginez parranda egiteko diru gutxiago daukagulako.

Bada posible artisautza eta salmentatik bizitzea?

Bai, nahiz eta aspaldian zailagoa den. Lanbide honek gero eta ziurgabetasun handiagoa dauka, gauza askoren mende dagoelako: udaltzaingoek saltzen utziko dizuten, egingo duen eguraldia, saltokien ugaritzea...

Hala ere, gurago dut kalean saldu denda bat jarri eta han saldu baino. Kalean saltzea malguagoa da, eta gainera gehiago betetzen nau.

euskalgintzaren txokoa

EUSKARA > 'TELEFONOA EUSKARAZ!' KANPAINA

Sakelakoak euskaraz ibiltzeko kanpaina

Arrasateko Euskalgintzak bat egin du sakelako telefonoak euskaraz ibiltzeko Kontseiluak abiarazi duen kanpainarekin

I.B. > ARRASATE

Euskalgintzak Kontseiluaren kanpaina zabaltzen dihardu. Bideo bat eta bi powerpoint egin dituzte.

MEZUAK, ERANTZUNGAILUA...

Erantzungailuko mezua euskaraz jar daiteke eta mezuak ere hala bidal daitezke edozein sakelakotik. Bestalde, Euskalgintzak eta Kontseiluak herritarrei aholkatu diete telefono konpainiei arreta zerbitzua euskaraz ematea eskatzeko, baita fabrikatzaileei telefonoko mandatuak euskaratzeko ere. Dagoeneko konpainia batek eskaerei kasu egin eta aldaketak egin ditu.

Salaketak egiteko *www.euskararentelefonoa.com* helbidera jo dezakezue.

KONPROMISOA 'Nire telefonoa, nire konpromisoa' leloa dauka. I.B.

Arrasateko euskalgintza | arrasatekoeuskalgintza.org

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Zabaldu berria!

A

AZPILIKUETA

harategia • urdaitegia
janari prestatua

Bañez doktorea 10
ARRASATE
Tel.: 943 79 28 21

• Labeldun harategi espezializatua

• Aurrez prestatutako jakiak egunero eta enkarguz

San Juan jaiak 06

SAIO BEREZIA
Martitzenean, ekainaren 27ean, 21:15ean
Eguaztenean, ekainaren 28an, 15:00etan
eta 23:15ean.

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

UDAKO KIROL KANPAINA > DATORREN ASTEAN HASIKO DUTE

Piraguismoak eta patinajeak oso erantzun ona izan dute; gainontzekoek, ez hain ona

Arrasateko kirol zerbitzuek aditzera eman dute datorren urterako ahaleginduko direla herrian dauden gainontzeko eskaintzak bateratzen

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aste barruan amaitu da Udako Kirol Kanpainan izena emateko epea. Hala, kirol zerbitzuko arduradunek esan digute uztailean Urkulun egingo dituzten piraguismoko klaseek erantzun oso ona izan dutela, eta baita patinajeko ikastaroek ere. Piraguismoa Debagoiena osoan eskainiko dute, eta Bergarako Beti Busti taldeko *Kuxi*-k egingo ditu monitore lanak. Goizez eta arratsaldez emango dituzte klaseak eta Arrasaten 16 lagunek eman dute izena. Patin gainean ibiltzera, berriz, 45 lagun animatu dira, eta hiru taldetan banatuko dituzte. Mikel Morrasek emango ditu patinajeko klaseak. Tenisak ere aurrera egingo du, hamar lagun animatu dira-eta; Remi Diosdadok emango ditu klase horiek.

BERTAN BEHERA

Aurreko proposamenek erantzun ona izan badute ere, badira jende gutxi animatu delako bertan behera utzi behar izan dituzten kirolak ere. Horien artean daude eskalada, funky-a, eskupilota, pala... Alde horretatik, Arrasateko kirol zerbitzuetatik adierazi digute datorren urterako ahalegina egin behar dutela uztailean egoten diren aisialdirako eskaintzak bateratzen, arrakastatsuagoak izan daitezen.

IGERILEKUAK IREKITA

Joan den zapatuan ireki zituzten Musakolako kanpoko igerilekuak. Hala ere, igerileku itxian igeri egin gura duten bazkideek izango dute horretarako aukera, Aretxabaletako kiroldegian. Adostasun hori lortu dute bi herriek.

GOIENKARIA

Iluntzek irabazi du Zaldibarko Kopako bigarren edizioa

Iriztu taldeari Musakolako kantxan 2-0 irabazita gailendu zen zapatuan Iluntz taldea. Markagailuak erakusten du final parekatua izan zela; hala, Andonik eta *Txepe*-k lehenengo zatian egindako golak erabakigarriak izan ziren. Bigarren zatian, berriz, bi taldeetako inork ez zuen atera begira zorroztasuna erakutsi, eta Iluntzendako nahikoa izan zen lehenengo zatian erdietsitako errentari eustea.

Bestalde, goraipatu egin behar da Iriztuk egin duen denboraldia. Zaldibarko Ligako eta Kopako finaletara iritsi dira, baina azken partiduan ez dute zortea euren aldeko izan. Erretratuan bi taldeak, finala eta gero.

> PILOTA

Sekulako pilota jaialdia San Juan jaien barruan

Domekan, Aimar Olaizola izango da Uarkapen. Buruz Buruko Txapelketako finalera sailkatu denak Otxandorena izango du bikotekide. Eta kontrario izango dira Oinatz Bengoetxea eta Ruben Beloki. 17:00etan hasiko dute pilota jaialdia. Partidu nagusia baino lehenago, baina, Saralegi eta Beobide ikusiko ditugu, Beloki II.aren eta Eskuderoren kontra.

Sarrerak egunean bertan salduko dituzte, Uarkapeko leihatilan. 15 euro balioko du sarrerak.

> BIKE TRIAL

Benito Ross izango da bihar zezen plazan (19:30)

Pilotu Donostiarrak zezen plazan egingo du trialeko motorrarekin eta trialsineko bizikletarekin ikuskizuna. Euro baten truke, Munduko Txapelduna ikusi ahal izango duzue jauziak, itzulipurdiak eta bestelakoak egiten.

Horrekin batera, baina, baliteke Benito Rossek 1.000 zentimetro kubikotako motoarekin ere erakustaldia egitea. Hori, baina, ezingo du zezen plaza barruan egin. Ikusteko dago posible izango ote den hori egitea.

> BESAIDE

Hainbat irteera antolatu dituzte uztailerako

Batetik, beteranoek Ruta de los Toros izeneko ibilbidea egingo dute uztailaren 2an. Martitzenetik eguenera eman ahal izango da izena. Jakin, oraingoan 07:00etan elkartuko direla, normalean baino ordu erdi lehenago.

Gazte ekintzen barruan, berriz, GR11 ibilbideko zatia egingo dute uztailaren 1etik 4ra bitartean. Sallent de Gallegotik Zurizara joango dira. Astelehenean eman ahal izango da izena (19:30-20:30).

Udan ere bai euskarari
Bai Euskarari Ziurtagiria bai
Udan ere Bai Euskarari! Sartu www.baieuskarari.org webgunean eta ikusi zeintzuk diren Bai Euskarari Ziurtagiria duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak, eta kontuan har itzazu!
Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

nire bidai hura

Martin Uriarte

Mali eta Burkina Faso > 2001eko udan

"Inoizko merkatu koloretsuenak ikusi genituen Burkina Fasoko eta Maliko herrietan"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bidaia bat baino gehiago egindakoa da Martin Uriarte, eta bat aukeratzeko eskatutakoan ez du dudarik izan: Afrika. Orain dela bost urte izan zen han, eta hauxe da kontakizuna.

Akaso, desertua eta oihan tropikala tartekatzen dituztelako aukeratu zituen Martinek Mali eta Burkina Faso. Malik harrapatu egiten zaituen lekua ei da: "Inoiz ez dut kolore horren biziak dituen lekua ezagutu. Han ikusi ditut merkatu politenak, horrenbeste etnia ezberdinetako jendea... 120 hizkuntza ezberdin daude han".

Antolatutako bidaia izan zen: "Hogeita bost egun egin genituen han. Eta, horrelakoetan nik gurago izaten dut antolatutako bidaian joan, bestela, lo egiteko lekua topatzen joaten dira oporrak".

BURKINA FASON HASITA

Uagadugu hirian hasi zuten bidaia, eta hiru lanrober hartuta ipar-ekialdera egin zuten, Mali aldera. Hala, Grom Gromeko azoka ederra atzean utzita iritsi ziren Maliko lurraldera. Mugaren beste aldera egin zuten: "Komeria galantak izan genituen han. Lurra erabat lokaztuta zegoen, eta lanroberrak putzuetan geratu ziren, ez aurrera eta ez atzera. Lau ordu behar izan genituen zuloetatik ateratzeko. Gauza batek harritu ninduen: bazirudien bakarrik geundela paraje hartan, eta zuloan sartu eta berehala jende mordoa azaldu zen, batek daki nondik".

Mugatik Gao-ra egin zuten: Niger ibaiaren ondoan dago Gao, eta aberastasuna ematen dio horrek. Arrain mordoa dago Nigerren, eta arrain ona. Gaon, baina, igarri egiten da desertua gertu dagoela. La Duna Rosa menditxora ere igo ginen, eta bertako paraje ederraz gozatu. Eta Gaotik Timbuktura: "Inguruan ezer ez daukan lekura". Hara joateko bidea ez da batere samurra: Sombori atzean utzi, eta eskalatzaileek ondo ezagutzen duten Mano de Fatima bisitatuta iritsi ziren Timbuktura: "Lehenago hiri aberatsa zen hori, desertua gurutzatu behar zuten karabanendako igarobidea zen. Gune tropikaleko herriek eta islamdarrek trukeak egiten zituzten han. Bertako etxeak arkitektura sudandarra deritzonagatik dira ezagunak, eta tuareg tribuaren hiriburua ei da".

Mijoa zapaltzen dabiltzanean, emakumeek gizona kritikatzeko eskubidea dute han.

Martin Uriarte.

"Timbuktu hiri aberatsa zen: desertua igaro behar zuten karabanek trukea egiten zuten han"

"Autoak putzuetan geratu zirenean bakarrik geunden, eta berehala jende mordoa agertu zen, ez dakit nondik"

Martinek herri bakoitzetik bestera dagoen kontrastea azpimarratuta jarraitu du kontakizunarekin: "Timbuktutik Moptira egin genuen, arrantzatik bizi den herrira. Han, asko eta asko txalupa gainean bizi dira, eta handik astrologian horren aurreratuak diren Dogon herrira; adituek orain aurkitu dituzte herri horrek lehendik ezagutzen zituen izarrak".

BERRIRO ERE BURKINA FASORA

Bada, Mali atzean utzi, eta Bobo Diulasso-n egin zuten geldialdia: "Gauetan bizitasun handia duen hiria da, kabaret izeneko topalekuetan mijoa edan genuen. Hemengo sagardo modukoa da, baina epela edaten dute. Pintxo moduan, berriz, ganba baten antza duen intsektua jaten dute".

Ghan lurraldean aurkitu zuten oihan ederra: "Hango kulturan indarra dute fetixek. Etxeko ate kanpoan jartzen dute fetix bat, eta beste bat izaten dute barruan. Hala, ametsetan daudenean uste dute kanpoko fetixak barrukoari esaten diona ikusten dabiltzala". Lobi-n izan zituzten, etxera itzuli aurretik, Afrikako azken bizipenak. Han, bertako etxeetara sartu ahal izan ziren, aurretik gonbidatuta, noski: "Bertan bizi zen gida kataluniar bati esker lortu genuen hori, noski. Bidaiatzerakoan, ezagutu egin behar da herri horretako kultura, zelan jokatu jakiteko. Bestela, erraza da hanka sartzea, eta leku askotan ez da komeni horrelakorik egitea".

bere ustez

Aitor Zabalo

Arrasaten San Juan jaiak

Aurten ere, konturatu orduko San Juanak iritsi dira. Normalean giro beroa jaien ostean etortzen da, baina oraingoan behintzat jaiak uda erdian datozela ematen du.

Oraingoan ere jende piloa kanpora joango da, nahiz eta jai astea nahiko txarto jausten den. Asteburua tokatzerakoan, lantegi askok jaia astelehenean bakarrik egiten du, eta jendeak ezingo du aste osoa hartu kanpora joateko. Hala ere, harritzen nauena zera da: batzuek jaiak hain bizikiro ospatzea eta beste batzuei ezer ez esatea. Izango du herri guztietan jaia izateak esanahi sakon bat, jendearen behar bat asetzeko irtenbidea: jendea elkar ezagutzea, urte osoko lanaren lasaigarri izatea, erlijio kutsua (kristau edo kristau aurrekoa)...

"Asteburua tokatzerakoan, jendeak ezingo du aste osoa hartu kanpora joateko"

Jai hauek zeri erantzuten dioten jakitea ez da erraza, edonora joan gaitezke-eta jaiak ospatzera (galdetu bestela unibertsitatean daudenei eta azterketa ostean beste edozein jai aitzakia, kurtso amaiera ospatuko duten ikasleei).

Agian ekintza harrigarriak baino, funtsa zein den ikusita, jai hauek indartu daitezke. Hala ere, ondo pasa eta disfrutatu herriko jai nagusiak.

Pando Errotuloak
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Aitor Belardenda
Dietetika eta elikadura
"Ondo pasa San Juan Jaiak"
• Produkto dietetikoak
• Sendabelarrak
• Kirol dietetika
• Elikadura naturala
• Kosmetika naturala
• Dieta pertsonalizatuak
Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

UDALA > ALKATEA TELEBISTAN

Herriko proiektuekin pazientzia izateko eskatu die alkateak herritarrei GOITBn

Urteaga kalea urrian zabalduko dutela, auditorioak 500 lagunendako tokia izango duela eta kolektoreko lanak 2007an bukatuko dituztela esan du

ERRETIROA Laugarren agintaldia bukatu ostean, erretiroa hartuko duela esan du alkateak *Debarri*-n. O.E.

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergararrek herriari buruz dituzten kezkei buruz galdetu dio Alberto Gorritibereak Victoriano Gallastegi alkateari GOITB-ko *Debarri* programan. Zabalotegiko errepidea, Antzuolara doan errepidea, kanpoko igerilekuak, etxebizitzak, aurrekontuak eta erretiroa izan dira gaietako batzuk.

200 APARKALEKU SEMINARIOAN

Auditorioaren proiektuaren inguruan ere galdetu dio Alberto Gorritibereak alkateari. 500 lagunendako tokia izango duela esan du, proiektua irailerako gertu egongo dela, lanak 2007an hasi nahi dituztela eta 2010 baino lehen bukatuta egongo direla. Horri lotuta, seminarioan 200 autorendako aparkalekuak egiteko proiektua egiten ari direla esan du eta horrek herriko dendariei ere lagunduko diela, enkarguak herriko dendetan egitea erraztuko dielako herritarrei. Horrekin batera, merkataritza-etxe erraldoien aurka dagoela esan du eta herriko dendak bultzatzeko formulak bilatu behar dituztela dendariek eta administrazioak elkarrekin.

URTEAGA, URRIAN ZABALIK

Abian dauden proiektu edo egitasmo batzuen datak ere eman ditu alkateak *Debarri* programan. Adibidez, Antzuolara doan Urteaga kalea datorren urrian zabalduko dutela aurreratu du, horixe dela Aldundiak emandako epea.

Aurtengo aurrekontuak noiz onartuko dituzten ere galdetu diote herritarrek alkateari. Datorren uztailaren 3an egingo duten osoko bilkuran onartuko dituztela erantzun die alkateak. "Berez lehenago ere onar ditzakegu, baina, adibidez, Algodonera, Novillas eta Tornilleria Deba dauden lurzoruen aprobetxamendu urbanistikoa zehaztu barik ez zen posible aurrekontuak ixtea, alferra izango zen bestela", esan du alkateak.

Bestalde. Zabalotegiko errepideari jarritako 44 alegazioak ekainaren 30eko osoko bilkuran erantzungo dituztela esan du alkateak. "Errepidea zabaltzea da asmoa, noranzko bakarra izango du, auzo horretan zirkulazioa handitu egingo da, baina luzera auzoaren onerako izango dela uste dut", esan du.

AISIALDIRAKO IBAIA

Kolektoreko lanak 2007an bukatuko dituztela esan du alkateak eta Epeleko araztegiko lanak bukatzen dituztenean, erreka garbi egongo dela esan du. "Errekari gero probetxua atera behar diogu, aisialdirako edo kirolerako, adibidez", esan du alkateak.

Igerilekuekin, auditorioarekin eta beste proiektu batzuekin lanean ari direla esan du eta pazientzia izateko eskatu die herritarrei.

GOIATZ ARANA

Iraundi, greban hitzarmenagatik

Iraundiko langileek greba egin zuten martitzenean, aurtengo lan hitzarmena ez dutelako oraindik sinatu. Hain zuzen, soldata igoera, ordu murrizketa, azpi kontrataziorik ez eta lanerako segurtasun handiagoa eskatzen dute. Eta enpresak soldata igoera eskaini die, baina ez eurek eskatu bestekoa. Langile eta enpresaburuen arteko bilerarik egin ezean, astelehenean eta martitzenean ere greba egingo dute.

> EUSKARA

Berriketan egitasmoa azken txanpara iritsi da

Berriketan egitasmoa ikasturteko azken txanpara iritsi da eta afari bat antolatu dute balorazioa egiteko. Egitasmoan parte hartu dutenak, antolatzaileak eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Oxirondo elkartean egingo dute afaria hilaren 30ean.

Martxoaren hasieran jarri zuten martxan Berriketan egitasmoa Jardunek, Udal Euskaltegiak, AEK-k eta Udalak. Euskaldun zahar eta berriek osatutako 11 talde egin dituzte eta euskaraz mintzatzeko elkartu dira ordutik hona. Eta oraindik jarraitzen dute. Antolatzaileak pozik daude eta gogoz, datorren urteari begira.

Clínica Oftalmológica RECALDE Oftalmologi Klinika
www.clinicarecalde.com
MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK
Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

AURKEZPENA > JOKIN INTZAREN BIOGRAFIA

Jokin Intzaren memoriak ezagutu dituzte herritarrek

Osoko bilkuren aretoan aurkeztu dute Jokin Intza bergararraren liburua, eta txikitako lagun eta adiskide asko joan ziren

LIBURUAK Herritar askok eskatu zion Jokin Intzari liburua sinatzeko. GOIENKARIA

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Hombre libre sin patria libre. Memorias desde la resistencia (1936-1980) liburua idatzi du Jokin Intza bergararrak eta martitzenean aurkeztu zuen herrian. Haren ondoan izan ziren, besteak beste: Juan Mari Atutxa, Sabino Arana fundazioko presidentea; Iñaki Anasagasti, Venezuelan berarekin egondakoa; Patxi Azkargorta bere betiko laguna eta Ondarretako espetxean elkarrekin egondakoa; eta Victoriano Gallastegi alkatea.

GIZON ZORROTZA

"Gizon zorrotza izan da beti Jokin eta soldadutzako goi karguen pare ematen zizkigun aginduak", kontatu zuen Patxi Azkargortak. "Hala ere, karakter horri esker egin eta lortu du egin duena", onartu zuen. Iñaki Anasagastik, berriz, Jokinek Euskadin nahiz Venezuelan egindako lana goraipatu zuen. Han *El Gordo* ezizena zuela eta bergararra izateagatik Jokinek beti izan duen harrotasuna gogoratu zituen. Liburuak datu interesgarri asko dituela ere esan zuen; EAJk eta CIAk izan zuten harremana, esate baterako. Atutxak eta Gallastegik, bestalde, haren bizitza eta lana goraipatu zituzten eta eskerrak eman zizkioten holakoa izateagatik.

Jokin Intzaren bizitza jasotzen duen liburuaren aurkezpenera herritar asko joan zen, bere txikitako lagunak horietako gehienak. Aurkezpenaren bukaeran, liburuak sinatzeko eskatu zion batek baino gehiagok, eta pozik sinatu zituen egileak.

INAUGURAZIOA

Elkargik bulegoa zabalduko du Bergaran

Debagoieneko enpresa txiki eta ertain guztien zerbitzura dago

O.E. > BERGARA

Elkargik Ibargarai kaleko 30. zenbakian zabalduko du bulegoa martitzenean. 12:00etan da inaugurazio ekitaldia.

Debagoieneko lehen bulegoa izango da eta eskualde guztiko enpresa txiki eta ertainei laguntzeko zabalduko dute. Gertutasuna lortu nahi dute bulego horrekin, eta bi lan jarduera izango ditu: enpresei finantzaketa arloan laguntzea eta aholkularitza lanak egitea.

GIPUZKOAKO BIGARRENA

Elkargik 26 urte ditu eta 8.700 enpresa bazkide baino gehiago. Orain arte hiriburuetan bakarrik izan ditu bulegoak. Gipuzkoako bigarrena izango da Bergarakoa.

APATXI

57. zenbakiko irabazliak eta erantzunak

IRABAZLIAK

Ander Asula
Aranzadi ikastola

Mariaren Lagundia ikastetxeko Aitziber Yerak eta Aranzadi ikastolako Maddi Basterrak be sari bana jaso dabe.

Zorionak hiruroi!

ERANTZUNAK

PERTSONAIA EZKUTUA:
Zein da pertsonaia misteriotsuaren izena?
Bitorianatxo

BERBA SEKRETUAK
Zeintzuk dira lorontzixetan agertzen diran 3 berbak?
Lorontzi moria: Karapaixua
Lorontzi larrosa: Igarkizuna
Lorontzi laranja: Litxarrerixak

Jaixen inguruko marrazki ederrak egin dittuzue danok.
Neri Izar Morillas-ek eginddakua bereziki gustau jat.

Oporretan ondo pasau eta iraillera arte!



> ELKARTEAK

Zubiaurreko Beti-Alai elkarte gastronomikoak bazkide berriak behar ditu elkarte berrirako

Beti-Alai elkarte gastronomikoak egoitza berria izango du laster Zubiaurren eta bazkideak behar dituzte. Lehengo elkartetik 20-30 metrora zabalduko dute berria. Lehendabizi, ordea, egokitu egin behar dute lokala. Urtarrilean itxi zuten lehengo elkartea eta ordutik hona bazkide berri bila dabiltza. Interesa duten gizon nahiz emakumeek hona deitu dezakete: 943 76 36 19 edo 629 31 50 56.

> OSPAKIZUNA

Aranzadi ikastolako ikasle ohien bazkaria egiteko bilera deitu dute datorren eguenerako

Aranzadi ikastolako DBHko ikasle ohien bazkaria egin nahi dute, eta hitzordu hori antolatzeko bilera egingo dute datorren eguenean, hilak 29, 19:00etan, ikastolan bertan. Azken hamar urte hauetan batxilergoa bukatu duten ikasleak eta euren irakasleak daude gonbidatuta bazkarira. Duela bi urte ere egin zuten bazkaria, eta aurten ere egitea pentsatu dute. Orduan bezala, lehenengo ikastetxea bisitatuko dute, poteoa egingo dute ostean eta gero ikastolako jolaslekuan bazkalduko dute.

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialа
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan
Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

DANTZA > SEGURAKO TXAPELKETA

Bergarako dantzariak bikain ibili dira Dantza Solteko Euskadiko Txapelketan

Bergarako sei dantzari aritu ziren; Jon Arrillagak eta Izarne Medinak gazte onenei emandako saria eraman zuten

EDU MENDIBIL > BERGARA

Dantzari bergararrak bikain aritu ziren domekan Seguran jokatutako Dantza Solteko Euskadiko Txapelketan. Aitzol Ena eta Miren Illarreta donostiarra hirugarren postuan sailkatu ziren; Ibane Basetak eta Mikel Igartuak osatutako bikoteak laugarren postua eskuratu zuen; Janire Urbieta eta Xabier Azurmendi zegamarra bosgarrenak izan ziren eta Izarne Medina eta Jon Arrillaga 10. tokian sailkatu ziren. Jonek eta Izarnek dantzari gazte onenei emandako Gillermo Areizaga saria eraman zuten. 16 urterekin lehen aldiz lehiatu ziren Segurako txapelketan. Era berean, jantzi onenaren bigarren saria irabazi zuen bikote bergararrak.

BOSGARREN TOKIAN Igartua-Baseta bikotea bigarren aldiz lehiatu zen Seguran.

Domekako txapelketako partaideen artean bergararrak nagusi izan ziren. Donostian ari den Aitzol Ena izan ezik, guztiak Juantxo eta Janire Urbietaren aginduetara ari dira entrenatzen. Denboraldiarekin jarraituz, bihar, zapatua, Hernaniko txapelketan lehiatuko dira Mikel Igartua-Ibane Baseta eta Jon Arrillaga eta Izarne Medina bikoteak.

HAMABI BIKOTE

Guztira, hamabi bikote izan ziren lehian Segurako Baratze pilotalekuan: Sestaoko bikote bat eta gainerakoak gipuzkoarrak. Ohikoa denez fandangoa txistuz lagunduta eta arin-arina trikitiarekin dantzatu behar izan zituzten. Iaz bezala, Azkoitiko Azpitarte anai-arrebek jantzi zuten txapela. Nestor Basterretxearen trofeoa ere eraman zuten. Datorren urtean irabazten badute, trofeoa eurendako izango da.

Epaimahaian Euskal Dantzarien Biltzarreko Joxe Joan Ugalde, Karlos Sarriegi, Rafa Salaberria, Joxe Antonio Atxukarro eta Gabriel Alonsok osatu zuten.

Puntuazioari dagokionez, Jon eta Edurne Azpitartek 371,25 puntu jaso zituzten, Errenteriako Eneko Gilek eta Nerea Vesgak 359,75 puntu, Enak eta Illarretak 359,25, Igartuak eta Basetak 340,75, Azurmendik eta Urbietak 333,75 eta Arrillagak eta Medinak 305 puntu eskuratu zituzten.

Aurtengoa Dantza Solteko Euskadiko Txapelketaren 30. ekitaldia izan da.

Beart elkarteko artista gaztetxoen erakusketa

Beart elkarteko ikasle gaztetxoen margo erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan, uztailaren 9ra arte. Hogei bat ikaslek ikasturtean zehar egindako olio eta *guasch* lanak daude erakusketan. Kolore biziak eta freskotasuna dira nagusi lanotan. Bestalde, aurreko urteotan bezala, marrazketa ikastaro berezia izango da uztailean, goizez, 5-13 urteko bitartekoendako, Bearten eskutik. Izenematea 665 70 31 75 (Oihana) edo 653 71 53 82 (Mayra) telefonoetan egin daiteke.

BEART

> MUSIKA

Bandaren domekako kontzertua bertan behera geratu da

Bergarako Udal Musika Bandak domeka eguerdian Espoloian eman beharreko kontzertua bertan behera geratu da. Antza denez, Bandako hainbat kidek ezin dute domekako emanaldian parte hartu eta, gauzak horrela, ez da kontzerturik izango.

Bandaren hurrengo emanaldia Bergaran uztailaren 16an izango da. Gaur egun 72 lagunek osatzen dute Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako taldea. 2007. urtean 175 urte beteko dira Udal Musika Banda sortu zutenetik.

> GAZTEAK

Gazte Informazio Gunearen ordutegia udan

Gazte Informazio Guneak aditzera eman duenez, uztailean ordutegi berezia izango du bulegoak: eguenetan goizez 09:00etatik 14:30ak arte eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara. Egubakoitzetan, goizez izango da zabalik, 09:00etatik 14:30ak arte.

Bestalde, abuztuaren 3an eta 4an ere zabalik izango da Gazte Informazio Gunea, 09:00etatik 14:30ak arte.

Edozein argibidetarako 943 77 91 57 telefonora jo dezakezue.

> AISIALDIA

San Juan suak gaur eta erakusketa kultura etxean

Bergarako Herri Ekimenak antolatuta, San Juan sua egingo dute gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 23:00ak aldera. San Juan auzoan ere, Tartufo ondoko aparkalekuan, sua piztu eta luntxa banatuko dute 21:00ak aldera.

Bestalde, Beart elkarteko ikasleen margo erakusketa ikusgai dago kultura etxean. Erakusketa uztailaren 2ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

EKILUR

• PARAFARMAZIA
• BELAR-DENDA

ONDORENGO KONTSULTAK DITUGU:

-Medikuntza naturala:
Jorge Vladimir Gonzalez Doktorea.
Medikuntza eta kirurgian lizentziatua. Ondorengo diplomak ditu: Fitoterapia, Txinatar medizina tradizionala, nutrizio klinikoa.

-Dietista:
Amaia Gambra. Dietista eta psikologa.

UMEENDAKO ESNEA KALITATE PREZIO OSO ONEAN DAUKAGU.

Helbide berria:
San Pedro 4 BERGARA

Haurren txokoa

Elikadura

Sendabelarrak, medikuntza alternatiboa eta komestikoak

AZPEITXI
Jatetxea
•Oilaskoa
•Paella
•Gisatua
•Entsalada errusiarra
•Patata-tortilla
•Erredondoa saltsan
Arenerreka 13 • 943 76 55 00

ATXEGA ARDOAK S.L.
LOPEZ OJEDA
•**Mahaiko ardoa:** Lopez Ojeda
•**Errioxakoak:** Señorio de Ojeda eta Tinto Covila
•**Nafarroakoa:** Castillo de Ojeda
•**Ondua:** Marques del Puerto
•**Rueda Cerrosol**
•**Txakolina:** Santarba
•**Sagardoa:** Bere-Aran
•**Ura:** Alzola
Amillaga 25 • 943 76 27 76 / 38 52

Raizabal
•Pastelak
•Pastel txikiak
•Pastak
•Erreilenoak eta tostoiak
•Tartak
•Tarta bereziak
Artekalea 9 • 943 76 11 83
Bidekurutzeta 20 • 943 76 12 19

Larrañaga
•Pastelak
•Pastel txikiak
•Pastak
•Erreilenoak eta tostoiak
•Tartak
•Bonboiak
San Pedro 9 • 943 76 10 51

ETXAGI
JATETXEA
•Patata-tortilak
•Oilaskoak
• 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu
Masterreka 8 • 943 76 53 12

Mujika
gozotegia
•Pastelak
•Pastel txikiak
•Pastak
•Erreilenoak eta tostoiak
•Tartak
•Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak
Artekalea 3 • 943 76 10 34

San Martzialetan
zure zerbitzura

Beti Busti elkarteko *Kuxi*, kostaldera joateko piraguak furgonetan sartu aurretik. XABIER URTZELAI

Iñaki Gallastegi 'Kuxi' > Beti Busti piraguismo elkarteko kidea

"Jendeak alternatibak gura dituelako animatu dira piraguismoa probatzera"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Piraguismoa izan da, Mankomunitateak antolatu duen Udako Kirol Kanpaina barruan, arrakasta gehien izan duen ekintzetako bat. Bergarako Iñaki Gallastegi *Kuxi*-k emango ditu klaseok. Hainbat gazterekin Zarautzera piraguan ibiltzera joan aurretik harrapatu dugu.

Arrakasta izan du piraguismoko ikastaroak.

Egia esan, ez nuen horren berri. Normala ere bada, jendeak kirola egiterakoan alternatibak gura dituelako. Horrekin batera, uda sasoian, eskertzekoak izaten dira uretan egiten diren kirolak. Aipatu, gainera, Urkulun izateak ere lagundu egiten duela.

Piraguan ibiltzeko paraje ederra da hori.

Halaxe da, bai. Aspaldi ibiltzen ziren han piraguan, baina hainbat urtetan debekatuta egon da. Oraingoan, berriz, baimena eman digute, nahiz eta oso kontrolatuta egongo den.

Zer ikasiko dute animatu diren gazte eta nagusiek?

Lehenik eta behin, piragua dominatzen irakatsiko diegu, har dezatela konfiantza. Piragua gainean zuzen joaten irakatsiko diegu, hasieran ez da-eta horren erraza. Eta, horretarako hainbat ariketa egingo ditugu, eta baita jolas asko ere.

Piraguan ibiltzen apur bat dakitenak ere egongo dira.

Horiekin berba egingo dut, eta zenbat dakiten galdetu. Hala, ez da arazorik egongo eurei aparteko klasea emateko, eta dakitena baino gehiago irakasten ahaleginduko gara. Betik dago zer ikasi.

Zelako piraguak izango dira?

Ikastaroan piragua mistoak erabiliko ditugu. Piragua horiek errekan eta ur geldoetan erabil daitezke, eta horregatik dira gomendagarrienak.

Zein alde dago errekan edo ur geldoetan ibiltzearen artean?

Erabat ezberdinak dira bata edo bestea. Errekara sartzeko komeni da lehenengo ur geldoetan ibiltzea, piragua ondo dominatzen ikasteko. Ingurua da aldatzen dena, piragua barruan egoterakoan izaten den perspektiba. Horrekin batera, erreka-lasterretan ibiltzea oso ezberdina da, korronteak daudelako. Errekan ibiltzeak zirrara handiagoa sortzen du.

Zein erreketan ibiltzen zarete zuek?

Sinestezina badirudi ere, guk Deba ibaian entrenatzen dugu; hortxe ibiltzen gara aste barruan. Asteburua iristerakoan, berriz, Bidasoara egiten dugu, hori dagoeta gertuen. Bestela Frantzia aldera egiten dugu.

"Sinestesina badirudi ere, aste barruan Deba ibaian ibiltzen gara gu; bestela, Bidasoara joaten gara askotan"

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

FUTBOLA > IPINTZAKO TXAPELKETA

Kadete mailako neskek zapatuan dute finala

Senior mailako neskek asteburuan amaituko dute Liga; finalerdiak, martitzenean

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ipintzako Futbol Txapelketa ziztu bizian doa aurrera. Azken egunetan norgehiagoka mordoa dabiltza jokatzen, eta gaitza da ordutegien eta sailkapenen berri ematea. Hala, antolatzaileek aurreikusten dute, aste barruko partidu guztiak jokatu eta gero, senior mailako neskek bihar eguerdian amaituko dutela lehenengo fasea, liga delakoa. Horrekin batera, bihar, kadete mailako neskek 11:00etan jokatuko dute finala. Antolatzaile lanetan dabilen Jose Luis Beitiaren esanetan, emakumeen txapelketa inoiz baino parekatua dabil izaten.

Beteranoen txapelketari dagokionez, horiek martitzenean amaituko dute lehenengo fasea, eta uztailaren 2an jokatuko dituzte finalerdiak.

FUTBOL 11N, EZUSTEAK

Senior mailako gizonezkoen futbol txapelketa ere aurrera doa. Gainera, hainbat ezuste izan dira. Besteak beste, azken urteotan jaun eta jabe izan den Faka-Faka taldea aurten ez dabil horren fin. Badirudi ez direla finalerdietara sailkatuko. Kategoria horretan, eguaztenean amaituko dute lehenengo fasea, eta finalerdietara sailkatzen ez direnendako Kopa Txapelketa hasiko da. Horrekin batera, hiru multzo daudenez, finalerdietara sailkatzeko hiruko txapelketa egingo dute.

PARTIDU MORDOA Ipintzan etengabe dabiltza partiduak jokatzen. GOIENKARIA

> PILOTA

Bihar arratsaldean jokatuko dituzte, Osintxun, Udaberriko Eskola Arteko finalerdiak

Eskola Arteko Pilota Txapelketa herrikoia dagoeneko iritsi da azken txanpara. Hala, pilotari bergararrek bihar arratsaldean jokatuko dituzte Osintxuko pilotalekuan txapelketako finalerdiak. Zortzi eta hamasei urte bitarteko pilotariak izango dira lehian, hainbat kategoriatan banatuta. Txapelketa horretako finalak, berriz, datorren zapatuan jokatuko dituzte, uztailaren 1ean.

Horrekin batera, Debarro Txapelketan dabiltzan pilotari bergararrek gaur arratsaldean jokatuko dituzte Antzuolan finalerdietako itzuliko partiduak (19:30). Gazteak Antzuolakoen kontra lehiatuko dira, eta Seniorrek Arrasate izango dute kontrario.

> GIMNASIA ERRITMIKOA

Ariznoako gimnastek ikasturteari agur esateko erakustaldia egingo dute bihar, Labegaraietan

Ariznoa Gimnasia Elkarteak bihar egingo du gimnasia erritmikoko erakustaldia, 18:00etan hasita. Hala, Labegaraietako kiroldegian elkartuko dira taldean dauden 100 gimnasta baino gehiago. Nagusienetatik hasi eta txikienetara arte, azken asteotan prestatzen ibili diren dantza eta ariketak egingo dituzte gurasoen eta bestelakoen gozamenerako.

Biharko ekitaldia gaztetxoenendako izango da, bereziki, garrantzitsua. Ikasturtean zehar, gimnasta horiek ez dute txapelketetan esku hartzen, ez dutelako gutxieneko adina betetzen. Hala, publikoaren aurrean ariketak egitera ohitu barik, erakustaldi zirraragarria izango da eurendako.

Goienkaria

Egubakoitza/ 2006ko ekainaren 23a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA / ARDURADUNA: LEIRE KORTABARRIA / MAKETAZIOA: OXEL ARRIETA ETA IMANOL SORIANO

SAN PEDROAK 2006

Eskoriatzako jaiak

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKILARIA: GOIENKARIA

San Pedro Jaiak



zorionak Eskoriatzar guztioi

FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.
Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

MONDRAGON

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Zapatua, 24

16:00 IV. Kontzejupe PILOTA TXAPELKETA. Izenematea 15:30ean egin beharko da Herriko plazan.

TALOAK EGINGO DITUZTE ZAPATUAN

Eguaztena, 28

18:30 Jaien hasiera iragarriko dute TXUPINAZOAREKIN. Segidan, MUSIKA ESKOLAKO BANDAK kalejira egingo du.

19:00 BURUHANDIEK ETA TXISTULARIEK kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena.

19:30 Parrokiako abesbatzak H. Eslavaren SALVEA abestuko du, lau ahots mistotan, San Pedro elizan.

20:00 Kupela taldeak DANTZALDIA girotuko du Herriko plazan.

22:30 HELDUEN DANBORRADA irtengo da.

Danborrada eta gero, Kupela taldearekin DANTZALDIA egongo da berriz Herriko plazan.

Eguena, 29

09:00 TXISTULARIEKIN kalejira.

11:40 ELIZBIRA egingo dute.

11:55 UDAL KORPORAZIOA SAN PEDRO ELIZARA.

12:00 San Pedro elizan, MEZA NAGUSIA entzungo dute.

13:15 MUSIKA ESKOLAKO BANDAK kontzertua egingo du Herriko plazan.

17:30 UMEENDAKO ANTZERKI MUSIKALA plazan.

18:30 PILOTA PARTIDUAK jokatuko dituzte pilotalekuan. Honako norgehiagokak izango dira:

- Saralegi-Beobide / Diaz-Eskudero
- Bengoetxea VI-Peñagarikano / Retegi BI-Beloki

Sarrerak aldez aurretik egongo dira salgai Zarauztarra tabernan.

Suzko errueda musikadunak

Aurtengo suzko erruedak musikadunak izango dira. Eguenean botako dituzte kanposantutik 22:45ean.

Honako abestiek lagunduko dute ikuskizuna: Txaikovsky-ren *1812* obertura; *Gladiator* filmeko abesti nagusia; *El rapto del serrallo*, W.A. Mozart-ena; eta *Carmen*, Bizet-ena. Denak ere, oso pieza ezagunak.

Kanposantutik botako dituzte. GOIENKARIA

Josek eta Natik San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuete!

Esko Sport

Zure konfidantzako denda

Intxartxueta 5 Eskoriatza Tel.: 943 71 52 96

Rociok San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizue!

APAINDU ILE APAINDEGIA

San juan kalea 12c behea
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40

EGITARAUA

HERRIKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

20:00 EGAN taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

23:15 OINKARI DANTZA TALDEAK *Oroituz* izeneko ikuskizuna egingo du Gorosarri plazan.

00:00 EGAN taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

Egubakoitza, 30

09:00 TXISTULARIEKIN kalejira izango da herriko kaleetan zehar.

12:00 PIRRITX ETA PORROTX pailazoen emanaldia Gorosarri plazan.

12:00 Herriko hildakoen aldeko MEZA.

16:30 15. MUS TXAPELKETA Gernika plazan. Izenematea ordu erdi lehenago hasiko da.

18:30 UMEEN DANBORRADA irtengo da.

20:00 Drindots taldearekin DANTZALDIA Herriko plazan.

23:00 GOLDEN APPLE QUARTET taldearen ikuskizuna Gorosarri plazan.

00:00 Drindots taldearekin DANTZALDIA Herriko plazan.

00:30 ROCK JAIALDIA txosnetan.

Zapatua, 1

09:00 HERRIKO TXISTULARIEN kalejira.

12:00 TRIKITI ESKOLAKO IKASLEEK herriko kaleak alaituko dituzte euren musikarekin.

12:30 TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK Herriko plazan.

13:00 EUSKAL DANTZA IKUSKIZUNA Herriko plazan, Eskoriatzako musika eskolako dantzariekin.

14:30 HERRI BAZKARIA Gorosarri plazan. Aurten, lekua aldez aurretik gorde dezakete koadrilek, txartela erosterakoan edo kultura etxera deituta.Txartelak salgai daude Mirentxu eta Inkernu tabernetan. Bazkariaren ostean, TRIKITILARIEKIN ERROMERIA izango da.

15:00 4X4 IBILGAILUEN II. KONTZENTRAZIOA Apotzagako hondakindegian. Bigarren zatia uztailaren 2an, domekan, egingo dute, 10:00etan hasita.

18:00 UMEENDAKO JOLASAK Herriko plazan.

18:30 BATUKADA TXARANGARI ongietorria.

19:30 EUSKAL PRESO ETA ERREFUXIATUEN aldeko kalejira, txarangak lagunduta.

22:00 ROCK KONTZERTUA Unibertsitateko aparkalekuan: LA BROMA DE SATAN, KATAPUNK, KAOS URBANO eta TAQUIKARDIA taldeek joko dute. Sarrera, 10 euro.

23:00 TAPIA ETA LETURIA bikotearekin dantzaldia Herriko plazan.

00:00 JAI BUKAERAKO TRAKA eta bandera jaitsiera.

DJa, biolin doinuak, bertsolariak eta rocka txosna gune berrian

Txosna batzordeak badu aurten berritasunik: izan ere, txosna gunea Gernika plazan ipiniko dute oraingoan. Honako taldeek ipiniko dituzte txosnak: Onbide.org erakundeak; Ezker Abertzaleak; eta Likiñano Gazte Alternatibak.

Hainbat ekintza antolatu dituzte San Pedro jaietarako: hala, hilaren 28an, eguaztena, disko-jartzaile batek girotuko du gaua, 00:30etik aurrera, ordu txikietara arte; hurrengo egunean, arratsaldez, biolin laukote batek joko du, eta bertso emanaldia izango da segidan; azkenik, ekainaren 30ean, egubakoitzean, rock jaialdia izango da. Herriko Klineks taldeak, Oñatiko Amonalek (argazkian) eta beste talde batzuek joko dute. Bestetik, uztailaren 1erako, preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira antolatu dute 19:30ean.

Amonal taldea Oñatitik etorriko da San Pedroetan jotzera. GOIENKARIA

AZKOAGA
ESTANKOA
Zure zerbitzura
ESKORIATZA

Ondo ibili danok
San Pedrotan!

Mendraka
Txakolina
Tel.:94 682 00 00
ELORRIO

OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua
•
Gazte menua
•
Karta
•
Bazkariak eramateko

San Pedro jai zoriontsuak!

DANBORRADA

Kaleetan zehar

Eguaztena, 28, eta egubakoitza, 30

Haur eta nagusien danborradak

Beheko Errota, haurren danborradako karrozan

170 neska-mutikok parte hartuko dute haur danborradan, herriko hiru eskoletako ikasleak

MIREIA BIKUÑA

Aurtengo San Pedro jaietan ere ez dira faltako danbor doinuak. Haurren danborrada ekainaren 30ean ospatuko da; nagusien danborrada, aldiz, ekainaren 28an.

Nobedade barik datoz aurtengo bi danborradak Eskoriatzako San Pedro jaietan. Aldaketa bakarra karrozen gaiak dira.

Haur danborradako karrozaren gaia errota da, eta musika eskolaren izenean oinarrituta dago. Lehen kokaturik zegoen tokitik datorkio izena Eskoriatzako Musika Eskolari, Deba ibai ondoan zegoen Beheko Errota baserritik. Eskoriatzako eta Euskal Herriko ibaiak, orokorrean, oso erabilgarriak ziren errotak mugiarazteko. Horregatik, ibaiertz gehienetan kokatzen ziren.

170 neska-mutikok parte hartuko dute haur danborradan: Almen Ikastola, Luis Ezeiza eta Jose Aranako ikasleak.

NAGUSIEN DANBORRADA

Nagusien danborradako karrozan, aldiz, antzinako denda bat ikus ahal izango da; olioa, patatak eta bestelako produktuak salgai dituen denda. Beste behin, emakumeen lanbideekin zerikusia duen gaia aukeratu dute antolatzaileek.

Nagusien danborradan 70 bat lagunek parte hartuko dute; gehienak emakumezkoak izango dira.

Umeen danborrada hilaren 30ean izango da. GOIENKARIA

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

ONDO PASAU SAN PEDROTAN!

24 urte euskara irakasten
Maila guztiak
Ordutegi zabala
Bekak/ HABEren diplomak...

HABEren dirulaguntzaz.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

UDAL EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

Adinaren aurkako tratamendua.

Depilazio elektrikoa. Blen sistema.

Mima zaitez!

Aknearen aurkako
eta nutrizio tratamenduak.

Laser depilazioa eta fotodepilazioa.

Relax masajea eta *streching-a*.

Zelulitis tratamendua

EDURNE
ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTROA

Ondo ibili San Pedroetan!

ESKORIATZA
943 71 51 54

ERAKUSKETA

Jaietako argazki zaharren erakusketa Ibarraundi museoan

Erakusketa ekainaren 27tik aurrera egongo da ikusgai Ibarraundi museoan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara

ARANTZAZU EZKIBEL

Jaietako argazki zaharren erakusketa izango da. Bertako zenbait pertsona identifikatzeko ezinbestekoa izango da herritarren laguntza. Anima zaitez!

Eskoriatzako jaietako argazki erakusketa egongo da ekainaren 27tik aurrera Ibarraundi museoan.

II. ESKORIATZA HERRIA BEKA

Eskoriatzako Udalak II. Eskoriatza Herria beka plazaratu zuen Eskoriatzako argazki zaharrak gai hartuta. Helburua argazki zaharrak biltzea, inbentariatzea, katalogatzea eta digitalizatzea zen.

Beka Leire Parra Alonso arrasatearrari eman zioten. Artxiboan 1.087 irudi daude eta argazki horietatik guztietatik 30 egongo dira Ibarraundin ikusgai. Leirek nagusien testigantzak ere jaso ditu lanean.

Erakusketan dagoen argazkietako bat. ESKORIATZAKO UDAL ARTXIBOA

Herriko txistularien argazkia jaietan. AMAIA GARCIA DE SALAZAR

Lagun taldea jai giroan

San Pedro jaietan taberna aurrean ateratako argazkia.

San Pedro jaietan lagun talde bat mahai baten inguruan jarrita agertzen da, taberna baten kanpoko aldean. Ezkerretik eskumara: Carmen Belategi, Leoncio Lezeta, Kontxi Otxoa, ezezaguna, Alegria eta Zubizarreta ageri dira. Argazkia 50-60ko hamarkadakoa da.

Txistulariak kalejiran

San Pedro jaietan J. Arana kalean ateratako argazkia da.

1950eko hamarkadan, Eskoriatzako San Pedro egunean, herriko txistulariak Aranburuzabala kaletik J. Arana kalera kalejiran ageri dira. Txistulariak, ezkerretik eskumara, Rafael Gartzia de Salazar (Fito), ezezaguna eta Jose Cruz dira.

Gaztainaundi 21 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 53 87

Harmanta

Josunek eta Maitek San Pedro zoriontsuak opa dizkizuete!

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara!

Gora San Pedroak!

943 71 48 45 www.hemen-garbiketak.com

4X4

Motorzaleek 4x4 autoen kontzentrazioa izango dute

Uztailaren 1ean eta 2an izango da Apotzagako zabortegian

ARANTZAZU EZKIBEL

Herriko motorzaleen gusturako, San Pedro jaietan 4x4 autoen kontzentrazioa izango da Apotzagako zabortegian. Eskoriatzako Basurdeak taldeak antolatu du.

Eskoriatzako Basurdeak taldeak San Pedro jaietarako 4x4 kontzentrazioa antolatu du. Txapelketa Apotzagako zabortegian izango da uztailaren 1ean eta 2an.

Aurtengoa II. kontzentrazioa izango da. Azken lau urteetan ez dute horrelako ekintzarik antolatu Eskoriatza aldean. Orain arte trialak egin izan dira; hau da, egun bateko txapelketak. Uztaileko lehenengo asteburuan, motorzaleek aukera ona izango dute jaiez gozatzeko, beraz.

BERTAKO JENDEA

40 parte-hartzaile izango direla aurreikusi dute antolatzaileek. Beste urte batzuetan bezala, Euskal Herri osoko jendea etorriko dela uste dute. "Bizkaia, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako jendea etorriko dela uste dugu. Iaz, Huescatik ere etorri zen jendea", adierazi digu antolakuntza taldeko Ibonek.

Antolatzaileek Euskal Herri osoko jendea etorriko dela aurreikusi dute

San Pedro jaietako aste buruan ospatuko da kontzentrazioa

Bertako jendea ere izango da txapelketan: "Antolakuntza lanetan ari garenok ezin izango dugu txapelketan parte hartu, baina Oñati eta Bergara aldetik jende asko etorriko dela uste dugu", esan digu Ibonek.

BI EGUNEKO TXAPELKETA

Trialekin alderatuz, aurtengo kontzentrazioa bi egunetan jokatuko da: zapatuan eta domekan.

Zapatu gauerako, bertaratutakoak animatzeko asmoarekin, sorpresa ugari prestatu dituztela adierazi digute antolatzaileek.

4x4 autoek lau gunetan izango dute ibilbidea. ARKAITZ BERASALUZE

Zapatu eta domekan ospatuko dute II. 4x4 kontzentrazioa

Zapatuan 15:00etan emango zaio hasiera 4x4 ibilgailuen kontzentrazioari. Igandean, berriz, goizez izango da txapelketa; goizeko 10etan hasita.
Apotzagako zabortegian izango da txapelketa. Bertan, zortzi gune egongo dira eta gidariek bi bider egin beharko dute ibilbidea; lehenengo ezkerretik eskumara eta gero eskumatik ezkerrera.
Zapatu gauerako sorpresaren bat antolatu dutela adierazi digute. Hala, asteburu pasa etorri den jendeak kontzentrazioaz gain jaiez gozatzeko aukera ere izango du.

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Dorletak jai zoriontsuak opa dizkizue!
Aranburuzabala 22, behea • Tel.: 943 71 51 20 • ESKORIATZA

Zubia Pateek jai zoriontsuak opa dizkizuete guztioi!
Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 51 31 / Faxa: 943 71 52 79
www.pateszubia.com
ZUBIA®

IKUSI,
ENTZUN TA IKUTU
SAN PEDRUEK PROBAU BARIK
EZ GERO GERATU!

Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko ekainaren 23a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA / ARDURADUNA: LEIRE KORTABARRIA / MAKETAZIOA: OXEL ARRIETA ETA IMANOL SORIANO

Ferixa Nagusia 2006

Elgetako jaiak

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKILARIA: GOIENKARIA

SISTECO

MAKINA-ERREMINTAK

Automobilaren, aeronautikaren, trenaren eta eraikuntza metalikoaren industria arloa

Heziketa eta aholkularitza pertsonalizatua.
Berehalako zerbitzu teknikoa, makina guztien produkzio maila altuenak bermatuta.

JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!

Pagatza industrialdea 7A saila, ELGETA. Tel.: 943 76 82 14 Faxa: 943 76 81 00
www.sisteco.net e-posta: empresa@sisteco.net

EGITARAUA

EGITARAUA

Eguena 29

16:00 HAUR PARKEA: umeendako puzgarriak kirol kantxan: gazteluak, kart pista eta *jumping*-a.
20:00 MOZORRO JAITSIERA, Irulitxa txarangarekin. Plazara iritsitakoan alkate txikiari emango diote agintea.
Ondoren, Irulitxa txarangarekin KALEJIRA afalordura arte.
21:30 HERRI AFARIA.
23:00 IRULITXA TXARANGA Larrain dantza hasi arte, plazan.
00:00 LARRAIN DANTZA.
00:15 IRULITXA TXARANGA.

GANADUA AZOKA NAGUSIAN

Egubakoitza 30

11:00 HAUR PARKEA: Umeendako puzgarriak kirol kantxan: gazteluak, kart pista eta *jumping*-a.
12:00 MEZA.
13:00 Erretiratuendako ekintza berezia Elgetako trikitilarien laguntzarekin.
14:00 ERRETIRATUENDAKO BAZKARIA Espaloian.
17:00 Umeendako PLAY BACK LEHIAKETA plazan.
18:30 BURUHANDIAK.
19:00 ZEZENAK.
20:00-21:30 ERROMERIA Alai taldearekin.
23:00 DANTZA LEHIAKETA.
00:00 ERROMERIA Alai taldearekin.
00:00 KONTZERTUA gaztetxe ondoko lautadan:
Ozen (Arrasate)
Anger (Arrasate)
Skasti (Zarautz)
05:00 TRIKIPOTEOA gaztetxekoekin.

Zapatua 1

11:00 ESNA DEIA Tolosako dultzaineroekin
12:00 BOLO TXAPELKETA umeendako.
13:00 ASTO KARRERA. Elgetako VI. Saria.
14:30 PAELLA JANA.
17:00 Guztiendako JOKOAK Salbador kalean.
18:00 ZEZENAK
19:00 BURUHANDIAK.

PAELLA JANA EGINGO DUTE ZAPATUAN 14:30EAN

20:00-21:30 ERROMERIA Gaubela taldearekin.
22:30 DANBORRADA.
23:00 KONTZERTUA Espaloian.
Evil Conduct (Londres).
The Veros (Paris).
Brigada Criminal (Lazkao).
00:00 BOLO TXAPELKETA.
00:00 ERROMERIA Gaubela taldearekin.
00:00 KONTZERTUA gaztetxe ondoko lautadan.
Kleopatra Jones
Neu (Zarautz)
DJ Bull

Domeka 2

09:00 AZOKA NAGUSIA
Ganadu erakusketa, makina eta burdindegi azoka.
Erakusketa eta salmenta: loreak, barazkiak, gaztak, fruta, txakolina, eztia, landareak...
Eskulangintza
Elgetako trikitilariek alaituko dituzte kaleak goizean barrena.
18:30 Djolof Percusion Senegalgo PERKUSIO taldearen EMANALDIA.
22:30 ANTZERKIA. *Carbon Club* Markeliñe taldearen antzezlana.

Elgetako EAJ/PNVk jaixak direla eta, ondo pasatzeko opa dizue herritar guztioi!

EAJ PNV

Elgetako EAJ

MOZORROAK

Jaiak mozorrotuta hasiko dituzte eguen iluntzean

San Roke kaletik
Eguena 29
20:00
Mozorro jaitsiera txarangarekin; Plazan alkate txikiak hartuko du agintea.

Kalejiraren ostean herri afaria izango da, eta txartelak salgai daude herriko tabernetan ekainaren 25era bitartean.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jaietako lehen egunean, eguenean, mozorroak dira protagonista; aurtengorako aukeratu duten gaia animaliak dira. Txarangarekin animalia mordoa ibiliko da kaleetan.

Irulitxa txarangaren doinuek lagunduta eta mozorrotuta kalean barrena ibiliko dira herritarrak eguenean.

Faka-Faka koadrilakoak jaietako lehen egunean mozorro festa egiten hasi zirenetik mozorrotzen dira. "Urte batzuetan mozorro landuagoak gertatu ditugu, eta beste batzuetan ez horrenbesterainokoak. Koadrilan urte guztian berba egiten dugu mozorroari buruz, eta ideia pentsatu arren, mozorroa bera azken orduan prestatzen dugu beti".

Aurten zertaz mozorrotuko diren ez digute esan: "Mozorroa bera normal samarra da, baina landua, eta koadrilako batzuek hartu dute lanik gertatzen. Abantaila ere bada horrelakoetan koadrilan jende asko izatea, denon artean errazago egiten direlako gauzak. Berezia izaten da guretzat, gainera, herriko beste koadrila batekin lehian ibiltzen garelako mozorrorik originalena zeinek aterako. Txarrena da urtean bi ideia aurkitzea: jaietarako eta Inauterietarako".

Faka-Faka koadrilakoak untxiz jantzi ziren behin. Aurten ere, animali asko ikusiko ditugu. GOIENKARIA

Faka-Fakakoek beste koadrila batekin lehia egiten dute mozorro originalena zeinek atera

Udalak aurtengo jaietarako proposatu duen mozorro gaia animaliena da

ANIMALIAK

Bada beste koadrila bat ere ume eta gurasoak elkartuta mozorrotzeko ohiturari eusten diona. "Saiatzen gara Udaletik ipinitako gaia errespetatzen eta aurten ere hala egingo dugu, baina sekretuan gordeko dugu zein izango den mozorroa bera", esan digute.

Egunean bertan giroarekin bat egiteko onena mozorrotuta joatea da, euren esanetan. "Etxeko trapuekin gauza errazak egiten saiatzen gara, garrantzitsuena ongi pasatzea da, baita disfraza gertatzen ere".

BOLATOKI
tabernа

Ondo ibili jaixetan!

Artekalea 2 Elgeta
Tel.: 943 76 82 84

ERROMERIAK

Zaleek dantzarako abilezia erakutsi beharko dute

Aurtengo erromerietako nobedadea barikuan egingo den dantza lehiaketa izango da

JON BEREZIBAR

Erromeriak egubakoitz eta zapatu gauetan izango dira, eta egubakoitzerako ere dantza lehiaketa antolatu dute aurten, abileziak erakusteko.

Dantzazaleek gorputza bero eta entrenatuta izan beharko dute aurtengo Elgetako jaietarako, hainbat hitzordu izango dituzte-eta erritmoa jarraitu eta dantzarako dituzten abileziak erakusteko.

Barikuan izango da lehen erromeria Alai musika taldearekin.

ERROMERIAK, GOIZAGO

Aurten, hala ere, aldaketak egin dizkiote ohiko erromerien ordutegiari.

Izan ere, orain arte afalostean egiten ziren erromeriak, eta, behin gauerditik aurrera, oso jende gutxi geratzen zen plazan dantza egiteko gogoarekin. Horregatik, aurtengoan erromeria bi zatitan banatuko dute bai bariku zein zapatuan. Horrela, erromeriak arratsaldeko zortzietan hasiko dira eta lehen txanpa gaueko bederatzi eta erdiak arte izango da. Afaldu eta gero, gauerdian, hasiko da bigarren zatia, amaierara arte. Barikuan Alai taldeak joko du, eta zapatuan Gaubela taldea arduratuko da erromeriari musika ipintzeaz, hain zuzen ere.

Erromeriak animatu gura dituzte ordutegi aldaketarekin. ARTXIBOA

Aurten erromeriak bi zati izango ditu, afaldu aurretik eta ostean, dantzazaleek ondo aprobetxatu ahal izateko

Herriko plazan

Zapatu eta barikuan 20:00etan

Gaubela eta Alai taldeek joko dute erromeriatan

Dantza lehiaketa erromerian

Tangoa, salsa, pasodoblea, rock-and-rolla... Era guztietako erritmoak entzungo dira egubakoitzeko erromerian egingo duten areto dantzen txapelketan, gaueko hamaiketan hasita.

Plazako giroa animatu gura da horrela, eta parte hartzeko baldintza bakarra bikoteko bat behintzat elgetarra izatea izango da. Sariak ere egongo dira. Horrela, bikote irabazleak tabernariek oparitutako Zarauzko talasoterapia egoitza baten asteburua irabaziko du eta gainontzekoek xanpain botila bana eroango dute etxera, dantza lehiaketako oroigarri moduan.

GAZTEAK

Gaztetxean

Zapatu eta bariku gauean

Gauerdiitik aurrera gazteena izango da jaia aurten ere

Gauaren jabe izango dira gazteak ordu txikietara arte

Rock eta ska kontzertuak izango dira egubakoitz eta zapatuan, baina goizaldean ere egongo da zer eginik

JON BEREZIBAR

Bariku eta zapatu gauetan kontzertuak egongo dira eta gaueko ordu txikietan triki-poteoa eta DJ Bull ibiliko dira jaiza-leak animatzen. Gaua gazteena izango da aurten ere.

Bariku eta zapatu gauei zuku guztia ateratzeko gertu egongo dira herriko gazteak aurten ere. Musika izango da ordu txikietara arte eusteko erregaia, baina aurten ere ez da faltako dagoeneko klasikoa den triki-poteo berantiarra.

Gauez bizi izateko asmo guztiarekin prestatu dituzte gaztetxean jaiak aurten ere, eta bariku zein zapatuan eguzkia sartu bezain laster gaztetxea puripurian egongo da.

Kontzertuak egongo dira barikuan, hain zuzen ere, Arrasateko bi talderekin eta Zarauzko beste batekin. Gauerdi aldera hasiko dira bai zapatuko zein egubakoitzeko kontzertuak.

Ozen taldekoak disko berriarekin joango dira, orain dela gutxi aurkeztu dute-eta euren lehen diskoa: *Mundu perfektua*. Iaz Elgetan jaietan diskoa aurkeztu zutenak Angerrekoak izan ziren eta aurten ere joko dute Elgetako jaietan. Kanpotik Zarauzko Skasti taldekoak etorriko dira. Aurrekoen rock gogor doinuak alde batera utzita, ziur azken horiek bat baino gehiago dantzan ipiniko dutela. Zapatuan, ostera, Cleopatra Jones eta Neu taldeek joko dute gaztetxeko oholtzan.

Gaztetxeko plana kontzertuek, triki-poteo berantiarrak eta DJak osatuko dute

Aurten ere Angerrekoek joko dute jaietan. ARTXIBOA

Nazioarteko punk-rocka Espaloian

Espaloikoek zapaturako antolatu dituzte kontzertuak eta nazioarteko kartela osatu dute: Evil Conduct, The Veros eta Brigada Criminal taldeekin. Herbehereetatik, Evil Conduct-ekoak etorriko dira. Punk oi! musika da egiten dutena; ibarrean, beraz, ez zaie zalerik faltako.

The Veros, ostera, frantziarrak dira, Parisekoak, eta punk-rock estiloko musika egiten dute hauek. Etxeko talde bat ere gonbidatu dute: Brigada Criminal arrasatearrak, hain zuzen ere.

Espaloikoen helburua da kartel honekin punk-oi zaleen bilgune bihurtzea Elgeta zapatuari dagokionez.

EGUZKITZA
LANDETXEA

Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel./ Faxa: 943 78 90 84 Sakelakoa: 679 41 66 97

Jangela zerbitzua

Mª Carmenek jai zoriontsuak opa dizkizue elgetar guztioi!

Suite antzeko lau logela bikoitz:

Bainu osoarekin
*
Telebista
*
Berogailua, etab.

Arantzeta masajista

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Kiromasajea

Ondo ibili jaixetan!

Salbador 28 • Tel.: 943 76 80 54 • 943 76 81 90 • ELGETA

ELKARRIZKETA JOSE ANTONIO URIZAR DANBORRADAKO KAPITAINA

"Herria eta jende guztia ipintzen ditu martxan danborradak"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Danborrada aurpegi berriekin dator aurten. Barril joleen artetik irten eta kapitain lanak betetzera pasako da Jose Antonio Urizar. Sabin Arantzetari lekukoa hartuta jantzi dotorez azalduko da Urizar zapatuan Elgetako kaleetan.

Orain arte parte hartu duzu danborradan?

Bai, nik barril jole modura hartu dut parte aurreko urteetan. Familiako guztiak joan izan gara danborradara: ni neu alabak, suhia. Eta baita bilobak ere, eta aurten ere hala egingo dugu.

Nolatan izango zara kapitaina?

Sabin Arantzeta kapitainaren lekua lagatzera doa eta ea nik beteko dudan galdetu zidan Josu de Vega antolatzaileak. Dudarik gabe baiezkoa eman nien, eta hala izango naiz. Hala ere, Sabinek itxura egokia eman du orain arte kapitain paperean eta haren lekua betetzea ez da lan erraza izango.

Beraz, zuretzat berezia izango da aurten danborrada.

Bai, niretzat ohore handia da danborradako kapitaina izatea. Aukera eskaini zidatenean pozik hartu nuen.

Zein izango da zure eginbeharra?

Oraindik ez dakit ziur zer egin behar dudan ere. Aurreko urteetan kapitainak zer egin duen ikusi dut, baina hortik aurrera ezer ere ez. Uste dut danborradaren amaieran neskaren batekin dantza egin behar dudala. Bestalde, urteren batean kapitaina zaldi gainean joan zela uste dut, baina aurten horrelakorik ez dudala egin behar esan didate. Danborradako buru izatea eta desfilean parte hartzea dira nire eginbeharrak.

Kapitain egokia izango zarela uste duzu?

Hala esan didate; kapitain izateko itxura ona dudala, eta umoretsua ere banaiz. Beraz, uste dut ongi beteko dudala nire papera. Jendaurrean azaltzeko larru sendoa ere behar da, eta nik badaukat. Gaztetan ere antzerkia egindakoa naiz eta hori baliagarria izango zait.

Jose Antonio Urizar izango da aurten danborradako burua. I.A

Danborradan 220 lagun

Ume eta nagusi, danbor eta barril jole, kantinera... Guztira 220 lagun ibiliko dira danborradan. Frontoitik abiatu eta Artekalea eta San Roke kalea igarota plazan amaituko dute ibilbidea, omenaldiarekin.

Arropak, danborrak eta barrilak Elorriotik ekarri dituzte eta musika banda, berriz, Debatik. Aurten, gainera, pieza berri bat joko dute danborradan. Eibartik datorren abestia da, *Pantxika* izenekoa.

"Kapitain izateko itxura ona ematen dudala esan didate"

Kapitain papera noiz artean egiteko asmoa duzu?

Antolatzaileek eta gorputzak lagatzen didaten artean jarraituko dut. Egunen batean berriz barrila jo behar dudala esango balidate ere pozik egingo nuke. Aurten izango da lehen urtea eta ikusi beharko dut ea nola irteten diren gauzak.

Elgeta danborradazalea da?

Bai, ni neu ez ezik herria eta jende guztia martxan ipintzen ditu danborradak. Jaietan gauza asko eta onak daude, baina nire ustez onena danborrada bera da. Nik neuk pilota ere gustuko dut. Aurten ETB Kantxako finalak barikuan ipintzekoak ziren, baina telebistak agintzen du eta domekan izango dira, azokarekin batera.

BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel.: 943 76 82 21

Ondo pasa Azoka Nagusian!

INDUSTRIAS EVE, SA
Trokelgintza eta estanpazioa

ONDO PASAU AZOKA NAGUSIKO JAIXETAN!

Pagatza industrialdea. Elgeta. 943 76 80 99

ANTZERKIA

Kabaret itxurako antzerkia Markeliñeren eskutik

Plazan
Domekan 22:30ean
Markeliñeren eskutik meategiari buruzko *Carbon Club* izeneko kale antzerkia.

'Carbon Club' izeneko kale-ikuskizuna eskainiko dute plazan, iazko jaietan bertan behera geratu ondoren

MIREIA BIKUÑA

Iazko bisita errepikatuko dute Markeliñe taldekoek. 2005an *Carbon Club* kale antzerkia bertan behera geratu zen, euria egin zuelako.

Iazko jaietan Markeliñe taldearen ikuskizunaz gozatzeko gogoarekin geratu zirenek aurtengo jaietan dute aukera. Hori bai, eguraldiaren baimenarekin.

Protagonistek funtzio bat interpretatuko dute taula gainean: bizitzaren funtzioa. Antzezpena eta bizitza nahastu egiten dira, pertsonaiak nahasten diren bezala.

Meategiko langileei omenaldia da *Carbon Club*. MARKELIÑE

MEATZARI BAT, PROTAGONISTA

Meategiko ikatzaren hautsez tindatutako ikuskizuna eskainiko du Markeliñek. Keinuetan oinarritutako lana da. Soinudun ikuskizuna; piroteknia erabiltzen dute horretarako. *Carbon Club* beste ezer baino gehiago meategiko gizon-emakumeei eskainitako omenaldia da.

Meatzari gazte bat da antzezlaneko protagonista, meategiko galerietan ezinezko irteera baten bila dabilena.

Bizitzaren metafora egingo dute Markeliñeko zortzi aktoreek, meategiko gizon-emakumeetan oinarrituta

Honakoak dira antzerkiko aktoreak: Ana Martinez, Nagore Navarro, Soledad Carril, Itziar Rekalde, Nacho Gomez, Paco Rebueltas, Juanjo Otero eta Alberto Quintana.

Afro-moderno musika Senegaldik

Ukitu exotikoa Djolof perkusio talde senegaldarrak ipiniko du, domekan, uztailaren 2an, egingo duen emanaldiarekin. Afrikako doinu tradizionalen eta mendebaldeko musika modernoaren arteko uztarketarekin, publikoa harrituko dute.

Afro-moderno delako estiloa egiten du Djolofek. Musika estilo bat ez ezik, filosofia bat ere bada: hain zuzen, mundu osoko musikarien topaleku izan nahi du taldeak, elkarrekin musika eta bizitza esperientziak trukatzeko.

Wolof-ez –euren hizkuntza–, ingelesez, eta frantsesez abesten dute, eta gizakion arteko bakeaz abesten dute.

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.
Ondo pasau!

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean
Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Podologia •
• Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia • Laser bidezko depilazioa
Ondo ibili jaixetan!
Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!

LAIBE

MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

mingainari tiraka

Carolina Orellana > Ozioso bideo dendakoa

"Film gutxi ateratzen dira bideo formatuan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Urtarrilean zabaldu zuten Matxiategi kalean Ozioso bideo denda. Bideo batzuez gain, DVDak eta bideo jokoak ere aloka daitezke bertan. Askotariko filmak dituzte aukeran eta Carolina Orellanak horietaz hitz egin digu.

Zein motatako filmak ditu jendeak gogoko?
Komedia eta akziozko filmak, eta urte sasoiaren arabera drama ere. Dokumentalak eta film pornoak ere eskatzen dituzte.

Eta zuk?
Beldurrezkoak eta komediak.

Zein film ikusi duzu behin eta berriz?
Jerry McGuire filmak istorio polita kontatzen du.

Zein film ikusten hasi eta utzi egin duzu?
Extrañas coincidencias filma oso filosofikoa zelako kendu nuen.

Jendeak oraindik bideoak eskatzen ditu?
Ehuneko handi batek DVDak hartzen ditu. Askok galdetu egiten dute ea bideorik badugun. Izan ere, gutxi batzuk baino ez dituzte bideo formatuan ateratzen.

Gehien alokatzen den filma?
Hilero ekartzen ditugu nobedadeak, baina gehien *Cinderella man,* esango nuke.

Nongo protagonista izango zinateke?
Uma Thurmanek *Secretos compartidos* filmean egindako papera jokatuko nuke.

Zure aktore gogokoena?
Julia Roberts film guztietan gustatzen zait; mutiletan, berriz, Mel Gibson.

Film pornoak badituzue zuenean?
Bai, eta jende askok alokatzen ditu, gainera.

Gomendatu film bat asteburu honetan ikusteko.
Crash filma niri asko gustatu zitzaidan; *Cinderella man* ere gomendagarria da, baita *Alone in the dark* ere; eta oporretarako girotzeko film arin bat aukeratzekotan, *Últimas vacaciones*.

Kanpotarrak Bergaran

Rusalina Danailova > Garbitzailea
Bulgariarra

"Hemengo ingurua gustuko dut, hango mendien antza duelako"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Orain dela bi urte etorri zen Bergarara Rusalina Bulgariatik, eta ez du hara itzultzeko asmorik; bai, ordea, alabak hona ekartzeko intentzioa. Lanean dihardu hemen, eta baita gaztelania ikasten ere.

Bulgariako ezagun bat Bergaran bizi zela-eta etorri zen orain dela bi urte udan lanera. "Alabei esan nien proba modura etorriko nintzela tarte labur baterako, baina gustura nago eta bertan geratzea erabaki dut".

Irakasle eta ile apaintzaile modura egin zuen lan Bulgarian eta hona etorrita umeak zaintzen ibili zen lehenengo eta orain etxeak garbitzen jarduten du.

Bulgarian Sliven hirian bizi zen, herrialdearen erdialdean, mendiz inguratuta. "Hemen ere mendi asko dago eta ingurua atsegin dut, hangoaren antzerakoa delako. Gustuko dut baita ere hemengo lasaitasuna".

"Alaben, amaren eta lagunen falta sumatzen dut; alabak nirekin bizitzera etor daitezen nahi nuke"

Rusalina Danailova.

GERTUKOEN FALTA

Etxean bulgariar batzuekin bizi da eta etxe-zalea dela esan digu. "Ez naiz askorik irteten, telebista ikusten eta musika entzuten egotea nahiago dut. Hemengo musika dantzagarria da, gainera".

Apenas sumatzen du bere herrialdeko ezeren falta. "Alaben, amaren eta lagunen falta bakarrik sumatzen dut. Gainontzean hemen dudanarekin moldatzen naiz. Hango jatekoak, *vanitza* eta *musaka*, esaterako, hemen ere gerta ditzaket. Bulgariatik norbait datorrenean ere ekartzen dizkigu hango gauzak".

Bergaran jende jatorra eta atsegina aurkitu duela esan digu. "Hemen edozeinek esaten dizu kalean 'zein polita zauden'; han, ordea, inbidia handia dago".

Rusalinak ez du bueltatzeko asmorik, han zaila litzateke bizimodu berri bati ekitea. "Alaba bat Madrilen bizi da eta bestea Bulgarian, baina udan etorriko da oporretan. Nirekin bizi daitezen nahi nuke".

bere ustez

Mikel Elkoroberezibar

Koloreen esanahiaz pare bat hitz

Euskaraz idatzitako hitzak aurkitu dituzte Gasteiztik hamar kilometrora dagoen Veleiako arkeologia gunean. Hitzak arruntak dira: urdin, zuri, gorri... Hiru urteko umeek ere erraz ulertzeko moduko hitzak dira. Euren garrantzia, aldiz, ez dago esanahian, non agertu diren eta noizkoak diren, hori da garrantzitsuena.

Adituek esan dutena baieztatzen bada, euskararen erabilera idatzia sei mendetan aurreratu da. Beraz, eskolako liburu, entziklopedia eta tesi asko aldatu egin beharko dira.

"Euskarazko oinarrizko hitz horiek euskal munduan lortu dute bazterrak nahastea"

Ez bakarrik gure historiari dagokionez, Europa mailako historiari ekarpen garrantzitsua egingo dio aurkikuntzak. Ez baita ohikoa latinaren indarraren aurrean, "barbaro" eta "ezjakinen" hizkuntza bat horrelako etxe dotore erromatarrean agertzea. Garai hartako ingurune jantzi eta aurrerakoi batean, alegia.

Euskarazko oinarrizko hitz horiek euskal munduan lortu dute bazterrak nahastea, baina urdin, zuri eta gorri, agertu beharrean: *azul*, *blanco* eta *rojo* edo *blue*, *white* eta *red* izan balira, zertzuk entzungo genituen albistegietan, Interneten edo egunkarietan?

JOXAN
ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA
Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industriala
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

San Pedro
jai zoriontsuak igaro!
FAGOR
ELEKTRATRESNA
TXIKIEN
NEGOZIOA
Aingeruguarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

URKULU
FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK
San Pedro jaietan,
eskoriatzar guztiei
eta kanpotik bisitan datozenei
zorionak!
hurbila eta profesionala
Torrebaso Pasealekua, 16 • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 25 55 • urkulu@cadena88.com
www.urkulu.com

BARRIKETALAGUNA Euskaldun zahar bat eta berri bi astean behin elkartzea du helburu egitasmoak, euskaraz berba egin dezaten. M.A.

EUSKARA > BARRIKETAN EGITASMOA GERTU

Euskaraz berba egitea erraztu gura du Barriketan egitasmoak

Udalak, Loramendi EEk eta Udal Euskaltegiak jarri dute abian

Euskaldun zahar batek eta berri bik osatuko dute Barriketalaguna

Euskararen kale erabilera %43,2 da eta ezagutza, %64,9

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Barriketan izeneko egitasmoa jarri dute abian Udalak, Leintz Udal Euskaltegiak eta Loramendi Euskara Elkarteak. Ekainean abiarazi dute, baina irailean gorpuztuko da egitasmoa.

EUSKALDUN ZAHAR ETA BERRIAK

Euskaldun zaharrak eta berriak harremanetan jarriko ditu Barriketan proiektuak. Helburua da euskara ikasleek zein euskaraz jakinda berba egiteko ohiturarik ez dutenek euskaraz berba egiteko ohitura dutenekin jardutea. Horretarako, Barriketalagun taldeak sortuko dituzte, hau da, euskaldun zahar batek eta berba egiteko nahiko maila duten bi euskaldun berrik osatutako taldetxoa. Eta hirukoteari eskatuko diote gutxienez astean behin elkartzea –gura duten egun, ordu eta lekuan– euskaraz berba egiteko.

Loramendi EEko bazkideei, gurasoei eta herritarrei egin diete Barriketalagun izateko gonbidapena egitasmoaren sortzaileek. Ekainaren hasieran bidali zituzten gutunok ikastetxeen bitartez gurasoei eta Loramendiko bazkideei zuzenean. Euskaldun berriengana iristeko, ostera, Udal Euskaltegira jo dute, eta azken zortzi urteotan ibilitako goi urratsetako ikasleei eskaini diete proiektuan parte hartzea.

ARETXABALETAKO DATUAK

Aretxabaletan euskararen ezagutza maila altua da Eustaten 2001eko datuek erakusten dutenez, baina kale erabilerarekin ez da gauza bera gertatzen. 2005eko azaroan kalean egindako neurketaren arabera %43,2 da erabilera gurean; ezagutza, ostera, %64,9 –betiere Eustaten datuen arabera.

Euskara ez erabiltzeko arrazoiak hainbat daude. Euskaldun berrien edo ikasten ari direnen kasuan ziurtasunik ez izatea eta lotsatzea; euskaraz egin gura bai baina norekin ez edukitzea; ohiturarik ez izatea... Barriketan egitasmoaren bultzatzaileen esanetan, "oztopo horiek deuseztatzera dator Barriketan". Hala, euskaldun berriei zein ikasten dabiltzanei edo jakin arren berba egiten ez dutenei euskaraz bizitzeko aukerak emango dizkiete.

HIRU ZUTABEKO PROIEKTUA

Barriketalagunaren gaineko egitasmoa ez da berria. Hainbat herritan dago martxan, baita Debagoieneko batzuetan ere. Herri horietan guztietan lortutako emaitzak oso onak izan direlako erabaki dute Udalak, Leintz Udal Euskaltegiak eta Loramendi EEk jartzea abian proiektua.

Proiektuak hiru zutabe ditu: bata, euskara elkartea, euskaldunengana iristeko bideak ezagutzen dituelako; bestea, euskaltegia, ikasleak erakartzeko gaitasuna daukalako; eta azkena, Udala. Azken horrek finantzatuko du proiektua, Euskara Biziberritzeko Planaren barruan. Gainera, beste helburu batzuk ere lor ditzake egitasmoak: euskaldunen arteko hartu-emanen sarea antolatzea eta erabilerak daukan garrantziaz ohartaraztea. Hortaz, euskal komunitatea sendotzeko tresna izan daiteke.

Euskaldun zaharrak behar dituzte aurrera egiteko

Ekain hasieran bidali zituzten egitasmoan parte-hartzeko gonbidapenak, eta hasi dira erantzunak jasotzen. Dagoeneko hamaika bat euskaldun berri edo euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenak gertu egongo lirateke egitasmoan hasteko. Horientzat, baina, euskaldun zaharrak behar dituzte, hau da, euskaraz bizi direnak. Antolatzaileek argi utzi gura dute edozein izan daitekeela: etxekoandre, erretiratu, guraso, ikasle... Eta konpromisoa ez da handia, astean behin elkartzea euskaraz jarduteko. Batzuk kafea hartzera joango dira, beste batzuk paseatzera ume eta guzti, eta zergatik ez, bizikletan edo patinekin ibiltzera ere joan daitezke euskara lagun dutela.

JAIAK > SAN JUAN BEZPERAKO EGITARAUA

Dantzak, erromeria eta sua San Juan bezperan

San Juanetako zortzikoa egingo dute dantzan lehenengo, eta sua piztutakoan gorazarre egingo diote San Juani Aretxabaleta Abesbatzako kideek herritarrekin batera

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

San Juan bezperak edo udako solstizioaren etorrerak garai bateko usadioak dakartza, eta Aretxabaletan ere guztiak betetzen saiatuko dira gaur eta bihar.

MUSIKA ESKOLAREN SAIOA

Arratsaldean bertan hasiko dituzte San Juan bezperako ospakizunak Kultura Sailaren eskutik. Hala, 18:30ean Loramendi dantza taldeak eta Leizarra musika eskolako kideek emanaldia eskainiko dute Herriko Plazan. Bukatutakoan, ordubetera-edo, buruhandiak aterako dira kalean gora umeen atzetik txistularien laguntzarekin. 21:00etan dantzaldia hasiko da erromeria giroko *J&K* taldearekin, eta 22:20 inguruan San Juanetako zortzikoa egingo dute dantzan Loramendiko dantzariek. Sua 22:30ean piztuko dute udal langileek, eta plazan pilatutako abar eta kartoiak erre bitartean San Juani gorazarre egingo diote Aretxabaleta Abesbatzako kideek herritarrekin batera. Sua itzaltzen doan heinean erromeriak hartuko du indarra *J&K* taldearen laguntzarekin.

ZORTZIKOA Loramendi dantza taldeko kideek San Juanetako zortzikoa egingo dute dantzan sua piztu aurretik. GOIENKARIA

Bihar, San Juan eguna, ira edo garoa botako dute hainbat atartetan pobrezia uxatzeko asmoarekin, eta elorri zuriarekin egindako gurutzeak jarriko dituzte ekaitzak urruntzeko.

TANTAIA GORA

Ohitura da San Juan bezperan tantaia jasotzea Herriko Plazan, eta aurten, 1988an jaiotako mutilak ibiliko dira lan horretan. Goizean zuhaitz egokiaren bila joatea da ohitura, eta arratsalderako plaza ingurura ekarri ohi dute. Gauerdia bitartean saiatuko dira tantaia altxatzen eta ondoren, gazta eta ardoa eskaini izan diete ikustera hurreratutakoei.

KULTURA > AKORDEOI ORKESTRA

Uztailaren 22 eta 23an grabatuko du diskoa Akordeoi Orkestrak

Diskoa grabatu aurretik, uztailaren 7an eta 8an, Ourensera joango dira orkestrako kideak kontzertu bi eskaintzera

M.A.> ARETXABALETA

Datorren astean, astelehen eta martitzenean, grabatu behar zuen diskoa Akordeoi Orkestrak, baina taldeko kide diren perkusio-joleek beste hitzordu bat zuten, eta atzeratu egin dituzte grabaketa lanak. Hala, eta beste ezustekorik ez bazaie sortzen, uztailaren 22an eta 23an izango da grabaketa Elgetako Espaloia kafe antzokian.

Juanjo Orobengoa orkestrako zuzendariak baieztatutako moduan diskoa uste baino geroago kaleratuko dute, baina oraindik ez daukate datarik zehaztuta. Kaleratu ostean kontzertuak emango dituzte han eta hemen, eta lehenengoetakoa herrian bertan izango da.

KONTZERTUAK OURENSEN

Diskoaren grabaketa lanak hasi baino lehen, uztailaren 7an eta 8an hain zuzen, Galiziara joango da orkestra kontzertu bi eskaintzera. Egun horietan akordeoi txapelketa egingo dute Ourensen, eta Aretxabaletako akordeoilariak txapelketan ez egon arren, haren inguruan egingo dituzten ekitaldietan hartuko dute parte. Hala, Ourenseko auditorioan emango dute lehenengo kontzertua uztailaren 7an, eta txapelketako sari banaketa ekitaldian izango da bigarrena, hilaren 8an.

> GAZTEAK

Oraindik badago lekua Gazteria Zerbitzuak antolatutako Udaero egitasmoan izena emateko

Astelehenean bukatu zen Udaero egitasmoan izena emateko epea, baina oraindik lekua daukate eta ekainaren 26ra bitartean hartuko dituzte izenak. Horretarako asteburuan Aretxabaletako zein Eskoriatzako gaztelekuetara jo besterik ez dute bi herrietako gazteek. 12 urtetik gorako gazteek har dezakete parte Udaeron, eta hainbat ekintza izango dituzte uztailaren 3tik 21era bitartean: surf ikastaroa Zarautzen eta hiru eguneko irteera Gorlizera, besteak beste.

> UDALA

GOITBko 'Debarri' saioan Arritxu Oliden egongo da herritarren galderak erantzuten

Ekainaren 28an izango da GOITBko *Debarri* saioan Aretxabaletako alkate Arritxu Oliden. Alberto Gorritibereak elkarrizketatuko du, eta herritarren galdera guztiak erantzuten saiatuko da. Galderok aurrez bidali behar dira, eta bi eratara egin daitezke: *www.goiena.net* webgunean eztabaida atalean egongo den galderan sartuta edo GOITBko 943 71 23 96 telefonora deituta. Batean zein bestean ekainaren 27rako egin behar dira galderak.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

Aretxabaleta hizpide

DEBARRI
Eguaztenean, ekainaren 28an, 21:45ean,
Arritxu Oliden alkatearekin berbetan.
Zure galderak egiteko: www.goiena.net/eztabaidak

BABESLEA: ARKAUZ ALTZARIAK

ELKARTASUNA > EKUATORE GINEARAKO MAKINA

Pentsuak nahasteko makina egin dute institutuan Ekuatore Gineara bidaltzeko

Dagoeneko Gineara bidean doa itsasontzi batean, eta uztailaren 10ean heltzerakoan lanean hasiko dira

Aurrerantzean ere egingo ditu lantxoak Mundukidek institutuko ikasleekin elkarlanean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aretxabaletako institutuko ikasle batzuek Mundukide elkarteak eskatutako lantxo bat egin dute ikasturte honetan: pentsuak nahasteko makina Ekuatore Ginearako.

IKASLEEN LANA

Soldadura eta galdaragintza heziketa-zikloko ikasleek jardun dute pentsuak nahasteko makina egiten. Lehenengo diseinatu egin zuten eta ondoren egin. Hain zuzen, guztia muntatuta bidali dute kontainer batean. Uztailaren 10 inguruan helduko da kontainerra doan itsasontzia Ekuatore Gineara, eta behin esku artean izanda lanean hasteko moduan egongo dira Mitemelete herrian. "Lehenengo faseko lanak egiteko erabiliko dugu institutuan egindako makina, urte eta erdi edo urte pare baterako izango da. Gero handiagoa beharko dugulakoan gaude, eskaera asko haziko delako", dio Mundukide eta Hiruatxeko kide Jose Mari Sarasuak.

PROIEKTUAK ELKARLANEAN

Oso pozik daude bai Mundukideko kideak, bai institutuko ikasle eta irakasleak esperientzia benetan aberasgarria izan delako. Ikasleek badakite eurek egindako makinari esker Afrikako hainbat lagunen bizi baldintzak hobetu egingo direla, eta ilusio handiarekin jardun dute lanean.

Bestalde, Mundukidekoek ikusi dute bide berri eta polita zabaldu dela: "Pozik gaude, oso ondo bete dutelako eskatutakoa.

IKASLEAK Pentsuak nahasteko makina alboan dutela ikasleak pozik. INSTITUTUA

Baina hori baino gehiago izan da, elkarlanean proiektuak aurrera eroateko bidea zabaldu dugu, eta aurrerantzean ere egingo ditugu lantxoak", dio Sarasuak.

Institutuko ikasleek egindako makinak erabilera izango du, non eta Afrikan. Herrien arteko elkarlana fruitua ematen dabil, eta luzaroan izan dadila.

bere ustez

Irati Pagoaga

Lehengo kontu zaharrak errepetiruten

Kalendarixora begiratu eta orrixak pasau eta pasau ein diela konturatu naz, beste urte erdi be pasau dala. Atzera begitu eta hamaika kontu on eta txar ekarri dau aurtengo urtiek.

Martxo bukaeran notizia on bat jaso gauen, su etena. Aspalditik hain desiatue zana. Honeaz batera, bake prozesu bidien sartu garela esaten da. Prozesu luze eta korapilatsue dala beti entzuten dogu, baina korapilatsue norendako?

Zoritxarrez, lehengo kontu zaharrak gaur egun ondio errepetiru egiten die eta hori ezin da onartu. Zerrendatxo bat egiten hasi ezkero zutabie segituen beteko nauke, eta adibide batzuk baino ez ditut ekarriko: manifen debekatzie, presuen urruntzie, atxiloketak, alderdi politikoak ilegalizauta, erakundiek legez kanpo…

"Su etena eskatu izen dan moduen neure eskaeratxue hamen botako dot: errepresio etena"

Epe erdi honetan hau pasau baldin bada, hamendik aurrera holako kontuek ezin leikez errepetiru. Konponbidien bidian danok gara giltza, eta danona da honi bultzakadia emutian arduradia. Honeaz akabetako, su etena eskatu izen dan moduan, neure eskaeratxua be hamen botako dot: errepresio etena.

San Juanetan bota sutera uxetu ezin eta kalte egiten duzkuen gauzak. Ondo pasau gabarik luzienien!

Txutxumutxua

10:20rako bukatu zuen lehenak 357 lagun elkartu zituen martxan

Murrukixo MEk antolatutako IV. mendi martxak 357 lagun elkartu zituen Copreciko aparkalekuan. Bizkor ibili ziren batzuk, eta 10:20an iritsi zen lehena Herriko Plazara; arineketan eginda, noski. Azkena, ostera, erratz eta guzti ibili zena, 14:30erako zen bueltan. Antolatzaileen esanetan ez zuten inolako arazorik izan, baina lainoa izan zen eguerdira bitartean eta mendizaleek ezin izan zuten ibilbideko paraje dotoreekin behar bezala gozatu. Arineketan egin zuten batzuk erdi galduta ibili ziren, lainoarengatik.

F.B.H.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Lie
LURRINDEGIA
OPARI DENDA
Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

T. LeClerc
PARIS · 1881

OSOKO BILKURA > 2006KO UDAL AURREKONTUAK

EA-EAJk eta EBk onartu egin dute udal aurrekontua

PSE-EE eta Elizateak abstenitu egin ziren aurrekontuaren gaineko bozketa guztietan

Euskara Saileko partida, eskola publikoak eta etorkizuneko gaztetxea izan zituzten eztabaidagai

ABSTENITU EGIN ZIREN Elizateek (ezkerrean) eta PSE-EEk ez zuten Udal Gobernuaren aurrekontuen alde egin. IKER BARANDIARAN

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Asteleheneko osoko bilkuran udal aurrekontua eztabaidatu zuten. EA, EAJ eta Ezker Batuak alde bozkatu zuten. PSE-EEko eta Elizateetako ordezkariak, berriz, abstenitu egin ziren. Kontzejupe plataformak ere hainbat alegazio aurkeztu zituen, baina talde horrek ez dauka botoa emateko aukerarik. Kontzejupek Euskara Sailari diru partida handiagoa ematea eskatu zuen. Udal Gobernuak ez zuen eskaera onartu, baina Kontzejupek proposatutako diru sarrerak aintzat hartu zituen, eta igoera txikia egin zion Euskararako kopuruari.

Ezker Batuaren alegazioak ere izan ziren berbagai. Eztabaidatu ondoren, herriko bi eskola publikoen tarifak parekatzearen alde egitea onartu zuten.

GAZTETXEAREN ETORKIZUNA

Horrez gain, EBk egungo gaztetxearen egoera txarra berbagai jarri zuen. Udal Gobernuaren asmoa da oraingoa ixtea eta geltoki zaharrean beste bat egokitzea. Hori egokitu artean, EBk proposatu du gazteek *mobil-home* bat erabiltzea. Gainontzeko taldeek, berriz, gurago dute horretarako lokal bat alokatzea. Bada, *Mobil-home* edo lokal bat alokatzeko partida onartzea erabaki zuten.

PSE-EE ETA ELIZATEEN KRITIKA

PSE-EEko bi zinegotziak eta Elizateetako ordezkariak abstenitu egin ziren bozketa guztietan. PSE-EEk azaldu zuen iaz udal aurrekontuak babestu zituztela, baina aurten abstenitu egin direla Udal Gobernuaren kudeaketari eta politikari kritika egiteko.

Udal aurrekontuaren konparaketa arloka

	2006	2005
Hirigintza	**5.436.746** €	2.174.187 €
Obrak eta zerbitzuak	**1.289.582** €	1.329.141 €
Hezkuntza	**357.612** €	470.251 €
Ogasuna eta Ondarea	**557.454** €	442.310 €
Kirola	**354.475** €	425.606 €
Kultura eta Jaiak	**342.442** €	413.098 €
Kultura ondarea eta Turismoa	**178.511** €	267.150 €
Ongizate zerbitzuak	**349.128** €	220.650 €
Pertsonala eta Gobernua	**191.212** €	204.382 €
Elizateak	**197.128** €	198.689 €
Gazteria	**157.774** €	191.459 €
Euskara	**213.011** €	191.119 €
Telesko	**91.161** €	98.126 €
Enplegua	**36.726** €	60.055 €
Prebentzioa	**25.052** €	22.639 €
Ingurumena	**10.420** €	21.800 €
Emakumeak	**3.171** €	3.976 €
S.Marina eta Ibarraundi urbanizazioa*	**–3.722.303** €	
GUZTIRA	**6.069.302** €	**6.734.638**

*Udalak aurreratuko du urbanizazioen kostua, baina dirua itzuliko diote

Horrez gain, azaldu zuten oraindik ez dietela eman Eskoriatzako Industrialdearen gaineko azalpenik.

AUZO LOKALETARAKO PARTIDA

Elizateetako ordezkariak alkateari jakinarazi zion 2005ean auzo lokaletarako 60.000 euro onartu zituztela. Baina azkenean aldaketa egin zutela eta 2006an kopuru hori onartzeko konpromisoa hartu zutela. Horregatik, ez zuen ondo hartu 30.000 euro bakarrik onartu izana. Bestalde, Elizateetako ordezkariak gogoratu zuen 2005ean ura Elizateetako partidatik kanpo jarri zutela, baina ez zutela gastu hori egin. Eta aurten, berriz, Elizateetan sartu dutela.

Horrez gain, salatu zuen Udalak Bidegiri horrek ordaindu beharreko porlana ez diola kobratu.

Zorionak eskoriatzar guztioi!

ALTO DEBA MARGOAK

Dekorazio pintura • Pintura industriala • Fatxadak

Telefonoa 943 71 41 82 / 639 37 45 25 Faxa 943 71 41 82

leniz sa fundizioak

Jai zoriontsu eta alaiak izan ditzazuela!

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA
www.fundiciones-leniz.com

JAIAK > SAN JUAN SUAREN INGURUAN JAIA EGINGO DUTE GAUR, EGUBAKOITZA

San Juan jaiaren jatorrizko zentzua berreskuratuko dute gaur plazan

Axtrokiren ereduari jarraituta, aldaketak egin dizkio Udalak herriko San Juan jaiari

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Aurten Axtroki euskara elkarteak ez du San Juan jaia antolatuko; atseden hartzea erabaki du. Hortaz, Udaleko Euskara eta Kultura sailek hartu dute horren ardura. Antolatzaileek jaiaren jatorria aztertu, eta aldaketak egin dizkiote egitarauari. Aurtengo kintoek (1989an jaiotakoak) tantaia eraman eta altxatzeaz gain, ardoa eta gazta banatuko dute arratsaldean. Bestalde, aurten, lehenengo aldiz, 1989an jaiotako emakumezkoek sua piztuko dute. Hori 22:30ak aldera izango da. Ordurako herritar asko batuko dira suaren inguruan eta txistulariek emanaldia egingo dute. Are gehiago, antolatzaileen asmoa da suaren inguruan fandangoa, arin-arina eta atalaitakoa dantza egitea. "San Juan gaua magikoa izan da beti, eta gure arbasoek barruak askatzeko baliatu dute. Hori berreskuratu beharko genuke", azaldu digute.

Bestalde, aurten hondar islatzailea jarri dute, eta horren gainean egingo dute sua. Hortaz, aspaldiko partez herritarrek aukera izango dute suaren gainetik salto egiteko.

EMAKUMEZKOAK

Amuska emakumeen elkartearen batzarra

I.B. > ESKORIATZA

Amuska emakumeen elkarteak urteroko batzarra egin berri du. Besteak beste, elkarteko batzarrean aldaketak egin dituzte.

Iaztik batzarrean jarraituko dutenak honako hauek dira: Elvi Marques, Eva Gutierrez, Clasira Barco eta Maria Jesus Miguel.

AURPEGI BERRIAK

Honako hauek batu dira batzarrean: Izaskun Otaño, Vega Barco, Esther Barandalla eta Josefina Gutierrez. Ardurak utzi dituztenak, berriz, honako hauek dira: Mariasun Artzaburu, Mari Karmen Pagaldai, Agapi Morales eta Mariam Aranburuzabala.

LUIS EZEIZA

Julita Lezari eskerrak eta omenaldia

Orain dela pare bat aste, Luis Ezeiza eskolan herri eskolaren jaia egin zuten. Hala egiten dute urtero ikasturtea bukatu aurretik eta aurten ere ikasle, guraso eta irakasleek jaiegun polita igaro zuten elkarrekin.

Horrekin batera, Julita Leza eskolako andereñoak erretiroa hartu zuen. Lezak 40 urte egin ditu Eskoriatzako herri eskolan lanean, eta haren lankide eta ikasleek merezitako omenalditxoa egitea erabaki zuten.

Julita Lezak ez zuen halakorik espero eta zur eta lur gelditu zen jasotakoarekin, baina aldi berean gustura hartu zuen egindako omenalditxoa. Argazkian, Leza haren ikasle batzuekin.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Ondo ondo pasau San Pedrotan!
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

FRIXI Eraikuntzak
Ondo ibili jaixetan!
Hormigoizko estrukturak, urbanizazio , kontratak eta enpresen mantenimenduak
Aranburuzabala 56 • ESKORIATZA • Tel.: eta faxa: 943 71 55 15 • Poltsikokoa: 629 51 39 22

> JAIA

Erretiratuen eguneko bazkarirako txartelak salgai

Uztailaren 9an ospatuko dute erretiratuen eguna. 11:30ean meza izango da parrokian herriko abesbatzarekin. Ondoren, bazkaria egingo dute eskolako jolastokian eta gero, erromeria izango da. Txartelak ekainaren 29an eta 30ean edo uztailaren 1ean eros daitezke elkartean 18:00etatik 19:00etara bitartean, hiru euroren truke. Bestalde, ekainaren 28an, 18:00etan, gizarte etxeari buruzko batzarra izango da Olaranen erretiratuendako.

> HIRIGINTZA

Sinadura bilketa Sagastin parkea egitearen alde

Sagastin parkea egitearen aldeko plataformak sinadura bilketa egingo du gaur, egubakoitza, herriko plazan, San Juan eguneko arbola jaso bitartean; eta zapatuan eta domekan 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara Kalebarrenean. Sinadurak jasotzeko kaleratu duten idatzian zera diote: "Ados gaude gizarte etxea egitearekin, herriak merezi eta behar duelako, baina ez gaude ados herrigunean gelditzen zaigun berdegune bakarra galtzearekin. Posible da herrian behar ditugun ekipamendu guztiak Maristetan eta Olarango jauregian kokatzea eta Sagastiko berdegunea osorik libre uztea, parke txukun moduan erabiltzeko".

Kalebarren
janari-denda

Kalebarren jai zoriontsuak Goreti eta Amaiaren partez

kalebarren 11

JAIAK > SAN JUAN ETA KALEBARREN

Umeendako jolasak, afaria eta erromeriak, jaietan protagonista

Gaur, egubakoitza, San Juan bezpera izanik herriko plazan altxatuko dute zuhaitza; zapatuan, berriz, Kalebarrenean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Asteburu honek ere jai usaina izango du. Izan ere, San Juan jaiak eta Kalebarrengo jaiak ospatuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, San Juan bezperako ospakizunak izango dira. 19:30ean Oinarin dantza taldekoek eta txistulariek kalejira egingo dute. Plazara iritsita arbola jasoko dute 20:00etan eta ostean, lore lehiaketako sariak banatuko dituzte. 20:30etik aurrera San Juan zortzikoa eta soka dantza dantzatuko dituzte zuhaitzaren bueltan Oinarinekoek; eta amaitzeko sua piztuko dute Sagastiko parkean.

KALEBARRENEAN ERE JAIAK

Gaur iluntzean, 20:00etan, hasiko dira Kalebarrengo jaiak ere. Trikiti doinuak izango dira protagonista; trikitilari gazteek kalejira egingo dute eta 22:00etan Elustondo anai-arrebekin erromeria izango da Zurrategin.

Zapatua ere ekitaldiz beteta dator. Goizeko 11etan marrazki lehiaketa egingo dute umeek eta 12:00etan ginkana; 13:00etan kalejira izango da trikitilariekin. Arratsaldean, 16:30ean hasita, haurrendako tailerrak egingo dituzte eta 19:00etan buruhandiak izango dira. Gauerako, arbola jasotzea dago iragarrita 20:00etarako, gero afaria eta ostean, disko jartzailea eta erromeria; gauerdian sagar dantza.

Domekan, txistularien goiz eresiaren ostean, meza izango da 11:30ean eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte. Eguerdian, 12:00etan *1, 2, 3... Iñaxito* umeendako antzezlana egongo da; eta jaiekin amaitzeko 16:30erako umeendako jolasak antolatu dituzte.

GORETTI FERNANDEZ

Gazte txokotik Getariara asteburu pasa

Gazte txokoko 16 neska-mutil eta hiru begirale Getarian izan dira asteburuan. Axkixuko aterpetxean hartu dute ostatu eta Getariako hondartzan eta Orion kayaketan ibili dira. Gazte txokoan asteburu hau izango dute ikasturteko azkena eta Kalebarrengo jaiak direla aprobetxatuz afaria egingo dute lokalean. Irailean berriz ere elkartuko dira bertan asteburuetan. Bien bitartean gazte txokoko arduradunek galdeketa egingo diete gazteei jardueren gaineko iritziak jasotzeko.

bere ustez

Joseba Lezeta

Reala diru eske Gipuzkoako udalei

Realaren kapital handitzea uste bezain ondo joan ez delako, Administrazio Kontseiluak Gipuzkoako udalei eskatu die akzioak erostea. Oraindik ez dute erantzunik eman udalek. Ez dakigu Antzuolakoak zer erabakiko duen. Ezagutzen ditugun kirol klubek, ez Antzuolakoek bakarrik, han eta hemen eskatu eta, zenbaitetan, zozketetarako txartelak salduz ateratzen dituzte aurrera euren aurrekontuak. Kluben arduradunetako askok urteak daramatzate lanean, txanpon bat irabazteke, familiari orduak kenduz, poltsikotik dirua jarriz. Udala da klub horien euskarri nagusia, ez bakarra. Tabernetara, enpresetara, lagunengana... jotzen dute aurrekontua osatzeko. Diru gehiago balute, gauza hobeak egingo lituzkete, baina apal jokatzen dute.

"Realaren izenean dirua eskatu diote Gipuzkoari futbolari aberatsen jornalak osatzeko"

Orain, Realaren izenean dirua eskatu diote Gipuzkoari futbolari aberatsen jornalak osatzeko. Miguel Fuentes presidenteak berak ere soldata du. Horrenbeste balio du Realak? Edo Athleticek?

Udalei eskatutakoa futbolariak auto bikainetan ibiltzeko bada, oker gabiltza. Antzuolak baditu arazo larriagoak. Bitartean, gasolina norberak ordaindu behar herriko klubari bidaia merkeago irteteko.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ARANTZETA Auzotarrek esan diote Udalari errepideen gaian baserritarren iritziak jaso behar lituzkeela aurrez. I.A.

BIDEAK > BASERRI AUZOETARA JOATEKO BIDEAK

Arantzeta auzorako bidea Foru Aldundiaren esku geratuko da

Sesto-gain eta Sagastitxo baserrietarako bideen berritze lanak uztailaren amaierarako egingo dira

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Baserritarren azken batzordean baserri bideen gaineko zenbait gaiez jardun zuten.

Larragibel, Egotxeaga eta Arantzeta auzoetako bideak Udalaren eskuetara pasatzeko eskatu zioten Diputazioari, baina Arantzetakoak ez zeuden ados. Beraz, Diputazioaren eskuetan jarraituko du bideak. Baserritarrek ez dute nahi euren auzoko bidearen jabetza Udalaren esku geratzea. "Udalak ez digu bermatzen Aldundiak eskaintzen digun mantenua", diote. Gainontzeko auzoetako bizilagunekin astelehenean elkartuko dira Udalekoak.

Bestalde, Sesto-gain eta Sagastitxo baserrietako bideak berritzeko lanak abian dira. Uztailaren amaierarako lanak bukatzea espero dute. Kostuaren zati handi bat (%65) Mendi Nekazaritzak ordainduko du eta gainontzekoa baserritarrek eta Udalak.

BIDEEN MANTENTZE-LANAK

Baserrietako bideen mantentze-lanek ere eman dute zeresanik. Mankomunitateko batzarretan hitz egin dute arautegi bateratua kaleratzeari buruz. Adostasunik lortu ezean Udalak baserri bideak erabiltzearren berme bat ipiniko du, haiek erabili eta hondatuz gero kalteak ordaintzeko.

> MENDIA

Egoki taldeak mendi irteera antolatu du Pirinioetara uztailaren 8 eta 9rako

Uztailaren 8an Linzatik abiatu eta Hiru Erregeen Mahaia mendia igoko dute mendizaleek; uztailaren 9rako, berriz, bi aukera gertatu dituzte: Zuriza eta Ezkaurre arteko ibilbidea eta kanoijaitsiera. Udaletxean izena emateko azken eguna ekainaren 28a izango da eta ordaindu beharrekoa 40 euro (garraioa eta aterpetxea pentsio erdian). Antolatzaileek gomendatu dute Mendiko Federazioan asegurua eginda izatea.

> HIRIGINTZA

Torrealdeko aldapan hautsa sortzen denez, behar denetan ureztatzeko eskatu du Aralarrek

Torrealdean etxebizitza berriak eraikitzeak eragozpenak sortu dizkie bizilagunei: "Autoa ezin bertan laga, tutuetako usaina, zarata, argitasun txikia gauetan… Horretaz gain, egunero herrira igotzeko erabiltzen duten bidean sekulako hautsa egoten da", diote Aralarkoek. Hori dela eta, eskatu dute beharra dagoenetan Udalak bidea ureztatzea. "Javier Madrazo etorri zenean oinezkoentzako gunean ura bota zuten eta ez zen apenas hautsik sortu".

> UDALA

Bake epaile titularra eta haren ordezkoa aukeratzeko deialdia egin dute Udaletik

Lau urteko agintaldia laster beteko dela-eta, datozen lau urteetarako berriz ere aukeratu behar dira bake epailea eta haren ordezkoa. Postu hori bete nahi dutenek uztailaren 14ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dute eskaera udaletxean. Udalbatzak egingo du aukeraketa, baldintzak betetzen dituzten hautagaien artetik. Inor aurkeztu ezean biztanleen artetik aukeratuko dituzte.

> FUTBOLA

Herriko futbol taldeak bazkideak behar ditu eta mahaia ipiniko du gaur iluntzean plazan

Datorren denboraldian futbol taldea izango du Elgetak. Jokalari taldea osatuta dago, baina ezinbestekoa da herritarren laguntza. Horretarako bazkideak lortu nahi dituzte, eta gaur, egubakoitza, bazkide egiteko aukera egongo da plazan, 19:30etik aurrera, hamar euroren truke. Jadanik ia 100 bazkidera iritsi dira.

GRUPO IFA
Supermerkatuak
UGARI

Elgetar guztioi: Urtetan hor egotiagaittik nere eskerrik beruenak emon gura dotzuet. Bihotz-bihotzez.

Kontxi

Andra Mari 2
ELGETA
943 76 80 98

Gudarien Bidea 4, ELGETA • Tel.: 943 76 80 23

JECOEN
DARDARATZE ETA LEUNTZE METALIKOAK
Ondo ibili jaietan!
Salbador 21 • Elgeta
Tel. eta faxa: 943 76 81 74

IRAMA ELEKTRIZITATEA
Instalazioak eta mantentze lanak
Zorionak, elgetar guztioi!
Salbador 3 • Elgeta
Tel. eta faxa: 943 78 90 57 • Poltsikokoa: 619 69 23 36

IA
ANJACE Industriak S.L.
Burdineria lantegia
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Pagatza poligono industriala • Elgeta
Tel.: 943 78 91 11 • Faxa: 943 78 91 09

Jose Inazio Gonzalez de Audikano 'Antero' > Oldarki dantza taldea

"Ona edo txarra izan, zaletasuna daukanak azkenean ikasi egiten du"

UBANE MADERA > ARAMAIO

Domekan, hilaren 2an, omenaldia egingo diote Oldarki dantza taldeari, Aramaion egindako guztia eskertzeko. Oraingo astean bertan etorri da Gasteiztik Oldarkiko txistulari eta dantzari Jose Inazio Gonzalez de Audikano *Antero.* Alkatearekin eta Jabier Altuna eta Angel Astondoarekin (Lagun Arteako kide izandakoak) omenaldia prestatzen ibili dira.

Zer dela-eta hasi zen Oldarki dantzak erakusten Aramaion?

Honen guztiaren zuzendaria izan zen Manolo Gartzia Andoin. Gu hasi ginen 14 urterekin, berarekin, Oldarki taldea sortu zuenean, 1955ean. Taldea sortu eta gutxira, Manolo Ormaetxearekin elkartu zen mendian eta hark esan zion dantzak erakusteko jendea falta zela Aramaion eta halaxe hasi ginen etortzen.

Hortaz, Oldarkik lan handia egin zuen dantzen zabalkuntzan, ezta?

Bai, bai. Galduta zeuden zenbait dantza berreskuratu zituen, eta zenbait herritako taldeak bultzatu zituen, Gasteizen, Aretxabaletan, Araian eta Aramaion, batzuk esatearren. Gero, herri horietan eskolen bitartez hasi ziren dantza taldeak egiten.

Dantza taldea bultzatzeaz gainera, ekitaldi komunak ere egin dituzue Aramaiokoekin?

Bai, gure ordezkoak moduan ziren. Guk bi ekitaldi genituenean, txandaka egiten genuen Aramaiokoekin. Bestalde, Aramaiokoek ekitaldi dezente egin zituzten, Oletan, Santa Agedan, Gasteizen, San Prudentziotan, Legutianoko batzarretan… Indar handia hartu zuen taldeak eta dantza mordoa zekiten.

Kontatu didate *paseo politak* ematen zenituztela Aramaiora erakustera etortzeko…

Zapatuan egun osoan egiten genuen lan; lanetik irten, txistua eta danbolina hartu eta Jauregiren autobusean joaten ginen, Legutianoraino. Handik oinez etortzen ginen Aramaiora. Batzuetan zortea izaten genuen eta Aramaion egiten zebiltzan petrolio-zulaketetako langileek ekartzen gintuzten, Kurtzetara. Baina oinez askotan etorri naiz. 22:00etan-edo iristen nintzen; *Poliko*-nean egiten genuen lo eta zapatu goizean bazkalordura arte entseatzen genuen. Neguan egundoko hotza egiten zuen han. (Barreak) 1957tik 1964ra arte-edo etorri ginen, txandaka. Manolo Gartzia Andoin, Ladis Lopez eta ni neu. Eta beste batzuk, neskak ere bai. Ikusi genuenean taldeak denetik zuela, etortzeari utzi egin genion, baina harremana gorde egin dugu 50 urteotan.

Asko kosta zitzaizuen taldea egitea Aramaion?

Leku guztietan daude dantzari onak eta txarrak, baina zaletasuna daukanak azkenean ikasi egiten du.

LAGUN ARTEA

Lagun Artea-k 50 urte egin ditu aurten

1956ean sortu zuten Lagun Artea dantza taldea, Gasteizko Oldarki taldeari esker. Horrenbestez, 2006an bete dute mende erdia. Hori horrela, gaur egungo dantza taldearen arduradun Ainara Inuntziagak jakinarazi digu Lagun Artea dabilela 1956tik aurrerako argazkiak; helburua da gero 50 urteotako erakusketa egitea. Beraz, argazkiren bat duenak udaletxera eraman dezala edo deitu dezala honako telefonora: 669 94 65 94 (iluntzean). Horrez gainera, 50. urteurrena ospatzeko bestelako ekitaldiren bat antolatzeko asmoa ere badute Lagun Artea dantza taldekoek.



Mertxe Mondragon, Jabier Altuna, *Antero* eta Angel Astondoa, udaletxepean. U.M.

JAIAK > SAN JUAN ETA SAN PEDRO

Azkoagako sorgina gertu da Santa Agedatxora joateko

Arraga auzoan, berriz, San Pedro eguna ospatuko dute, ekainaren 29an

U.M. > ARAMAIO

Udako solstizioarekin batera ospatzen dugu geurean San Juan. Eta dagoeneko hementxe dugu. Bestelakoen artean, Azkoaga auzoan ospakizunekin ibiliko dira, auzoko jaiak ere badira-eta, barikutik, domekara. Eta jaien egitarauaren barruan, sua egingo dute, bariku iluntzean, Santa Agedatxon.

SAN PEDROAK, ARRAGAN

Arraga auzoan, berriz, San Pedro dute zaindari eta haren izen bera duen ermitan meza esango dute ekainaren 29an, 19:30ean. Mezaren ostean, merienda emango dute, musikaz girotuta.

Ospakizunotara joateko gonbidapena egin diete gainerako herritarrei auzo bietatik.

Azkoagako San Juan jaiak

23, barikua

18:00 Jaien hasiera: makala altxatu, etxafuegoak eta kanpaien errepika. Auzoko neska-mutikoen argazki erakusketa
19:00 Zirku lantegia
20:00 Afari-merienda-parrillada
Iluntzean: sorginarekin, Santa Agedatxoraino, eta han sua

24, zapatua

12:00 Meza
18:00 Sun Mago Majoa
21:30 Herri-afari-dantzaldia

25, domeka

13:00 Meza, auzokoen alde
17:30 Altxorraren Bila

UDALEKUAK > UZTAILAREN 5ETIK 18RA

Neska-mutiko dezentek eman du izena udalekuetan

Epea zabaldu egin zuen Udalak, ume gehiago lortzeko; 56k eman dute izena

U.M. > ARAMAIO

Beste urte batzuetan baino ume gutxiagok eman du izena aurten Udalaren udalekuetan; baina azkenean lortu dute gutxieneko kopurua eta Udalak iragarri digun moduan, uztailaren 5ean hasiko dira umeak udalekuetan, herriko jaien ostean. Eta uztailaren 18ra arte ibiliko dira.

Lehen esandako moduan, 56 neska-mutikok eman dute izena aurten eta zazpi begirale ibiliko dira haiek zaintzen, guztiak ere Aramaiokoak.

Hain justu ere, oraingo astean egin dute formazio ekintza begiraleek, Arrasateko udalekuez arduratzen den Txatxilipurdi elkarteak lagunduta.

AUTOBUSA ETA EKITALDIAK

Auzoetan bizi diren umeek autobus zerbitzua izango dute joan-etorria egiteko.

Bestalde, udalekuetako ordutegia zehaztu ondoren ume guztiei jakinaraziko zaie.

Ekintzei dagokienez, Aramaion bertan eskura duten hainbat baliabide erabiltzea aurreikusi dute. Hala, besteak beste, toki esanguratsuak bisitatuko dituzte, herriko hainbat pertsonaren laguntza eskatuko dute, joko zaharrak berreskuratzeko ahalegina egingo dute, igerilekura ere joango dira… Labur esanda, ez dute ez, aspertzeko astirik izango.

Gainera, ohiturari jarraituz, umeek bisera berdina erabiliko dute. Aurten, kolore gorriduna.

> ESKOLA

Irailaren 11ra arte oporrak dituzte San Martin Eskolakoek

Gaur, barikua izan dute azken eguna eskolakoek. Eta, ezustekorik ezean, atzo ospatu zuten ikasturte bukaerako jaia. Ikasturtea agurtzeaz gainera, jai horren helburua izaten da kanpora ikastera doazen seigarren mailakoak agurtzea. Maila guztietan prestatu dute ekitaldiren bat.

> ERRETIRATUAK

Karta jokoen finalean izango dira, Gasteizen

Ekainaren 27an, Gasteizen karta jokoen finala jokatuko dute. Aramaioko sei lagunek parte hartuko dute. Honako hauek: Maria Luisa Bengoa eta Basilisa Elortzak briskan, Mario Jauregi eta Fernando Nafarratek tutean eta Ramon Altuna eta Angel Astondoak musean. 10:00etan hasiko dira.

JAIAK > GAUR, SAN JUAN BEZPERA

Sardinak eta saiheskia janda ospatuko dute udako solstizioa

Azken urteotako ohiturari jarraituz, sardinak, saiheskia eta hirugiharra gertatuko dituzte pilotalekuan, 20:00ak inguruan, gatzagar guztientzat

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Ohiturari eutsi gura diote Gatzagan ere, eta San Juan bezpera ospatuko dute gaur, egubakoitza, 20:00etan hasita.

Jose Ignazio Beloki eta haren ingurukoak dira sardinak, saiheskia eta hirugiharra gertatzeko ardura daukatenak, eta goxo-goxoak gertatuko dituzte pilotalekuan jarritako parrilletan. Horiei lagun egiteko ardoa eta freskagarriak eskainiko ditu Udalak. "10 edo 15 lagun elkartzen ziren garai baten sardinak eta saiheskia jatera, baina azken urteotan 100 bat herritar hurreratzen da", dio Jon Sasiain Kultura zinegotziak. "Gehienak kalean bizi direnak izan ohi dira, baina baserrikoentzat ere bada".

SARDINAK Belokik eta senideek gertatuko dute jatekoa parrilletan. GOIENKARIA

22:00ETAN SUA

Bapo jan ostean musika jarriko dute Udalaren musika-ekipoari esker. Suak derrigor egon behar du San Juan bezperako gauean, eta 22:00ak inguruan piztuko dute San Migel plazan jarritako enbor eta abar piloa. Txar guztiak erreko dituzte bertan gatzagarrek, eta sua itzaltzen doan heinean musikak hartuko du lekua herrian. Parranda gura beste luzatzeko aukera izango dute urteko gaurik luzeenean.

LUDOTEKA > IKASTURTE AMAIERA

Ikasturte amaierako jaia egingo dute gaur umeek

Bertsoak abestuko dituzte nagusienek eta gainerakoek dantzan egingo dute ludotekan

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Ikasturtea bukatu dute eskolan eta ludotekari ere agur esango diote gaur, ekainak 23, Gatzagako umeek. Baina ezin bukatu edozelan eta, jaialditxoa egingo dute. Hasiera baten San Migel plazan egitekoak baziren ere, azkenean Garro jauregian dagoen ludotekan bertan izango da. 17:30ean hasi eta 19:30era bitartean, bertsoak abestuko dituzte ume nagusienek eta gainerakoek dantzan egingo dute.

UZTAILEAN UDALEKUAK

Ludotekari agur, baina uztailean udaleku irekiak izango dituzte oporretan egongo diren umeek. Hilaren 10etik 21era bitartean elkartuko dira arratsaldeetan, baina horretarako begiraleak behar dituzte. Interesatuek bidal ditzatela eskaerak Gatzagako udaletxera.

> KIROLA

Herriko umeek saskibaloian jokatzeko saskia jarri dute San Migel plazako bazter baten

San Migel plazan, pilotalekura jaisteko eskailerak dauden alboan, saskibaloian jokatzeko saskia jarri dute astean. Jon Sasiain Kultura zinegotziaren burutazioa izan zen, eta lekurik egokiena plazan bertan dagoela iruditu zitzaion. Hala, ume zein gazteek oporretan denbora pasatzeko beste zeregin bat izango dute.

San Migel plazan skatean ibiltzeko *U*-a jarri zuten orain urtetxo batzuk, baina herritarren kexak jaso zituzten udaletxean eta kentzea erabaki zuten. Jon Sasiainen esanetan, herriko gaztetxoen aisialdirako beste zerbait erostea ere pentsatuta dute, baina diruak agintzen du eta momentuz itxaron egin behar da.

Imanol Etxeberria > Eibar futbol taldeko atezaina

"Hasieratik ibili gara zulotik atera ezinda, eta zorterik ere ez dugu izan"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bigarren mailan 18 denboraldi jarraian egin ostean, Eibar futbol taldeak agur esan zion zapatuan zilarrezko mailari. Imanol Etxeberria (Bergara, 1973) izan da armaginen atezaina amaitu berri den denboraldian. Betiko zalantza argitzeko asmoz bergararra ala arrasatearra den galdetu diogu, eta berak diplomatikoki erantzun: "Bergaran jaio nintzen eta umetan Arrasatera etorri ginen...". Egun Mungian bizi da eta laster aita izango da berriro.

Gauza jakinekoa zen aspalditik, baina gogorra gertatuko zitzaizuen zapatuan 2. mailari agur esatea...

Gogorra da, bai. Gauzak ondo egiten ez direnean horrelakoak gertatzen dira. Klubeko guztiok gara gertatu denaren erantzule: zuzendaritza, entrenatzaileak, jokalariok nola ez... Egon diren entrenatzaile aldaketak ez dira pizgarriak izan, beste batzuetan gertatzen den moduan, eta liga hasieratik ibili gara zulotik atera ezinda. Eta egoera horretan zaila da emaitza onak lortzea.

Joan den denboraldian lehen mailara igotzeko lehian eta aurten sailkapeneko azkenak...

Urtetik urtera gauzak asko aldatzen dira. Eibarrek ia talde osoa aldatu behar izaten du urtero; aurten, esaterako, 17 fitxaketa egin zituzten eta lehengo urtetik hiruzpalau jokalari bakarrik zeuden. Zaila da fitxaketekin asmatzea, taldea akoplatzea... Entrenatzailea ere berria zen... Horregatik meritu handia dauka Eibarrek azken urteotan egin duena.

Ibilbide luzea darama Imanol Etxeberriak futbolean. Hurrengo denboraldian ez du Eibarren jarraituko.

Carlos Terrazasen adierazpenek ez zioten mesede onik egingo taldeari. Iaz lortutakoa hobetzera zetorrela esan zuen aurkezpen egunean.

Ilusio handiarekin etorri zen, hasieratik goian egon behar genuela esanez. Baina futbolean ez dago asmatzerik eta emaitzek agintzen dute, eguneroko lanak. Liga hasiera txarra izan genuen eta ez genuen bidea zuzentzerik izan.

Terrazasen ondoren, Roberto Olabe eta Javi Perez egon dira aulkian, baina erreakzioa ez da iritsi...

Olabe etorri zenean sistema aldatu eta hainbat aldaketa egin zituen hamaikakoan. Erreakzio txiki bat izan genuen, baina ez zuen luze iraun... Egia esan, zortea ere ez genuen alde izan, bolada txar batean sartu ginen berriro eta ondoren Javi Perezek Olabe ordezkatu zuen. Zoritxarrez ez gara gauza izan egoerari buelta emateko.

Pertsonalki zein balorazio egiten duzu?

Oso gustura ibili naiz. Hainbat urte kanpoan jokatu ostean baneukan Euskal Herrira buelta gauza izan egoerari buelta emateko. Gainera, jokatzeko aukera izan dut. Zubikarai lesionatu egin zen eta partidu gehienak jokatu ditut. Erregularra izan naizela uste dut.

"Liga hasiera txarra izan genuen eta ez genuen bidea zuzentzerik izan"

"Eibarren jokatzeko aukera izan dut eta erregularra izan naizela uste dut"

"Oraindik ez dakit hurrengo denboraldian non jokatuko dudan. Atzerrira joateak erakartzen nau..."

Hurrengo urtean, zer?

Oraindik ez dakit. Ziurrenik ez dut Eibarren jarraituko. Ea eskaintza interesgarriren bat suertatzen den. Etxetik gertu bada, hobeto. Atzerrira joateak ere erakartzen nau... Ingalaterran jokatzen egon diren lagunek beti animatzen naute hara joateko, eta Boltonekin probatu nuenean konprobatu nuen futbola modu berezian bizi dutela han.

Mundiala jarraitzen ari zara? Faboritorik?

Ez dut partidu askorik ikusi, baina emaitzak jarraitu ditut. Brasil, Alemania eta Espainia ikusten ditut faborito.

Mundialeko atezainen artean, zein duzu gustukoen?

Lehmann eta Van der Sar.

Euskadi eta Nafarroako aisialdirako lehen katearen partaide izan zaitez!

Ozioso katearen partaide izateak dituen abantailak ezagutu itzazu, baita ondorengo kontzeptua ere: aisialdi integrala prezio onenean. Bideokluba, vending makinak (izozkiak, sandwichak eta gozokiak saltzen dituztenak), bidaiak. Airis Center eta beste gauza mordo bat. Gure denda bakoitzean zerbitzu horiek guztiak aurkituko dituzu.
24 orduko negozio errentagarriena zure eskura
Tel.: 679 761 228 zeruatg@gmail.com

BERGARA´KO OZIOSO
Aisialdia prezio onenean ondorengoendako: Ps2, Nintendo DS, Gameboy, Xbox, jokoen alokairua. Astero nobedadeak, zine estreinaldi onenak eta bideo jokoak. Airis Center Debagoiena, laster bidaiak prezio ezin hobean! Etor zaitez.
Matxiategi 6, behea BERGARA,
Kutxako kutxazain automatikoaren ondoan Tel.: 943 76 99 71

Ozioso Tourra 06 porra

Oinarriak
Oinarriak zeintzuk diren jakiteko Bergarako dendara etorri, bertan emango dizugu puntuazio taula eta parte-hartzaile moduan sailkapena ikusteko dituzun aukerak zeintzuk diren jakingo duzu.
Sariak
1- Jasotako diruaren %40 + minikatea (MP3arekin bateragarria)
2- Jasotako diruaren %20 + minikatea edo irrati-CD eramangarria (MP3a).
3- Jasotako diruaren %10 + bigarrenak hartzen ez duena
4- Irrati-CD eramangarria
5- Disc-man eramangarria + irrati-erloju iratzargailua

Web orriak sortzea eta diseinatzea. Irudi Korporatiboa.
zeruatg@gmail.com Tel.: 679 761 228 / 943 76 99 71
Eskatu gure zerbitzuen eta sustapenen informazioa:
Denda berriak zabaltzeko: zeruatg@gmail.com edo deitu ondorengo telefonoetara: 679 76 12 28 / 943 76 99 71

Has zaitez Konfort *testagatik*™**

Erakuts ditzakegun gorespen eta argazki erakargarriek ezer gutxirako balioko lukete, inoiz ez baitzenuke ezagutuko Stressless® besaulki edo sofa baten benetako erosotasuna. Arrazoi sinple bategatik: probatu egin behar dituzulako! Stressless® baten eseri bezain pronto, beste besaulki eta sofekin konparatuta, eskaintzen dizun aparteko bermea sentitu eta ulertuko duzu. Zuk zeuk frogatu! Gertuen duzun Stressless® dendara hurrera zaitez eta Konfort testa™ egin ezazu.

Besaulkiak eta sofak **www.stressless.es**-en

Stressless® EKORNES®
THE INNOVATORS OF COMFORT™

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • **GASTEIZ**
Tel./Faxa: 945 21 42 24

PILOTA > DEBARROKO ETA ELGETAKO TXAPELKETAK

Finaletarako sailkatzeko azken ahalegina egitea falta da

Gaur arratsaldean hasiko dituzte, Antzuolan, Debarroko finalerdietako itzuliko partiduak

Horrekin batera, 20:00etan, Elgetako Lau t'erdiko finalerako txartelak egongo dira jokoan, Elgetan

ERRAZ Gorkari 22-4 irabazita, Peñas erraz sailkatu da Elgetako finalerako, kadete mailan. IBAN AGINAGA

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den asteburuan finalerdietako joaneko norgehiagokak jokatu eta gero, ibarreko pilotariek asteburuan egin beharko dute finalerako sailkatzeko azken jarduna, itzulerako partiduak jokatuko dituzte-eta. Hala, gaur arratsaldean jokatuko dituzte Antzuolan lehenengo partiduak (19:30).

Gazte mailan, Antzuolako Mendizabalek eta Azkaratek Bergarako Elortzaren eta Berraondoren kontra neurtuko dituzte indarrak. Jarraian jokatuko dute seniorrek: Bergara eta Arrasate zein baino zein gehiago. Bergarako pilotalekuan lanetan dabiltzanez, Antzuolako pilotalekua aukeratu dute. Hala, joan den astean erdietsitako abantailari eusten ahaleginduko dira Axpe eta Uribarren (22-13). Bergarako Iñarrak Mugurutzarekin osatuko du bikotea, Gutierrezek Usurbilen jokatuko du-eta.

KADETEETAN, HIRUKOA

Ibarreko hiru talde dabiltza kadete mailako finalerako sailkatu guran. Arrasateko Zubizarretak eta Bolinagak Akizu eta Gardokiren bisita izango dute domeka arratsaldean Uarkapen. Gogoratu, kadete mailako partidua baino lehenago egingo dutela San Juan jaien barruan Asegarcek antolatu duen txapelketa. Jaialdia amaitutakoan jokatuko dute gaztetxoek, 19:30ak inguruan.

Beste finalerdian daude Eskoriatzako eta Elgoibarko pilotariak. Norgehiagoka hori gaur jokatuko dute Eskoriatzan, 20:00etan hasita.

ERRASTI ANAIAK ELGOIBARREN

Lehenago esan dugu Arrasateko eta Bergarako pilotariek jokatuko dutela finalerdietako partidu bat, Antzuolan. Beste partidua, berriz, Elgoibarrek eta Aretxabaletak jokatuko dute. Hala, joan den astean Iturrigorriko pilotalekuan lana gogotik egin eta gero, Errasti anaiak domekan joango dira Elgoibarrera. Etxean 22-20 irabazita, Aretxabaletako bikoteak ondo daki Elgoibarren ezingo duela akatsik egin, markagailuan alde txikia dute-eta. Azken orduko aldaketarik ez badago, 12:00etan jokatuko dute finalerdi hori.

ELGETAN ERE FINALARI BEGIRA

Elgetako Lau t'erdiko Txapelketan finalerdietako azken partiduak jokatuko dituzte gaur (20:00). Kadete mailan Elezkanok Perez izango du kontrario, eta 23 urtez azpikotan Gonzalez eta Irureta izango dira finalerako txartela eskuratzeko lehian. Gogoratu, nagusietan Ollo dagoeneko finalean dagoela, joan den astean Lasari 22-10 irabazita. Kadete mailan ere dagoeneko badago finalista bat, goiko erretratuan azaltzen den Peñas. Gorkaren kontra 22-4 eginda izango da kadete mailako finalean.

PILOTA JAIALDIA ARRASATEN

Debarroko eta Elgetako Lau térdiko txapelketarekin batera, gaur arratsaldean Plazako Txapelketako partiduak jokatuko dituzte Oñatin (19:00). Ibarreko pilota eskaintza ez da, baina, hor amaituko. Lehen esan dugu Asegarceko pilotariak izango direla domekan Uarkapen (17:00). Eskuz Banako Txapelketako finalera iritsi den Aimar Olaizolak eta Otxandorenak Oinatz Bengoetxearen eta Belokiren kontra neurtuko dituzte indarrak. Pilota jaialdia ikusteko sarrerek 15 euro balioko dute.

Asteburuko pilota hitzorduak

HERRIA	EGUNA	ORDUA	TXAPELKETA	PILOTARIAK
Antzuola	Gaur	19:30	Debarroko Txa.	Antzuola-Bergara
Antzuola	Gaur	20:00	Debarroko Txa.	Bergara-Arrasate
Eskoriatza	Gaur	20:00	Debarroko Txa.	Eskoriatza-Elgoib.
Elgeta	Gaur	20:00	Elgeta 4 t'erdi	Elezkano-Perez
Elgeta	Gaur	20:30	Elgeta 4 t'erdi	Gonzalez-Irureta
Elgoibar	Domeka	12:00	Debarroko Txa.	Elgoibar-Aretxaba.
Arrasate	Domeka	19:30	Debarroko Txa.	Arrasate-Aretxaba.

MILAR ELKORO
ARGIZTAPEN ELEMENTUEN LIKIDAZIOA! ZATOZ!
%50 KO DESKONTUA
Eta orain ere... SUKALDE ALTZARIAK!
• Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
• Neurrira egindako finantzaketa.

Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86

PAGALDAI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui 15 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 97



San Pedruak badatoz
Aurtengo urtian
Jentia festa gosez
Eskoitza aldian
Pozik ta giro onaz
Jaixak pasatzian
Hurrengo urtian zai
Hauek bukatzian

GORA ESKOITZAKO JAIXAK!

GURE PARTEZ:
EDARTO PASAU SAN PEDRUAK!

SAN PEDROTAN ESKORIATZAN BAINO HOBETO… INUN BE EZ.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA

> UDAKO IKASTAROAK
Bi eskaintza daude ibarrean: UNEDen eta Aramaion **> 45**



> EUSKARA BIZIBERRITZEN
EBPN garatzeko bloga jarri dute *goiena.net*-en **> 51**

> IÑIGO HERREROS
Saltsa askotan sartuta ibili da azkeneko urteotan Iñigo Herreros bergararra. Han eta hemengo kontzertuetan soinu teknikari dihardu **> 47**

Gurera turistak erakarri nahian

Mankomunitatea eta Debagoieneko zenbait udal turismoa bultzatzeko lanean dabiltza

GOIENKARIA > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitatea eta zenbait udal turistak erakartzeko ahaleginetan ari dira azken urteotan. Eta emaitzak begi-bistan dira: gero eta kanpotar gehiago hurbiltzen dira gurera, uda partean batez ere. Badira intereseko tokiak, eta turismoa Debagoieneko pizgarrietako bat izan daiteke etorkizunean.

Turismo ikuspuntutik Oñati da ibarreko herririk erakargarriena, beharbada. Bada, turismoa bultzatzeko asmoz, natur ibilbide gidatuak egingo dituzte han hirugarren urtez. > 02

Oñatiko Unibertsitateko klaustroa

Urkuluko urtegia.

Bergarako Arrese etxea.

Artzai txakur txapelketa.

Arantzazuko basilika.

TURISMOA > OÑATI

Natur ibilbideak antolatu dituzte Oñatin

Oñatiko Natur Eskolarekin elkarlanean, hainbat ibilbide egingo dira uztailaren 1etik aurrera

Antolatzaileak pozik, orain dela bi urte abian jarritako egitasmoak jasotako erantzunarekin

ARANTZAZU Uztailaren 8rako eta 30erako *Arantzazu erreka eta kobazuloak* irteera iragarri dute. OÑATIKO TURISMO BULEGOA

EDU MENDIBIL > OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoak *Oñati 2006 Udaberri Uda* gida aurkeztu zuen atzo, eguena. Kultur ekitaldi edo bestelako ospakizunez gain, natur ibilbide gidatuak jasotzen dira kaleratutako gidan. Iñaki Igartua oñatiarra dugu Turismo Bulegoko arduraduna eta hark esan bezala, "orain dela bi urte jarri genuen martxan natur ibilbideen egitasmoa, eta jasotako erantzuna ikusita, aurten ere ibilbideak egitera animatu gara. Joan den urtean 150 lagun inguruk hartu zuten parte eta aurten ere jende asko etorriko dela espero dugu".

Oñatiko Natur Eskolarekin elkarlanean, natur ibilbide gidatuak uztailaren 1etik abuztuaren 13ra bitartean izango dira. Hurrengo zapaturako (uztailak 1), esaterako, *Orkatzategiko hegazti kolonia* irteera iragarri dute. Teleskopioen laguntzarekin saiak, belatzak… eta abar ezagutzeko aukera izango da. Lau orduko irteera izango da, 09:00etan hasita.

Uztailaren 15ean eta abuztuaren 12an, berriz, *Mitologia eta historiaurrea* irteera egingo dute, Aizkirri kobazuloa, Jentilen pasealekua, Sorginerreka eta beste hainbat txoko bisitatuz. *Arantzazu erreka eta kobazuloak* irteera egingo da uztailaren 8an eta 30ean eta hurrengo asteotan ere beste hainbat aukera izango dira.

Irteeren prezioa 5 edo 8 eurokoa da. Natur ibilbide gidatuen erreserbak Oñatiko Turismo Bulegoan (943 78 34 53) egin daitezke.

TURISTAK ERAKARRIZ

Iñaki Igartuaren arabera, ibilbideok zerikusi handia izan dute turistak erakartzeko orduan: "Gertatu izan da hainbat jende egun bakar baterako bisitan etorri eta ibilbideen eskaintza ikusita egonaldia luzatzea. Eta hori oso positiboa da turismoan diharduguntzat. Herriarentzat aberasgarria da turismoa, bizitasuna ematen diolako. Aspaldi honetan kazetari asko etorri da, Oñatiko eskaintza bertatik bertara ezagutzeko. Martitzenean, esaterako, Japoniako bi kazetari etorri zitzaizkigun, eskalatzeko tokiak edo ostalaritzako aukeren gainean galdez. Oñati modan dagoela esango nuke".

Joan den urteko udako datuei dagokienez, %12 igo zen turismoa Oñatin 2004ko datuekin konparatuta. Guztira, 5.952 bisitari zenbatu zituzten 2005eko udan.

www.oinati.org.

Bergaran antolatutako bisita gidatuak arrakastatsuak gertatu dira. GOIENKARIA

Gero eta turista gehiago etortzen da uda partean Debagoiena ezagutzeko asmoz

Oñatiko Udal Turismo Bulegoa (943 78 34 53) 1991. urtean zabaldu zuten. Era berean, Oñatin bada beste turismo bulego bat, Arantzazukoa (943 71 89 11), Mankomunitateak kudeatzen duena. Debagoienean turismoa hartzen ari den indarraren adierazgarri, Bergaran (943 77 91 28) eta Leintz Gatzagan (943 71 47 92) ere turismo bulegoak dituzte. Bergarakoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Informazio turistikoa eskaintzeaz gain, Bergarako txoko esanguratsuenak ezagutzeko gidatutako bisitak antolatzen dituzte, doan. Harrera bikaina izan dute, ez bakarrik kanpotik etorritakoen artean. Herritar askok jo dute bulegora historia eta arte azalpenak jasotzeko. Xabier Aranburu Bergarako udal museologoaren arabera, "1996an bulegoa zabaldu genuenetik bisitarien kopurua goraka doa, hori da tendentzia. Iazko udan 2.940 lagun hurbildu ziren bulegora". Oñatiko Udal Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak azpimarratzen duenez, "turismo arloan gehiago sinistu behar dugu, aukera ederrak dauzkagulako eta ekonomikoki bailara indartzeko bidea ematen duelako".

Ekainaren 26a: 092 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA Harpidedunen txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, ekainaren 26a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

091 zozketako saridunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Intz Bengoa (Arrasate)
- Jazinto Ziarsolo Alberdi (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Mila Akixu Gaztañaga (Aretxabaleta)
- Jaione Barrena Egaña (Oñati)

092 zozketako sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



DONOSTIAKO AQUARIUMa bisitatzeko bi gonbidapen. (saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko: **902 36 38 51** 09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota: **24 euro** 2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa

UDAKO IKASTAROAK > UNED-EN ETA ARAMAION

Udako ikastaroen eskaintza zabala Bergaran eta Aramaion

Udako ikastaroak egiteko bi eskaintza daude ibarrean: bata, UNEDen eta bestea, Aramaioko kultura etxean

IKER BARANDIARAN > ARAMAIO

Aurten, Arabako Aldundiaren Kultura Sailak eta Aramaioko Udalak Aramaiako Udako Ikastaroen 5. edizioa antolatu dute, EHUren laguntzarekin.

Aurtengo leloa izango da *1876-1914 Euskal Herria bidegurutzean*. Antolatzaileen esanetan, "Euskal Herriarentzat hain erabakigarria izan zen garai haren ikuspegi zabala eskaintzea da ikastaroaren helburua".

Gai horren gainean hamazazpi aditu arituko dira uztailaren 3tik 6ra bitartean. Saio guztiak Ibarrako (Aramaio) kultura etxean egingo dituzte 16:00etatik 20:00ak bitartean. Besteak beste, Euskaltzaindiko Piarres Charritton, Henrike Knörr, Lourdes Otaegi; Eusko Ikaskuntzako Jean-Claude Larronde; eta UNED eta EHUko ordezkari ugarik emango dituzte berbaldiak. Izena emateko, deitu 902 19 96 47 telefono zenbakira edo idatzi honako posta elektronikora: *aramaio@hurbilkulturgaiak.com*

UNED-EKOAK HASITA

Horrez gain, Bergarako UNEDek ere udako ikastaroak antolatu ditu. Hilaren erdialdean hasi ziren eta hil bukaera arte iraungo dute. Aurtengoa bosgarren edizioa da, eta bi zatitan banatuta dago: lehenengoan, Euskal Herriko historia garaikidea, eleberrien eta historiaren arteko harremana, nazioarteko zuzenbidea, euskal kultura, poesia... emango dute.

Bigarrenean, berriz, autobiografiak, Erdi Aroko idatziak, bibliografietako dokumentazioa, eta beste.

CAP-CAP

Eguenean, AEBetako Lagwagon-en emanaldia Jamen

Eguenean, hilaren 29an, AEBetako Lagwagon taldeak kontzertua egingo du Bergarako Jam aretoan, 21:00etan. Sarrerak 19 eurotan salduko dituzte. Lagwagon taldeak bosgarren diskoa, *Resolve*, aurkeztuko du. Disko hori bere buruaz beste egin zuen Derrick Plourde bateria jotzailearen omenez egin dute. Lagwagon taldea oso ezaguna da hardcore melodikoa egiten duten taldeen artean eta munduan zehar hainbat bira egin ditu abiadura eta doinua uztartzen dituzten soinu horiek ezagutzera ematen.

> MUSIKA

Madalen eta Txinparta abesbatzen ikuskizuna Oñatiko Santa Anan

Domekan, hilaren 25ean, Mutrikuko Madalen abesbatzak eta Lezoko Txinpartak emanaldia egingo dute Oñatiko Santa Ana antzokian. 12:30ean izango da, eta Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu du.

Txinparta abesbatza Lezoko Tomas Garbizu musika eskolan sortu zuten. Europan barrena hainbat bira egin ditu, eta gure artean hainbat sari eskuratu ditu.

Madalen abesbatza Mutrikuko Musika Eskolan sortu zuten, eta gaur egun 12 eta 19 urte bitarteko 30 abeslariz osatuta dago. Urtero emanaldi garrantzitsuak egiten ditu herrian, baita Euskal Herriko eta Kataluniako taldeekin elkartrukeak ere.

Edozein premiatarako:
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Sukia eraikuntza. Prezio oso ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 55 m². Berrituta.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Ibargarai 109 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Martoko 85 m². Oso ondo
- Zubiaurre 70 m². Ondo.

Antzuola:
- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza. Aukéra ona.
- Sagasti 90m². Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87m². Ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m² . Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 70 m². Ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ANTZUOLA
Cot ile apaindegian ile apaintzailea eta estetizista bat behar dira.
659 69 38 36

ARRASATE
Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.
618 76 34 40
605 76 08 29

OÑATI
Etxebizitza salgai. 120 m², altua, argitsua, igogailua, ganbara eta behe-barrua. Berritzeko. Prezio interesgarria.
658 93 14 80

BERGARA
Duplex berria eta garaje itxia salgai.
699 49 14 14

ARRASATE
Kontzesionario baten pertsona bat behar da automobilen ordezko piezen alorrean lan egiteko. Tituluduna edo bost urteko esperientzia duena.
943 79 45 22

ARAMAIO
Zerbitzaria behar da jatetxe batean asteburuetan lan egiteko.
690 85 52 25

BERGARA
Biko taberna alokatzen da. Deitu arratsaldez.
943 76 71 19

ANGIOZAR
Ortzi erretegia alokatzen da.
943 78 22 80
665 72 24 46

ARETXABALETA
Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.
647 05 42 75

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza ia berria. 90 m2. Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, halla, despentsa eta bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzita. Eguzkitsua. 655 70 97 14.

Arrasate. Doneztebe Portuko kalean. 69 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Arratsaldez deitu. 652 77 87 71.

Arrasate. Etxea salgai San Joxepen. Berrituta eta altzariekin hornitua. 60 m². Ganbararekin. 610 43 24 23.

Arrasate. Hiru logela eta egongela dituen etxebizitza salgai. 639 56 39 04.

Santa Pola (Alacant). Gran Playa hondartzatik gertu. Uztaileko lehen hamabostaldian eta abuztuan. Auto batentzako garajea du uztailean. 605 02 05 22.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Etxebizitza emango nuke errentan Levanten. Bi logela, igerilekua eta aparkalekua ditu. 666 67 06 94.

Donostia. Etxebizitza ederra. Gros hondartzatik gertu. Familiarako gertatua. Uztaileko bigarren hamabostalditik irailera. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Donostia. Hiru logelako etxebizitza alokatzen da udan. Berritua eta altzari berriekin. Hondartzatik, alde zaharretik, erdialdetik eta Kursaaletik 10 minutura oinez. 639 37 25 89.

Elizondo. Etxebizitza errentan ematen da. Leku lasaia, herrian bertan. Garajea. 630 08 33 85.

Noja. Duplex polita hondartzan. Itsasora begira. Hamabostaldiak edo hilabete osoak. 944 61 43 78 edo 696 90 94 43.

Peñiscola. Apartamentua errentan uztailean eta irailean. Hondartzatik gertu. Aparkalekua eta igerilekuarekin. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Peñiscola. Etxebizitza errentan ematen da. Igerilekua. Prezio ona. 607 76 09 30.

Salou. Uztaila eta iraila. Itsasora begira. Jaime I pasealekuan. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Vera (Almeria). Apartamentua errentan ematen da. Hondartza eta urbanizazio naturistan. Jantzia. Igerilekua. 657 73 94 25.

Villanua (Pirinioak). Igerilekua. Garajea. Uztaileko bigarren hamabostaldia eta abuztuko lehena. Deitu gauez. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

Zumaia. Estrenatzeko 80 m²-ko etxebizitza berria. 943 01 93 46 edo 606 56 47 14.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Emakume batek bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko luke. Karine. 618 17 17 89.

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Bolun etxea osatzeko lagun bat behar da. Andoni. 605 76 98 97.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia saltzen edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

Bergara. Garaje itxia salgai Ibargarai kalean. 645 72 06 47.

Bergara. Itxitako garaje bikoitza salgai Arruriaga kalean, Udal Biltegi ondoan. 629 26 88 51.

Oñati. Garaje itxia salgai San Lorentzo auzoan. 658 75 22 37.

203. ERRENTAN EMAN

Santa Pola (Alacant). Garaje plaza bat alokatzen da klub nautikotik 150 metrora, uztailean. Auto batentzako lekua du eta sarrera errazekoa da. 605 02 05 22.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokala salgai Sagasti auzoan. 65 m². 657 77 97 52.

Bergara. Barruti industrialdean . 176 m². 943 76 35 09.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 60 m²-ko lokal komertziala erdialdean, Irala kalean. Zeharo egokitua. 943 79 90 43.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko. 630 98 08 57.

Arrasate. Sukaldaria behar da pintxoak egiteko taberna batean. 943 77 30 29.

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska gazte euskaldunak zerbitzari moduan edo umeak zaintzen lan egingo luke. 695 74 27 95.

Bergara. Esperientzia eta gomendio eskutitza daukan neska ondorengo lanak egiteko prest: garbiketa, pertsona nagusiak eta umeak zaintzea, etxeko lanak, sukaldari laguntzailea, zerbitzaria. Etxeetan orduka edo bertan bizitzen. 690 84 72 92.

Bergara. Esperientziadun mutila ondorengo lanak egiteko prest: pertsona nagusiak zaindu, tailerreko laguntzaile, galdategian, soldadore, zerbitzari, uzta jasotzen, eta igeltsero laguntzaile moduan. 639 42 82 80.

Bergara. Neska lanerako prest 9:00etatik 12:00etara. 639 88 67 83.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Alzheimer duten gaixoei arreta espezializatua emateko ikastaroa antolatzen gabiltza. Ikastaroa Elgoibarren izango da. (Maria). 946 20 04 49.

Bergara. Ingeles eskolak ematen ditut. Telefonoa: 618 91 32 89.

Bergara. Unibertsitateko ikaslea DBH eta batxilergo bitarteko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu. 645 71 81 84.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW K-75 motorra salgai. Gurpil berriak. Bateria berria. IAT 2008ra artekoa. Ondo zaindua. 64.000 km. 685 73 61 25.

Fiat Ducato autokaraban a salgai. 35.000 kilometro ditu. 19.500 euro. 651 70 79 96.

Ford Escort Atlanta Ghia autoa salgai. 1.8 turbodiesela. SS-BC. 667 23 37 54.

Golf GT gorria salgai. Oso egoera onean, 1991koa ,133.000 km eta aire girotuarekin. 1.500 €. 661 96 62 70.

Golf GTI autoa salgai. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Harley-Davidson Sportsters Custom 53c modeloa. Estrak. More kolorekoa. 677 83 47 29.

Opel Astra 2.0 16v autoa salgai. 8 urte, 118.000 km. 696 56 04 87.

Renault Laguna. Grand Tour 2.2 dCI. 150 zaldi. 88.000 km. 2003koa. 17.000 euro. 607 07 73 02.

Seat Ibiza 1.4 autoa salgai. 100 ZP. 29.000 km. CDa eta aire-girogailua. 17:00etatik aurrera deitu. 656 74 53 90.

Seat Ibiza autoa. 11 urte, 92.000 km, 1.000 euro. 943 76 45 81 edo 653 71 77 67.

Suzuki Bitara. Erremolkea eramateko lotura eta aurreko paratxokea. Bi gurpil joko. 1993koa. IAT pasatuta. 699 85 49 58.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Egurrezko mahaia salgai. Izkina egiten duen eserlekua, bi aulki, taburete bat, guztiak kuxinekin. Txokorako aproposa. 943 76 21 79.

Kanpin denda salgai. Auto gainean eramatekoa. Inesca Liberty markakoa. 653 73 08 04.

Karabana. Zaharra da, baina oso ondo zainduta dago. Aterpe berria du. 656 78 23 19.

Mendiko bizikleta bi salgai. Egoera onean. 685 72 53 17 edo 943 76 15 43.

Nikon kamerak salgai: F90 eta Fm2. 629 37 35 35.

803. EMAN

Belarra emateko daukagu. 680 55 17 65.

806. GALDU

Bergara. Urrezko eskumuturrekoa galdu nuen ekainaren 18an, zapatua. Madura eta Txikipark artean. Eskertuko da. 943 76 22 23.

BERGARAKO UDALA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, erabaki da behin-behineko izaeraz, ondorengo ordenantza fiskala aldatzea:

1. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.

Hori guztia, Udalbatza Osoak 2006ko ekainaren 19ko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sortuko ditu ondorioak eta jarriko da indarrean.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2006ko ekainak 20
Alkatea

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.

IRAGARKIA

Bergarako Bihargintza 98, S.A.
Agorrosingo kirol ekipamenduko taberna-jatetxearen ustiaketa, alokairuaren bidez, adjudikatzera doa.

Eskaintzak aurkezteko epea 2006ko ekainaren 30eko 13:00etan bukatzen da.

Pleguak eta informazio gehigarria Bulego Teknikoak eta Kirol Zerbitzuan, hurrenez hurren.

Bergaran, 2006ko ekainaren 20an
LEHENDAKARIAK

txatxilipurdi

Txatxilipurdi Elkarteak Ludoteka eta Gazte Txokorako hezitzaileak behar ditu:

Eskaintzen da:
- 4 orduko lan kontratua irailetik hasita.

Txatxilipurdi. Pablo Uranga 6, behea. 943 79 54 45.
idazkaritza@txatxilipurdi.com

FAGOR
Fagor Ederlan

Fagor Ederlan automozio sektorean liderra den enpresa da; 3.400 langilek osatzen dute Estatuan, Europako ekialdean eta Hego Amerikan kokatuak dauden 15 plantetan kokatzen direlarik. Lan jarduera automobilaren Balazta, Esekidura, Motorra eta Transmisioko funtzioetan oinarritzen da, eta horretarako fabrikazio teknologia ezberdinak erabiltzen dituzte.Une honetan industria espezialitatean zera bilatzen ari gara:

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

LH - II

Deba Goienan izan behar ditugun sarrera berriak betetzeko (Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara).

Aurrez hautatutako hautagaiei erantzungo zaie bakarrik 30 eguneko epean.

Behar den konfidentzialtasunarekin erabiliko dira emandako datuak, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/99 Legean ezarritako irizpideen arabera.

LKS

Interesatuok, bidali zuen curriculuma, Ordiziako (20240) - Gipuzkoa- 89 postakutxatilara, edo hurrengo helbide elektronikora: seleccion@lks.es, 39/06 erreferentzia aipatuz.

Susana Villar eta **Iñaki Madina** oñatiarrak ekainaren 10ean ezkondu ziren. Elizkizuna Oñatiko Agustindarren elizan ospatu zuten. Ondoren, bazkaria Leintz Gatzagako Gure-Ametsa jatetxean egin zuten. Zorionak, bihotz-bihotzez, zuen lagunen partetik.



Leintz Gatzagako **Petra Pagaldai** eta **Urbano Bengoa** ekainaren 13an ezkondu ziren, orain dela 60 urte. Ekainaren 18an egin zuten ospakizuna; meza Dorletako santutegian eta ondoren bazkaria Gure Ametsa jatetxean. Zorionak, familiakoen partetik.



Iban eta **Ana** oñatiarrak, ekainaren 17an ezkondu ziren Oñatiko Araotz auzoko parrokian. Eztei bidaian Karakorum (Himalaia) aldean ibiliko dira. Zorionak, bikote! Egun eta bizimodu paregabea opa dizuegu. Muxu handi bat, etxekoen partetik.

hildakoak

- **Mari Carmen Muruamendiaraz Urdaniz.** Bergaran, 15ean. 75 urte.
- **Ixabel Altuna Letamendia.** Oñatin, ekainaren 15ean. 44 urte.
- **Maria Dolores Soraluze Elduaien.** Arrasaten, ekainaren 16an. 75 urte.
- **Juan Luis Ruiz Ortega.** Oñatin, ekainaren 16an. 77 urte.
- **Lucia Uribarren Altuna.** Arrasaten, ekainaren 17an. 86 urte.
- **Antonio Carmona Carriedo.** Arrasaten, ekainaren 18an. 85 urte.
- **Julia Bravo Indurain.** Arrasaten, ekainaren 18an. 91 urte.
- **Javier Fernandez Ganuza.** Oñatin, ekainaren 19an. 55 urte.
- **Jose Urrutia Azkarate.** Eskoriatzan, ekainaren 19an. 79urte.
- **Sabina Zabaleta Ortubai.** Arrasaten, ekainaren 20an. 83 urte.
- **Pilar Ruiz Ganuza.** Oñatin, ekainaren 20an. 75 urte.
- **Juana Gabilondo Legorburu.** Antzuolan, ekainaren 21ean. 98 urte.
- **Faustino Arenaza Lasagabaster.** Aretxabaletan, ekainaren 21ean. 82 urte.
- **Agustina Gonzalez Gonzalez.** Arrasaten, ekainaren 21ean. 89 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera,
eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11

Aretxabaleta
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 85 euro.
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



Joxe Antonio Aranburu eta **Bixenta Arregi** oñatiarrek, ekainaren 30ean 50 urte egingo dituzte ezkonduta. Urtemuga hau ilusio handiz ospatuko dute familiakoekin, uztailaren 1ean. "Zorionak, bikote, etxeko denon partetik eta jarraittu horrelaxe!"

ESKELA

Juan Jose Usabiaga Arandia

Mikel Usabiaga Goienako kolaboratzailearen aita

Ordizian hil zen 2006ko ekainaren 20an, 75 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du
senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2006ko ekainaren 23an.

ESKER ONA

Maritxu Erdabide Etxaniz

Bergaran hil zen 2006ko ekainaren 10ean, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Zerk edertzen du bizitza,
eman eta eskaini eta oparitu dituzunak baino?

Bergaran, 2006ko ekainaren 23an.

ESKER ONA

Jesus Zeziaga Arenaza

Rosario Intzaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko ekainaren 14an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko ekainaren 23an.

URTEURRENA

Fernando Santamaria Franco

Seigarren urteurreneko meza astelehenean,
ekainaren 26an, 19:15ean, Bergarako San Pedro
elizan.

—

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu

Emaztea, seme-alabak eta senide guztiak.
Bergaran, 2006ko ekainaren 23an.

URTEURRENA

Iker Uribetxeberria Azurmendi

"Apo"

Gure artean denbora gutxi egon arren,
jakin duzu gure maitasuna irabazten,
betirako gure gogoan, betirako Apo.

Zure lagunak.
Arrasaten, 2006ko ekainaren 23an.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) ı **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) ı **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) ı **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) ı **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) ı **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) ı **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) ı **BIMINU**
Dub manifest (Fermin Muguruza) ı **DUB**
Egunero (Hertzainak) ı **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) ı **SUKAR**
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) ı **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) ı **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) ı **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) ı **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) ı **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) ı **GORA**
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) ı **BELAIR**
Haizea (Ken7) ı **HAIZEA**
Hegal egiten (Itoiz) ı **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) ı **IKUSI**
Ilargia (Ken 7) ı **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatibu) ı **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) ı **JOKIN**
Kaixo (Urtz) ı **KAIXO**
Lau Teilatu (Itoiz) ı **ITOIZLAU**
Laztana (Latzen) ı **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) ı **LOTUTA**
Loretxoa (EXKIXU) ı **LORE**
Marea Gora (Itoiz) ı **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) ı **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) ı **NICA**
No time for love(Hertzainak) ı **NOTIME**
Salve (La Polla) ı **SALVE**
Sarri Sarri (Kortatu) ı **SARRI**
Sorginen leizean (Exkixu) ı **SORGIN**
Txatxo (Zarama) ı **TXATXO1**
Txus (La Polla) ı **TXUS**

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) ı **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) ı **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapia) ı **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) ı **ITSAS**
Kupela (Epelde eta Larrañaga) ı **KUPELA**
Mila galdera (Alaitz / Maider) ı **MILAI**
Nirekin (Gozategi) ı **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) ı **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) ı **TXANPON**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS · EH2 · SORGIN4 · AIZKORAK
TARTALO · IKURRI3 · LORA · BABAK
BASAJAUN · IKURRI5 · LAU2 · ARRANAK

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora,/ * Vodafone: deitu 123-ra,/ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

bila-bila 7





hitz gezidunak



- Arrotza / Ozeano
- Ekaina (Bizkaian) / Setatsu
- Sari / IRUDIAN
- Zenbatean / Solidoen zatiki txikia
- Tuberkulua / Festa
- Tuberkulo-sia / Arroza
- Sail, eremu / Putre
- Elkarte finantzario / Kide
- Naizen hau / Oihu, hots
- Urrearen sinboloa
- Birikietako tuberkulosi / Etxeko erregaia
- Juntagailua / Mila
- Katuaren oihua

umore giroan

Kike Amonarriz

ESPERMA BANKUA

Gazteen artean inpotentzia arazoak ugaltzen direla eta, Migelikok, odolaz gain, hazia ere emango du. Iruñeko esperma bankura abiatu da.

Erizainak "eragiketa" burutu duen kabina erakutsi dio.

Pasa dira hamar minutu, ordu erdia, bi ordu eta Migeliko azaltzen ez.... Erizaina larritzen hasia da eta atea jo du. Erantzunik ez. Giltza orokorrarekin atea zabaldu eta barruan aurkitu du Migeliko:

- Eskerrak azaldu zaren. Oraindik ez dut lortu eta agian zuk lagunduta lortu ahal izango dut —erizainaren harridura aurpegia ikusteko modukoa zen hitz horiek entzutean—. Egin kontu, aurrena ezkerreko eskuarekin saiatu naiz. Ezinezkoa. Gero eskuinekoarekin…, okerrago. Komuneko tapakiaren kontra ere jo dut hainbatetan…, alferrik. Inola ere ezin dut zabaldu eman didazun potea!

sudokua

	3				2	4		
			4	5				6
2		1	8			5		
7						8	2	
	8			3			9	
	5	4						3
		7			9	6		2
3				7	4			
		6	2				8	

hieroglifoa

Nola ikasi behar da euskara?

A tsi
E
I tsi
O tsi
U tsi

hizki salda

Ibarrean ospatzen diren jaietako bost santuren izenak

P	E	D	R	O	U	M	A	O
M	A	I	D	I	B	A	G	M
L	I	G	E	R	A	R	P	I
M	E	K	U	A	D	T	R	G
A	D	O	N	N	A	Z	O	E
M	A	R	T	I	N	I	X	L
L	H	L	I	A	A	A	R	A
G	G	H	U	A	M	L	D	K
H	E	J	B	S	O	T	B	M

soluzioak



P	E	D	R	O	U	M	A	O
M	A	I	D	I	B	A	G	M
L	I	G	E	R	A	R	P	I
M	E	K	U	A	D	T	R	G
A	D	O	N	N	A	Z	O	E
M	A	R	T	I	N	I	X	L
L	H	L	I	A	A	A	R	A
G	G	H	U	A	M	L	D	K
H	E	J	B	S	O	T	B	M

Jerogliffikoa: Etsi gabe
E tsi gabe

6	3	5	1	9	2	4	7	8
8	7	9	4	5	3	2	1	6
2	4	1	8	6	7	5	3	9
7	6	3	9	4	1	8	2	5
1	8	2	5	3	6	7	9	4
9	5	4	7	2	8	1	6	3
5	1	7	3	8	9	6	4	2
3	2	8	6	7	4	9	5	1
4	9	6	2	1	5	3	8	7

D		B		A				
O	S	A	S	T	I			
N	A	G	E	Z				
A	K	I	T	E	H		P	
J	A	I	A		A	L	O	R
	T	R	U	S	T		N	I
P	A	R	T	A	I	D	E	
	T	I	S	I		E	T	A
G	A	S	A		M	I	A	U

bono fotoa

Ikuspuntu berezi samarretik begiratuta ere, Oñatiko eraikin hau aski ezaguna da. Zein da bere izena?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....
.....
IZEN-DEITURAK .....
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Xanpa zoru garbitzailea
Litroko botila

1,18 € 196 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ALAITZ MENDIETArendako izan da erosketa-txartela.
Galderaren erantzun zuzena: Aitzorrotz.

ARREGI SUKALDEAK

Eskaintza berezia erakusketa aldaketagatik

Eraman zuk nahi duzun sukaldea, gainera, altzari gehiago behar badituzu, prezio berean lortuko dituzu!

ARREGI AROZTEGIA

Tarimak
Parketak
Leihoak: PVC
Aluminioa
Egurra

Horma-armairuak
Sukaldeak
Oheak
Koltxoiak

ERAKUSKETA
Bidekurutzeta 38
20570 BERGARA
Tel.: / Faxa: 943 76 31 03

AROZTEGIA
Urteaga 20
20570 BERGARA
Tel.: / Faxa: 943 76 11 73

GOIENKARIA BERRITUAK

4.000

IRAKURLE GEHIAGO

2005eko azaroan, 33.000 irakurle zituen GOIENKARIAk Debagoienean.
GOIENKARIA BERRITUAk, orain, 37.000 irakurle ditu*.

- GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.
- Debagoiendarren %67,3k astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- 41.000 irakurle ditu GOIENKARIAk Gipuzkoan, horietatik 37.000 Debagoienean.

Eskerrik asko, irakurle.

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK, 2006KO MARTXOA.

Goienkaria

Iñigo Herreros > Soinu teknikaria

"Aspalditik nago ohituta asteburuetan lan egiten, eta abantailak ere baditu"

Iñigo Herreros bergararra saltsa askotan sartuta ibili da azkeneko urteotan: gazte batzarrean, Txapa Irratian, *Astindu* fantzinean... Txikitan ez zekien zer egin gura zuen, baina Soinu Teknikari ikasketak egin zituenetik buru-belarri dabil kontzertuetan soinua jartzen, eta orain dela urte batzuk Bergarako musika taldeen diskobilduma gidatu zuen.

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Herreros kontzertu askotan ikusten dugu mahaiaren atzean soinu teknikari lanak egiten. Astebururo dabil zeregin horretan. Neguan, aste barruan, berriz, snowa egiten ibiltzen da buru-belarri.

Txikitan formala zinen?

Ez, oso gaiztoa. Bai ikastolan, bai etxean... Kristorenak egiten nituen. Amak orain dela gutxi kontatu zidan bi urte bete barik nituela herriko jai batzuetan plazatik barraketara alde egin nuela. Denbora luzean nire bila ibili omen ziren, eta azkenean barraketako langile baten eskuetan aurkitu ninduten.

Eta ikasle txarra zinen?

Bai, oso txarra. Institutuan hiru kurtso egiteko zazpi urte egin nituen. Ia estatua bat jarri zidaten han! Geroago konturatu nintzen nire gustuko gauza bat egitekotan emaitza onak ateratzen nituela.

Irudiaren eta Soinuaren ikasketengatik diozu, ezta? Noiz erabaki zenuen hori ikasi gura zenuela?

Bai, ikasketa horiek neuk ordaindu nituen eta asko motibatu nintzen gustuko dudalako. Oso nota onak atera nituen.

Lagun bati esker joan nintzen Andoainera hori ikastera. UBI egiten nenbilela ikasketak utzi eta lan egiten hastea erabaki nuen. Igerilekuko tabernan lanean hasi nintzen eta fabrikaren batera joateko asmoa nuen. Halako baten, Institutuko Joxe Mari irakasleak esan zidan tontoarena ez egiteko eta beste zerbait ikasteko; ez zuela merezi hain gazte lanean hastea. Eskerrak kasu egin niola!

Ordurako Soinua ikasi gura zenuen?

Ez, oraindik ez neukan ezer erabakita, eta berez argazkilaritza gustuko nuelako joan nintzen hara. Proba egiteko joan nintzen eta Soinua ikasten hasi ginenean nik gustuko nuena soinua zela konturatu nintzen. Horren espezialitatea ikasi nuen, eta beste ikasle batekin, Amaia Isasarekin, Donostiako grabazio estudio baten ere asko ikasi genuen.

Eta lanean hasi zinen epe laburrean?

Bai, ikasketak bukatu aurretik Soinua enpresan lanean hasi nintzen eta bi urte egin nituen han. Asko ikasi nuen han. Horrez gain, Euskadi Irratian praktikak egin nituen, eta geroago irratirako kontratatu ninduten. Andoaingo ikasketek ate asko zabaldu dizkidate.

JOSETXO ARANTZABAL

Zure kontu lan egitea erabaki zenuen, R Sound izenpean.

Bai, ikusi nuen irratiko teknikarien egoera ez zela ona, eta aurreztutako diruarekin soinu ekipo bat erosi nuen Bartzelonan. Justu orduan Bergarako gaztetxea zabaldu genuen. Irailean ekipoa erosi eta hamabost egunera Señor Noren kontzertu bat egin genuen gaztetxean. Soinua desastre hutsa izan zen, oraindik gauza gutxi nekielako.

Handik aurrera, asko ikasi dut eta gero eta leku gehiagotik deitzen didate. Horren ostean, irabazitakoarekin ekipoa handitzen joan naiz.

Zer moduzkoa da astebururo lan egitea? Ohitu zara?

Aspalditik nago ohituta. Lehen, herriko jai guztietan tabernetan lan egiten nuen. Horren ostean, sasoi baten aste barruan Andoainen ikasteaz gain, astebururetan Soinua enpresan lanean nenbilen. Eta Euskadi Irratian ere astebururetan lan egiten nuen. Desabantaila handiak ditu astebururetan lan egiteak, beste guztiek jai dutenean guk lan egiten dugulako. Niretzat abantaila da, snowa egitea oso gustuko dudalako eta neguan aste barruan horretarako denbora izaten dudalako.

Oso musika-zalea zara. Ez zara aspertzen hainbeste kontzertu ikusten?

Bai, oso musika-zalea izan naiz, eta kontzertu askotara joan naiz. Adibidez, gogoan daukat sasoi baten astebururo Bap! eta Anestesia ikustera joaten ginela. Horrez gain, hainbat urtean gaztetxean kontzertuak antolatzen ibili nintzen. Baina, egia esanda, aspaldi honetan, lanarekin asko bateratu dudalako-edo, libre izan dudanean kontzertuak ikusteko lehen neukan irrika baretu egin zait.

Txapa Irratian luzaroan ibili zara?

Bai, 90eko hamarkada hasieran saio batzuk egin nituen eta horren ostean lanagatik utzi egin nuen. Horren ostean, 90eko hamarkada bukaeran bueltatu egin nintzen, baina orain dela gutxi utzi egin dut. Tarteka teknikari lanak egiten ditut.

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 30 urte. **Ikasketak:** Irudia eta Soinua. **Zaletasunak:** Musika, kontzertuak ikusi, snowa egin eta kirola ikusi. **Zelan ikusten duzu zure burua 25 urte barru?** Gurako nuke musika talde on baten teknikaria izan eta bikotekidearekin egotea. **Prentsa, irratia, telebista ala Internet?** Irratia. Bergaran banago, Txapa jartzen dut ondo entzuten den jakiteko; eta kanpoan, beste irrati batzuk. **Debagoieneko txokorik politena?** San Martzial, sarri joaten naiz hara. Bestela, udan, Albina.

PARTE-HARTZEA Blogarekin herritarrengana hurbildu eta herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte. GOIENKARIA

BLOG BERRIA > EUSKARA BIZIBERRITZEKO BITARTEKOAK

Bloga dauka Arrasateko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ere

Arrasaten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen dihardutenek bloga egin dute 'Goiena.net'-en; herritarrekin harreman zuzena izan gura dute erreminta horren bitartez

kin, herrian euskarak bizi duen egoeraren diagnosia egin zuten sei hilabeteko epean. Diagnostikoa eginda, euskara herrian, alor guztietan, adin guztietan, eguneroko bihur dadin lanean dabiltza. Momentuotan, Plan Estrategikoa bideratzen dabiltza eta beharrezko ikusi dute sarera jauzi egitea; blogaren aldeko apustua egin dute.

Oso erreminta egokia iruditu zaie. Joxe Etxebarria Arrasateko Udaleko ordezkariaren esanetan, "euskara ez da geratzen gauza modernoetatik kanpo. Gainera, gure artean eta lan egin nahi dutenen artean komunikazio azkarra ahalbidetzen du sistema horrek. Oso praktikoa da". Helbide honetan dago: *www.goiena.net/blogak/aebpn*.

KOMUNIKAZIOA AZKARTU

Helburu bikoitza lortu gura dute blogaren bitartez. "Hau da erreminta bat jendeari gure proiektua aurkezteko eta, era berean, herritarrengandik ideiak jasotzeko", dio Karmele Zuazubiskarrek, Euskara Biziberritzeko Planaren teknikariak.

Bi dira, era berean, blogaren diseinuaren aldetik, azpimarratu nahi izan dituzten ideiak: "Azpimarratu nahi genuen bloga Arrasateko zerbait dela, eta horregatik ipini dugu neurri handiagoan Arrasate hitza. Horrez gain, eta kontuan izanik datozen urteetan lan egin beharko dugula haur eta gazteei zuzenduta, eurak aukeratu ditugu goibururako. Transmititu nahi dugu hau dela zerbait bizia, denen artean egiten joango garena", esan digu Karmelek.

Blogak eskaintzen dituen abantailez baliatu nahi dute; izan ere, batez ere jendearen parte-hartzea eta komunikazioa areagotzea ahalbidetzen du blogak.

PUBLIZITATEA > FAGORREN KANPAINA BERRIA

Fagorren ontzi-garbigailu berriak spot batean

3.300.000 euro inbertitu ditu Fagorrek publizitate kanpaina berrian

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Fagor Etxetresnak enpresak publizitate kanpaina berria abiarazi du. Hain justu ere, telebista nagusietan emititzeko spot berria aurkeztu berri du. Fagorrek 3.300.000 euro inbertitu ditu kanpaina honetan eta urrira arte hiru sasoitan eskainiko du spota. Lehenengoa ekainaren 14an hasi zen eta uztailaren 5era arte iraungo du. 10, 20 eta 30 segundoko spotak prestatu dituzte.

'FAGORREKIN DENA ERRAZAGO'

Kanpainan nabarmendu nahi izan dute: Fagor ontzi-garbigailuen ergonomia, 8 kiloko karga har dezaketela, oso erabilerrazak direla eta eskotila handiagoa dutela. Kanpainaren leloa da: *Fagor ontzi-garbigailuekin, dena da errazagoa*. Young & Rubicam agentziak egin du.

IRUDIMENA Umearen irudimena da spot berriaren ardatza. GOIENKARIA

> IKUS-ENTZUNEZKOAK

Telebista, irratia, Internet eta argazkigintzarako gela multimedia berria ipini dute HUHEZIn

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioan diharduten ikasleek prest dute gela multimedia bat, erabat digitala eta material berriarekin hornitua. Gela horretan argazkigintza landuko da, edizio elektronikoa, multimedia produkzioa, bideo produkzioa eta audio produkzioa. Angel Katarain soinu ingeniaria arduratu da instalazioen audioa fintzen.

> TELEBISTA

ETB-1eko 'Bertatik bertara' saioa kendu egingo dute datorren astean, 11 urte egin ostean

Ekainaren 28an emango dute ETB-1eko *Bertatik bertara* saioren azken atala. 1995. urtean hasi zen emititzen, eguerdietan, Andoni Aizpuruk aurkeztuta eta Uxue Barkosen zuzendaritzapean. Ordutik hona aurkezle eta zuzendari bat baino gehiago izan ditu saioak. Oihana Elortza oñatiarra, Unai Loidi eta Itxaro Zubillaga aretxabaletarrak, besteak beste, kazetari lanetan jardundakoak dira. Datorren denboraldian *Mihiluze* emango dute *Bertatik bertara*-ren orduan.

Orain, 0 km-dun **MITSUBISHI** 4x4 ibilgailuak ere baditugu. **Etor zaitez ikustera!**

MITSUBISHI autoen mantentze-lanak ere egiten ditugu, jatorrizko ordezko piezekin.

ETOR ZAITEZ:

TALLERES CHAPIME

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

San Andres Auzoa 5. Tel.: 943 79 45 22.

CITROËN
CITROENEK EDOZER EGIN DEZAKE ZUREGATIK

berriak

> 'HARMAILATIK'

Segurako txirrindularitza proba eta Benito Ros

Segurako San Juan Txirrindularitza sariaren 48. ekitaldia jokatuko da domekan. Lasterketa amateur mailako Euskalduna Txapelketarako baliagarria da eta *Harmailatik* saioan probaren laburpena eskainiko dute astelehenean, 21:15ean. Bestalde, Benito Ros munduko bike trial txapelduna Arrasaten izango da asteburuan, erakustaldia egiten; haren gaineko erreportajea ere eskainiko dute.

> EUSKAL DANTZAK

Segurako txapelketa zapatuan eta domekan GOITBn

Domekan Dantza Solteko Euskadiko Txapelketa jokatu zen Seguran. Hamabi bikote izan ziren lehian eta iaz bezala, Azpitarte anai-arrebek lortu zuten garaipena. Era berean, Bergarako dantzariak bikain aritu ziren Seguran. Zapatuan, 14:45ean, eta domekan, 22:30ean, dantzarien saioa ikusteko aukera izango duzue GOITBn. Goierri Telebistak grabatutako irudiak eskainiko dituzte.

> ARRASATE IRRATIA

Udan sartu garela-eta, Pello Zabala izan zen gurean

Aurten ere iritsi da udako solstizioa. Eguaztenean sartu ginen udan eta Pello Zabala gonbidatu genuen, udaren, solstizioaren eta San Juan gauaren inguruan dauden ohiturak eta sinismenak kontatzeko. Zeltek zuten egutegiaren gaineko kontuak, kristautasuna nola joan zen lehengo ohiturak bereganatzen eta sinismen berrietara egokitzen eta beste hainbat kontu azaldu zigun Pello Zabalak.

> ARRASATE IRRATIA

Saharako Tinduf kanpalekura joateko bidaia gertatzen

Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako hainbat ikasle eta irakasle Tinduf errefuxiatuen kanpalekura joango dira abenduko zubian. Orain buru-belarri dabiltza guztia gertatzen eta dirua batzen.

Arrasate Irratian Ander Elkoro, Leire Baltzategi eta Marta Calderon izan dira oraingo astean, esku artean duten proiektuaren berri emateko. San Juan jaietan ere lanean ibiliko dira bidaia egin ahal izateko.

'JAIAK 2006: ARRASATE' > MARTITZENA, 21:15

San Juanen gaineko saio berezia martitzenean

Jaietako irudirik freskoenak eta protagonisten adierazpenak martitzenean

GOIENKARIA > ARRASATE

San Juan jaietan murgilduko da Arrasate egunotan. Ekitaldiz beteta izango da aste bukaera eta kaleko giroa zein jaietako protagonisten irudiak jasotzeko ahalegin berezia egingo dute GOITBko kazetari eta kameralariek. Zalantzarik ez, girorik ez da faltako Arrasaten. Horrela, GOITBko ikus-entzuleek jaietako giroarekin berriro gozatzeko aukera izango dute martitzenean. Jaietako saio berezia 21:15ean eskainiko da: elkarrizketak, irudirik freskoenak eta ekitaldi esanguratsuenei gainbegiratua, besteak beste.

SAN JUANAK Jai giroa izango da nagusi Arrasaten. GOIENKARIA

'DEBARRI' > EGUAZTENA, 21:45

Arritxu Oliden, Aretxabaletako alkatea, 'Debarri'-ko protagonista

GOIENKARIA > ARRASATE

Eguaztenean, ekainaren 28an, Arritxu Oliden Aretxabaletako alkatea izango da *Debarri* saioko gonbidatua. Ohikoa denez, Alberto Gorritiberea kazetari debarrak elkarrizketatuko du, 21:45ean hasita. Udalak egindako lanaren eta etorkizuneko proiektuen berri arituko dira solasean Oliden eta Gorritiberea.

Arritxu Oliden 2003a ezkero dugu Aretxabaletako alkate: EAJ-EA koalizioko zerrendaburua izan zen eta joan den apirilera arte Aralar eta Ezker Batua izan ditu gobernu-kide Udalean. Hain zuzen ere, udal gobernua haustea, kultur etxe berriko lanak edota etxebizitzen arazoa izango dira eguazteneko *Debarri* saioan aztergai izango dituzten gaietako batzuk.

Ohikoa denez, alkateari galderak egiteko aukera izango dute ikus-entzuleek. Interesatuek *goiena.net*-eko eztabaidagunera jo dezakete hurrengo egunetan. Era berean, Internet erabiltzeko aukerarik ez dutenek 943 71 23 96 telefono zenbakira dei dezakete kezkak edo galderak planteatzeko.

telebegi

Edu Mendibil

Sobera nonahi

Telebistaren mirari txikiak: domekan bizarra ondo moztuta estreinatu zuen Carlos Soberak *El invento del siglo* (Antena 3) eta astelehenean kokospekoa hazita zeukan *Date el bote*-n. Ramon Garciaren markak hausteko bidean da, han eta hemen agertzen baita Sobera. *Date el bote* eta *¿Quieres ser millonario?* saioekin izan du arrakasta gehien, pantailan daramaten denborari erreparatuta behinik behin. *Date*... ETBko lehiaketarik zaharrena da, 1.000tik gora saiorekin.

Betiere Sobera da izarra, lehiakide guztien gainetik. *¿Quieres…?* aurkezten moderatuagoa bada ere, *Date*-n erraz jausten da gehiegikeriatan. Ia dena da libre, neurrigabeko bakarrizketa balitz. Galdera tontoak jaurti (*Según el dicho popular*, *¿qué prenda nueva te tienes que poner el sábado sabadete?*) eta lehiakideekin graziak (*Estáis concentrados como el caldo... ¡Parecéis pastillas de Avecrem!*) egiten diharduen bitartean, bere buruaz harro dagoela argi erakusten du. Barre algara onak egiten ditu bere txisteekin, ni bezalako ikusleak *zapping* egitera bultzatuz. Zenbaitetan soberan dago Sobera.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 San Juan jaietako saio berezia. Arrasate Irratia urtero bezala kalean izango da, entzuleei jaiaren barruan gertatzen denaren berri zuzen-zuzenean emateko. Kaleko giroa, beraz, etxeraino eta bazter guztietaraino eramango du Arrasate Irratiak San Juan egunean.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua. Ander Elkoro, Leire Baltzategi eta Marta Calderon Arizmendi Ikastolako ikasleak abenduan Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara joango dira. Pello Zabalak udako solstizioaren gainean hitz egingo du. Irene Zenitagoiak loreei buruz. Nerea Maiztegi Deba ibaiaren zati bat garbitzen ibili zen...

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Sariak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepikapena).

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 23
13:15 Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. . **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza -Irak. **15:30** M1. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu - Deiane Arrieta **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire 2 **17:30** Eltze beroa- limoi tarta **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean - Amuriza **18:15** Teknopolis. **18:45** Albiste aurrerapena . **19:00** Klipak. **19:15** Jazz . **19:45** Albisteak - Julen Iriondo **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Berriak. **21:15 Behazulo** **21:45** Albisteak- Julen Iriondo **22:15** Ilunpean-Rafa Rueda **22:45** Berriak - Deiane Arrieta **23:15** Didjeridu - Deiane Arrieta**23:45** Albisteak **00:15** Emisio amaiera.

Zapatua, 24
07:55 Emisio hasiera **08:00** Marrazki bizidunak bilduma **10:50** Astekoak. Informazio saioa **11:00** Jazz **11:30** Klip **12:00** Didjeridu: Deiane Arrieta **12:30** Eltze Beroa-Limoi tarta **13:00** SanJuanak2005 **13:30**Debarri-Bergara **14:30** Astekoak**14:45** Segurako dantza sueltoa **15:15** Marrazkiak - Snorkeldarrak **16:00**Bihurkorrak **17:00** Card **18:00** Teknopolis **18:30** Berbaire. **19:00**Sustraia. **19:30**Harmaillatik berezia **20:00** Astekoak **20:15** MKT. **20:30** Behazulo - Gelma **21:00** Elkartasun bideak **21:30** Ilunpean- Rafa Rueda **22:00** San Juanak 2005 **22:30** Didjeridu- Deiane Arrieta **23:00** Klipak **23:30** Debarri -Bergara **00:30** Emisio amaiera.

Domeka, 25
07:55 Emisio hasiera. **08:00** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Behazulo - Gelma **11:30** Ilunpean-Rafa Rueda **12:00** Berbaire. **12:30** Harmailatik berezia **13:00** Munduari bueltaka-AEB .**13:30** Erreportaia-Yoga **13:50** Astekoak 14:00 Teknopolis . **14:30**Klip **15:00** San Juanak 2005 **15:30** Debarri-Bergara 16:30 Marrazki - Card Marrazkiak. **17:15** Didjeridu- Deiane Arrieta. **17:45** Klip **18:00** Harmaillatik berezia **18:30** Jazz **19:00** Elkartasunaren bideak **19:30** ilunpean-Rafa Rueda. **20:00** Behazula-Gelma 20:30 San Juanak 2005 **21:00** Berbaire. **21:30** Debarri-Bergara **22:30** Segurako dantza sueltoa **23:00** Eltze beroa 23:30 Didjeridu-Deiane Arrieta **00:00** Astekoak.

Astelehena, 26
13:15 Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo - Gelma **14:15** Eltze beroa- Legatz betea **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** Munduari bueltaka- AEB **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Ilunpean- Rafa Rueda **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Didjeridu- Deiane Arrieta **17:30** Zera dio Elortza/Iturbe **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire **18:15** Sustraia **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Behazulo - Gelma **19:45** Berriak- Deiane Arrieta. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak- Goiatz Arana. **21:15** Harmailatik Segurako froga. **21:45** Berriak **22:15** Harmailatik. **22:45** Berriak **23:15** Jazz**23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

Martitzena, 27
13:15 Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak-Card **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz **14:15** Zera dio **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Harmailatik Segurako froga **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Jazz **17:30** M2.Danbaka- Muted. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea - Satur Goia **18:15** Munduari bueltaka-AEB **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Harmailatik -Segurako froga**19:45** Albisteak- Julen Iriondo **20:15** Marrazki bizidunak eta zorion agurrak. **20:45** Berriak. **21:15** Ilunpean-Rafa Rueda. **21:45** Albisteak. **22:15** Berbaire1. **22:45** Berriak **23:15** Behazulo.**23:45** Albisteak. **00:15** Emisio amaiera.

Eguaztena, 28
13:15 Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire1 **14:15** M2Danbaka- Muted **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** San juanak 2006. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Teknopolis **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire1. **17:30** Zera dio Elorza/iturbe **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu - Deiane Arrieta**19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak. **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis **21:45** Gaurkoak 21:47 Debarri - Aretxabaleta **22:45** Berriak **23:15** San Juanak 2006 **23:45** Albisteak. **00:15** Emisio amaiera.

Eguena, 29
13:15 Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Segurako dantza txapelketa. **14:15** Zera dio **14:30** M1. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Sustraia. **15:30** M1.**15:45** Gaurkoak.**15:47** Debarri- Aretxabaleta.**16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jazz. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak.**17:47** Elkartasun bideak.**18:45** Iparrorratza - Irak.**18:45** Albiste aurrerapena.**19:00** Klipak. **19:15**: Erreportajea. **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazkiak. **20:45** Berriak.**21:15** Sustraiak.**21:45** Albisteak.**22:15Didjeridu 22:45**Berriak:**23:15 berbaire**ra23:45Albisteak 23:15Emisio amaiera.

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA **II. LEHIAKETA**

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 2ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria
Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala
Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 8 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.

2 • **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.

3 • **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:

kiñu argazkilariak

Barceló Bidaiak

GURE AMETSA JATETXEA

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 21:00etara

Ekainak 23-30

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

Zinema

ELGETA
> Jim Jarmusch zinegilearen 'Coffee and cigarettes' filma emango dute

Coffee and cigarettes kultuzko filma emango dute eguaztenean, Espaloia antzokian, 21:30ean. 11 istoriok osatzen dute, kafea eta zigarroak elementu komun bakarra direla. Roberto Benigni, Iggy Pop, Tom Waits… azaltzen dira.

Antzerkia

ARRASATE
> 'Todos nacemos vascos' antzezlana egingo dute domekan Arrasaten

Glu Glu taldeak *Todos nacemos vascos* antzezlan komikoa egingo du Monterron parkean 22:30ean. Jabugoko Lola txurrogilea da protagonista. Zerura joan da, eta han, hura ere, beste edozein moduan, euskalduna dela jakingo du.

Jaialdia

LEINTZ GATZAGA
> Ludotekako ikasturte bukaerako jaia izango dute Gatzagako umeek

Gaur, egubakoitza, itxiko ditu ateak ludotekak, udan atseden hartzeko. Horregatik, jaia egingo dute San Migel plazan, 17:30ean. Desfilea, txokolate jana eta musika izango dituzte hara joaten diren ume eta guraso guztiek.

Musika

OÑATI
> Gipuzkoako bi abesbatzak emanaldia egingo dute

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eskutik, Lezoko Txinparta eta Mutrikuko Madalen abesbatzek emanaldia egingo dute.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 12:30ean.

ARRASATE
> Doctor Deseoren eta Rafa Ruedaren kontzertua

Doctor Deseo taldeak eta Rafa Rueda bakarlariak kontzertua egingo dute Monterron parkean.

Bihar, zapatua, 23:30ean.

BERGARA
> Lagwagon taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan

Lagwagon talde kaliforniarrak punk melodiko estiloko kontzertua egingo du. Hasieran Section 8 deitzen zen talde hori. Beste talde batek ere joko du gau berean.

Sarrerak salgai daude 19,60 eurotan.

Hilaren 29an, eguena, 21:00etan.

ANTZUOLA
> Niko eta Dominike Etxarten eta Mikel Markezen kantaldia

Niko eta Dominike Etxartek eta Mikel Markezek euskal kantu tradizionalak abestuko dituzte.

Hilaren 30ean, egubakoitza, Antiguako baselizan, 22:30ean.

Erakusketak

ESKORIATZA
> Antzinako jaietako argazkiak Ibarraundi museoan

Eskoriatza jaixetan izenburuarekin, lehengo San Pedro jaietako argazkiak batuko dituzte Ibarraundi museoan. Horko lagun batzuk ezagutzeko eskoriatzarren laguntza behar dute.

Hilaren 27an, martitzena, zabalduko dute erakusketa.

ESKORIATZA
> 'Herri janzkerak' izeneko erakusketa antolatu dute

Herri janzkerak izenburuarekin, baserritarren jantzi tipikoen erakusketa dago Inkernu tabernan.

Uztailaren 1era arte zabalik.

ELGETA
> Mari Carmen Laskurain bergararraren erakusketa

Mari Carmen Laskurain bergararrak margolan erakusketa dauka Espaloia antzokian. 18 lan batu ditu, denetariko gaiekin: paisaiak, loreak, natura hilak…

Ekainaren 28ra arte zabalik.

BERGARA
> Beart elkarteko ikasle gaztetxoek erakusketa ipini dute

Beart elkarteko ume eta gaztetxoek ikasturte bukaerako erakusketa ipini dute Nahikari tabernan.

Uztailaren 9ra arte dago zabalik.

Antzerkia

ARRASATE
> Umeendako kale antzerki emanaldia egingo dute

Yarleku taldeak *Numenak* izeneko antzezlana egingo du, umeei zuzenduta.

Astelehenean, hilak 26, Seber Altube plazan, 18:15ean.

ANTZUOLA
> Bertso antzerki emanaldia egingo dute domekan

1, 2, 3…, Inaxito izeneko bertso antzerkia egingo dute etzi, domeka, Udal Kultura batzordeak antolatuta.

Zurrategi plazan izango da.

Lehiaketak

ARETXABALETA
> Andra Mari jaietako kartel eta esaldi lehiaketak

Andra Mari jaiak iragartzeko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udal Kultura batzordeak.

50 x 70 cm-ko kartelak behar dituzte, estilo eta teknika librean, eta honako testua eraman behar dute: *Andramaixak 2006, Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta*. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

Bestetik, jaietako leloa aukeratzeko sariketa ere badago 13 urtetik gorako aretxabaletarrendako. Egitarauan erabiliko den esaldia asmatzen duenari 120 euro emango dizkiote, eta 60 euroko sariak ere badaude.

Bietarako mugaeguna, ekainak 30.

OÑATI
> San Migel jaien programako azala aukeratzeko lehiaketa

Herriko jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, oñatiarrendako eta Oñatin bizi direnendako. Lanak egiteko teknika librea da, eta derrigorrez agertu beharko da honako testua: *Oñatiko jaixak 2006*. Lanak turismo bulegoan edo kultur etxean utzi behar dira.

250 eta 125 euroko sari bana dago.

EUSKAL HERRIA
> III. Euskal Herriko Grafiti Lehiaketa antolatu dute

Hirugarren aldiz antolatu du Topaguneak Euskal Herriko grafiti lehiaketa, eta taldeek egin nahi dituzten grafitien zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago abuztuaren 31ra arte. Lehiaketa irailaren 16an jokatuko da, Tolosan.

Argibideak, *gazteak 2@topagunea.com* helbide elektronikoan.

Jaiak

ANTZUOLA
> Kalebarrengo jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Honako ekintzak izango dira: erromeria (gaur, egubakoitza); marrazki lehiaketa, soinu-joleen emanaldia, umeendako jolasak, zuhaitza jasotzea eta beste batzuk (bihar, zapatua) eta goizeresia, meza, mus txapelketa eta kale antzerkia (etzi, domeka).

Zuhaitza jasotzea, ekintza nagusietako bat, zapatu arratsaldean egingo dute.

ESKORIATZA
> San Pedro jaiak ospatzen hasiko dira eguaztenean

San Pedro bezperarekin hasiko dira herriko jaiak ospatzen. Egun horretan, txupinazoa, kalejirak, dantzaldia, helduen danborrada… izango dira. Eguenean, San Pedro egunean, udal korporazioaren prozesioa elizaraino, meza nagusia, pilota partiduak… izango dira.

Uztailaren 1era arte ospatuko dituzte San Pedro jaiak.

Bestelakoak

ANTZUOLA
> Lore apainketa lehiaketako sariak banatuko dituzte

10. aldiz jokatu da Balkoi eta Leihoetako Lore Apainketa Lehiaketa, eta sariak gaur, San Juan bezpera eguna, banatuko dituzte.

Herriko plazan izango da, 20:15ean.

PROPOSAMENA

ESKORIATZA
> Suaren gainetik salto egin ahal izango da San Juan jaian

Debagoien osoan ospatuko da San Juan gaua, suarekin. Eskoriatzarrek, bereziki, jai horren sena berreskuratu gura dute, eta berritasunak daude aurten.

Hala, aurten, lehenengo aldiz, suaren gainetik salto egiteko aukera izango da. Beste berritasun bat hauxe da: 1989an jaiotako emakumeek piztuko dutela sua, 22:30 inguruan.

Sua, euskal dantzak… izango dira beste herri gehienetan ere.

San Juan gaua ospatuko dute gaur, egubakoitza.

nire aukera

Rosa Urreta
Guraso elkarteko kidea
Leintz Gatzaga

"Arizkungo San Juan jaietara noa asteburuan"

Baztango Arizkun herrira joango gara. San Juan sua egiten dute baserri edo etxe bakoitzaren aurrean, eta herriko gizon guztiek, adin guztietakoek, mutil dantzak egiten dituzte. Oso ospakizun polita da, euskal sena erakusten duena.

Egubakoitz gaua Erratzuko kanpalekuan emango dugu. Zapatuan Uritzate mendira joango gara. Paraje ederra da. Gauean Arizkungo ospakizunetara joango gara. Domekan Xorroxin edo Amaiurren buelta bat eman, eta etxera etorriko gara.

Garraiobide gustuko bat?
Gu furgonetan asko ibiltzen gara; oraingoan ere horrekin joango gara. Oso gustura ibiltzen gara.

Munduko edozein lekutan asteburua ematekotan?
Brujas hiria oso ederra iruditu zitzaidan, eta edozein egunetan itzuliko nintzateke.

Beste herri batzuetako sukaldaritza probatu duzu?
Italiarra da gehien gustatzen zaidana. Ez naiz oso ausarta gauza berriak probatzeko, eta italiar sukaldaritza hemengoaren oso antzekoa denez...

Harritu zaituen paisaia natural bat?
Dolomitetako haitzak txundigarriak dira.

Bidaia baterako zein liburu eramaten duzu?
Zerbait arina, irakurterraza, Noah Gordon-en zerbait, adibidez.

Urteko sasoi bat?
Udazkena. Euskal Herrikoa zoragarria da.

Zinema

EIBAR

UNZAGA

Scary movie 4
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Vecinos invasores
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena eta martitzena: 19:30. .

Novia por contrato
Egunero: 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

X-Men: la decisión final
17:30, 20:00, 22:30.

Scary movie 4
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

El código Da Vinci
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 16:45, 19:40, 22:35.
Domeka: 17:30, 20:30.

Shutter
17:30, 20:00, 22:30.

Vecinos invasores
17:00, 16:45, 18:30, 22:30.

La profecía
17:30.

El color del crimen
20:00, 22:30.

Tiempo de valientes
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La educación de las hadas
17:30, 20:00, 20:30.

Julieta, fokatxo xelebrea
17:30, 19:00.

Scary movie 4
17:30, 20:00, 20:30

Hacia el sur
17:30, 20:00, 20:30.

No estoy hecho para ser amado
17:30, 20:00, 20:30

El asesinato de Richard Nixon
20:00.

Malabar princess
17:30, 20:00, 20:30.

¡Y tú qué sabes?
20:30, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Vecinos invasores
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Sin miedo
20:00, 22:00, 00:30.

Malabar printzesa
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Ice age 2
16:00, 18:00, 20:00.

Misión imposible 3
22:00, 00:30.

Cuando llama un extraño
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

X-Men: la decisión final
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Plan oculto
16:30, 19:00.

Salvaje
16:00, 18:00.

El código Da Vinci
17:00, 20:00, 23:00.

Mala leche
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Rosario Tijeras
22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

En la tiniebla
12:15, 15:40, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

El asesinato de Richard Nixon
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Vecinos invasores
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

X-Men: la decisión final
12:15, 15:55, 18:05, 20:20, 22:35, 00:55.

Ultravioleta
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:00.

El código Da Vinci
12:15, 16:15, 17:40, 19:15, 20:40, 22:15, 23:45.

Devuélveme mi suerte
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Salvaje
12:15, 16:05, 17:45.

Shutter
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Diario de un ejecutivo agresivo
20:40, 22:40, 00:40.

Misión imposible 3
19:30, 22:00, 00:30.

Salto a la fama
12:15, 16:40, 18:40.

La niñera mágica
12:15, 15:30, 17:30.

La profecía
12:15, 15:35, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

La educación de las hadas
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Caos
19:45, 21:50, 23:55.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).
Aste honetan, film laburrak emango dituzte film batzuen aurretik.

ÁBACO BOULEVARD

X-Men: la decisión final
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

En la tiniebla
12:10, 17:00, 19:45, 22:10, 00:45.

Misión imposible 3
12:00, 19:30.

Diario de un ejecutivo agresivo
12:00, 16:05, 18:05, 20:10.

Volver
20:00, 22:30, 01:00.

Camino a la gloria
17:00, 22:05, 00:30.

Ice age 2
12:15, 16:15, 18:05.

Mujeres infieles
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

El asesinato de Richard Nixon
22:10, 00:30.

El código Da Vinci
12:00, 16:30, 19:30.

La profecía
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

Shutter
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Vecinos invasores
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Ultravioleta
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Devuélveme mi suerte
12:10, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Camino a Guantánamo ***

Zuzendariak: Michael Winterbottom, Mat Whitecross.
Aktoreak: Ruhel Ahmed, Asif Iqbal, Shafiq Rasul.
Erresuma Batua, 2006.
100 min. Drama.

Camino a Guantánamo-rekin, Michael Winterbottom eta Mat Whitecrossek fikzioaren bidez errealitatea islatu nahi dute. Zinema erabiltzen dute gertatutako istorio bat ezagutarazteko, eta irudiek duten indarrarekin, honek behar duen sinesgarritasuna eta indarra lortzen du. Zuzendariek filmari dokumentalen itxura eman diote: kamerak filmatzeko momentuan mugimendua du, muntaia egiteko modua, apaindura gutxiko irudiak erabiltzen dituzte. Osagai horiekin, irudiei zuzenean hartutako irudien itxura eman nahi zaie. Aktoreen bitartez, pertsonaiak jasandako odisea birsortzen dute eta, irudiei lotura emateko, istorioaren benetako protagonisten testigantzak erabiltzen dituzte.

Camino a Guantánamo oso film ausarta da, fikzioa eta errealitatea, artxiboko eta fikziozko irudiak elkartzen ditu, momentu egokian, denbora pasatzen utzi gabe eta gaia oraindik pil-pilean dagoenean, munduko potentzia handien portaera lotsagarria salatzeko. Zuzendariek ez dute sentimentaltasunean erori nahi, pertsonaiak pertsona arruntak dira, euren bitartez edozeini gerta dakiokeen istorio bat kontatu nahi dute. Ingalaterratik Pakistanera doazen mutil gazte batzuen bidaiaren bitartez, gaur egungo egoeraren orokortasuna, lurralde desberdinetako (Pakistan, Afganistan) giroa eta Guantanamon jasandako tratu lotsagarriak erakusten dituzte. Irudiek duten itxura errealistan datza filmaren indar nagusia.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

La profecía ***
AEB, 2006. Zuzendaria: John Moore. Aktoreak: Julia Stiles, Liev Schreiber, Mia Farrow, David Thewlis.
110 min. Beldurrezkoa
Kathryn Thorne-ren umea hil egiten da erditzean. Berari ezer esan gabe, senarrak beste ume bat onartzen du seme bezala. Baina, hazten denean, antikristoa dela konturatuko dira.

La educación de las hadas
Espainia-Frantzia-Portugal-Argentina, 2006. Zuzendaria: José Luis Cuerda. Aktoreak: Ricardo Darín, Irène Jacob, Bebe, Glòria Roig.
103 min. Drama.
Nicolás-ek, *Ingrid*-ek eta honen semeak, *Raúl*-ek, familia osatzen dute, baina egun baten, *Ingrid*-ek bikotea apurtu egiten du. *Nicolás* edozertarako gertu dago berarekin jarraitzeko...

Malabar printzesa
Frantzia, 2004. Zuzendaria: Gilles Legrand. Aktoreak: Jacques Villeret, Jules Angelo Bigarnet.
94 min. Drama.
Tom-en, 8 urteko mutikoaren ama Mont-Blanc-en desagertu zen orain dela bost urte. Aitonarekin urtea pasatzera joaten denean, Mont-Blanc-en istripua izan zuen *Malabar Princess* hegazkinaren berri izango du.

Salto a la fama
AEB, 2006. Zuzendaria: Paul Weitz. Aktoreak: Hugh Grant, Dennis Quaid, Mandy Moore.
107 min. Komedia.
Errealitate-telebistaren parodia hau *American Dreamz* telesaioan girotuta dago. Ustez talentua duten pertsonak joaten dira saiora. Arrakasta handia du, baina orain, *Martin Tweed* aurkezleak arrakasta gorenera eraman nahi du.

Mujeres infieles
Txile, 2004. Zuzendaria: Rodrigo Ortúzar. Aktoreak: María José Prieto, Lucía Jiménez, Gabriela Aguilera.
107 min. Komedia dramatikoa.
Cecilia Ureta-k, Txileko albistegi ikusieneko aurkezleak, ikerketa baten emaitzak jakinarazten ditu: txiletar emakumeen %62 bikotekidearen bizkarrera tranpetan dabiltza edo ibili dira. Paradoxikoki, aurkezlea bera tranpetan dabil kateko jabearekin.

Shutter
Tailandia, 2004. Zuzendaria: Banjong Pisanthanakun eta Parkpoom Wongpoom. Aktoreak: Ananda Everingham, Achita Sikamana.
97 min. Beldurrezkoa.
Tun eta *Jane*-k oinezko misteriotsu bat harrapatzen dute errepide galdu baten. Ihes egiten dute eta hirira itzultzen dira. Baina fenomeno beldurgarriak gertatzen hasten zaizkie, eta lagunak banan-banan hiltzen hasten dira.

No estoy hecho para ser amado
Frantzia, 2005. Zuzendaria: Stéphané Brizé. Aktoreak: Patrick Chesnais, Anne Consigny, Georges Wilson.
93 min. Komedia dramatikoa.
Jean-Claude -k 50 urte ditu eta gatz bako bizitza du. Halako baten, tangoa ikastea erabakitzen du etxe parean duen akademia baten.

El juego de los idiotas
Frantzia, 2006. Zuzendaria: Francis Veber. Aktoreak: Daniel Auteuil, Kristin Scott Thomas.
95 min. Komedia.
Elena modelo ederrarekin emazteari tranpatan harrapatu du argazkilari batek *Pierre Levasseur* diruduna. Dibortzioa galarazi nahian, amorantea argazkian agertu den ezezagun batekin zegoela esaten dio emazteari.

Hacia el sur ****
Frantzia, 2005. Zuzendaria: Laurent Cantet. Aktoreak: Charlotte Rampling, Karen Young.
105 min. Drama.
80ko hamarkada hasieran, Haiti Baby Doc-en diktadurapean bizi da. Hala ere, turista asko doaz hara. Horien artean, emakume frantziar talde bat iritsiko da, esperientzia berrien bila.

En la tiniebla
Alemania-Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Craig Rosenberg. Aktoreak: Hans Matheson, James Cosmo, Demi Moore.
110 min. Suspentsezkoa.
Rachel Carlson misteriozko nobelagile famatua eta arrakastasua da. Baina bere bizitza hankaz gora geratuko da *Thomas*, zazpi urteko semea, Primrose Hill delako etxean itota hiltzen denean. Urtebete pasatuta, gertakizun misteriotsuak hasiko dira...

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
SARRERENGALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2006/06/30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
132 posta-kutxa, Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-06-23

Mendiak ikusi arte urduri

G2-KO ESPEDIZIOA Dagoeneko jaso ditugu G2ra joan diren debagoiendarren eta urretxuarren lehenengo berriak

BLOGA Espedizioaren berri emateko bloga sortu dute, eta dagoeneko idatzi dituzte lehenengo bizipenak

KONPAINIAN Bihar irtengo da Euskal Herritik beste espedizio bat; Kobate eta Kanpanzar harrobien laguntza izan dute

XABIER URTZELAI > BERGARA

Dagoeneko Islamabadetik irten eta mendi alderako bidean dira Iban Silbar (Arrasate), Josu Juan Llodio (Arrasate), Mikel Sasiain (Aretxabaleta), Andoni Ormazabal (Urretxu) eta Oier Plazaola (Urretxu). Islamabadetik idatzi dituzte, mendi aldera egin aurretik, azken bizipenak. Eta, espedizioaren berri emateko sortu duten blogean egin dute hori: *www.g2espedizioa.com* helbidean duzue euren berri.

Espedizioak joan den asteburuan hasi zuen Gasherbrum II (8.036 metro) mendia helburu duen bidaia, eta Islamabadetik idatzi dituzte azken lerroak. Esaten dutenez, ondo egin dute bidaia: "Atzerapen dezenterekin, baina azkenean iritsi gara Islamabadera. Bidaian lo egin dugu, primeran, eta iritsitakoan esperotakoa: goizeko zortziak izan arren 30 gradu. Bat-batean, baina, Oier kantuan hasi eta zerua ilundu egin da. Derrepentean ekaitza sartu eta kazkabarra bota du; ea freskatzen duen...".

G2-RA BIDEAN Islamabadera iritsita, oraindik bide luzea dute egiteko. Argazkian Andoni, Iban eta Josu Juan. XABIER URTZELAI

Astelehen gauean idatzitakoaren arabera, berriz, ez zuten lo askorik egin: "Jada lotan egon beharko genukeen,bana urduritasunagatik, *jet lag*-agatik edo auskalo zergatik, baina denok gaude iratzartuta. Orain momentuan 00:32 dira, eta bihar 04:45ean altxatu beharko dugu".

Mendi aldera eginda, aurrerantzean gaitzagoa izango da eurekin kontaktuan jartzea. Hasi da benetako lana, zain daude G2ko hormak.

EUSKALDUN GEHIAGOREKIN TOPO

Gipuzkoako boskote hori ez da G2ko kanpamenduan bakarrik egongo, ezta gutxiago ere. Bihar bertan irtengo da beste espedizio euskaldun bat Karakorum aldera, eta Arrasateko Kanpanzar eta Kobate harrobien laguntzarekin egingo dute hori. Enpresa horiek materiala erosi dute Gasteizko eta Goierriko hainbat lagunek egingo duten espediziorako; tartean, Alberto Zerain izango da. G2a dute buruan, baina baita K2a ere. Zorte onena, guztiei.

ahobero

"Pisako dorrea iragarki bat da Gasteizko katedral zaharraren kurbekin konparatuta"

Gonzalo Arroita > Santa Maria katedralaren fundaziokoa

Sarritan kanpokoari ematen diogu garrantzia handiagoa bertakoari baino eta Gasteizen egiten diharduten katedral zaharraren berritze lanak sekulakoak dira, izugarria. Gehiago baloratu beharko genituzke bertako altxorrak.

iturri onetik

Kilometroak 2007 jaialdiko ibilbidea trenbide zaharretik egingo da

Kilometroak jaialdia ospatuko da 2007ko urrian Bergaran. Antolatzaileek ibilbidea laua izatea nahi dute. Horretarako Mekolalde eta Labegaraieta bitarteko trenbide zaharra erabili nahi dute. Hala ere, Mekolalden araztegia egiten dihardute eta lanok baldintzatuko dute behin betiko ibilbidea. Oztoporen bat egongo balitz, ibildea Mekolalderaino beharrean Murinondoraino luzatuko lukete.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Agur, Maria

Aste batzuk pasatu dira baina ez daukat ahazteko. Autoan irratia piztuta neramala, derrepente non entzuten dudan Maria San Gilen ahotsa euskaraz, suelto-suelto. Banekien ikasten ari zela eta, maila on samarra zuen arren —omen—, ez ziola ekiten hitz egiteari oso perfekzio zale delako.

Orain ekin dio, behin horretan behintzat. Eta balio handia du niretzat urratsak. Izan ere, soberan dauzkat aberri eta independentziak, ez badira euskaldun izaeraren bizileku. Eta alferrik dut aitaren etxea, ez badu amaren suak berotzen. Gaur, su hori txingarretan dago, gar handirik gabe. Hain zuzen, hiztun asko izateari darion gar indartsua falta du euskarak.

Horregatik, Maria, eskertzen dizut esfortzua. Politikan ez bada, euskaran batuko gara.

ai, ene!

Komuneko paperarekin diseinu berriak kalean

Komuneko paper zuri klasikoaren aurrean beste alternatiba batzuk badira orain, Bin Ladenen irudia dutenak tartean...

http://tinyurl.com/m4e8m

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR